


KOSMOGONIA


(Berrehun eta sei zenbaki sorgindu)

XABIER GALARRETA



© Marjinalia Bilduma
2001. urtea
Lege-Gordailua: SS-416/2001

Lurpera nazazue Entzeladen.



I¹

Sekula izan ez balitz bezala, basamortuaren erdian galduta, harea azpian ezkutaturik. Noizbait zibilizazio handi bat izan zena. Orain, haizeak txistukatzen duen oroitzapen izengabe bilakatuta. Arkitektoek egindako ahalegina, emakumeek munduratutako haurrak, buruzagiek martxan jarritako egitasmoak, soldaduen garaipenak eta derrotak... Ezer ez. Iraungi egin ziren aztarnarik utzi gabe. Inork ez zuen inoiz zibilizazio haren berririk izan. Berrehun, hirurehun, bostehun eta azkenik mila eta berrehun urte igaro ziren. Baita gehiago ere. Mendeak, harea bezain trinkoak. Baina haizeak basamortuko uhinak kizkurtzen dituenean, txistukari, badirudi ahots askoren zurrumurru urruna bezalako zerbait barreiatzen duela. Eta orduan, hareazko ekaitzak iraun artean, zibilizazioa osterara ere bizira etortzen da. Hantxe, basamortuko isiltasunaren erdian, lekukorik eza nagusi dela, denboraren eternitatea alde guztietatik erabatekoa denean... Une horretan, denboren hasieran galdutako zibilizazioa bizira itzultzen da haizearen hegaletan. Eta inon idatzita geratzen ez diren hitzak entzun daitezke orduan. «Oroitzapenik utzi gabe iraungitako zibilizazioaren istorioa» hori da.

II

Gizon bat bere bizitzako azken uneak bizitzen ari da. Zeren beti baitago «azken bat», baita gauza arruntentzako ere. Eta batez ere, gauza arruntentzako. Horietxek baitira garrantzitsuenak ongi jaiotako giza-semeen artean, behintzat. Ekintza apalak, birtute handiak. Gainerantzekoa, banitatea, zaborra ia-ia. Kontua da gizon bat —guztiok bezalako gizon bat— hilzorian

¹ Zenbaki sorgindu guztien arteko batasuna handia bada ere, zenbakiak erabat loturarik gabeak dira elkarren artean.

dagoela. Eta gaur gauean egingo duen lokuluska bere bizitzako azkena izango dela. Eta gauza jakina denez, lotan gauden artean hainbat amets, diferenteak denak, ditugula, halaxe ere badugu azken amets bat, guztiguztietan azkena. Beharbada, gogoratu ere egingo ez duguna. Berdin dio. Ahantzia da gizakiari eman dakiokeen oparirik onena. Baina zuek jakinminez zaudete: zein izango ote da gizon horren azkeneko ametsa? Izango al da bere existentziaren amarauna nolabait adieraziko duena? aurrez izandako amets guztien laburpena bezalakoa dena? berari behintzat azalpen edo esangura moduko zerbait ekarriko diona? Esango dizuet zer amestu zuen: bide batean zegoela, eta ustekabeen bidea desagertu egiten zela bere oinen azpian, eta segituan oinik gabe nola geratzen zen eta bere gorputz-atal guztiekin poliki-poliki gauza bera nola gertatzen zitzaion ikusi zuela, zeharo desagertu zen arte, fisikoki erabat aienaturik, hortaz. Bere buruaren kontzientzia izaten jarraitu zuen ordea. Eta orduan, ulertu zuen hura heriotza zela. Eta beraz, ez zegoela guztiz hilda. Alderantziz baizik, bere heriotza fisiko, kimikoa baino ez zela izan. Gero, begiak ireki zituenean, egin zuen lehen gauza izan zen eskuekin bere gorputza ukitzea, haztatzea, zurtatzeko oraindik orain bertan jarraitzen zuela, gauza solido bat zela. Eta irribarre bat margotu zitzaion ezpainen-tan, azken arnasa eman baino lehen, eta gero hil egin zen. «Gizonak, hil baino lehen, izandako azken ametsaren istorioa» hori da.

III

Egunero-egunero, esnatzen zenean, bere ondoan lotan zegoen gizonari behatzen zion, eta bere buruari galde egiten zion zer egiten zuen han, gizon haren ondoan, ez baitzuen maite, beste hura baizik. Emakumeak ukabilak hersten zituen, amorru isilaz, eta burkoa berrakatzan zuen gogoan bestearengan zuela. Bai, bizitzak honelako ironiak ditu. Berak beti maitatu zuen gizona,

eta bera ere maitatu zuena, beste emakume baten ondoan esnatuko zen, bere buruari galdera bera eginez, ziurraski. Eta orduan, ukabilak hertsiko zituen, eta burkoa besarkatuko zuen, denboraren zoko-mokoren batean ihes egindako aukerari heldu nahirik. Zehaztasunek ez dute inolako garrantzirik. Zertarako aipatu, beraz? Gertatu egin zen, beste hainbat eta hainbat gauza gertatzen diren moduan. Bizitzan askotan erabaki beharra dagoelako. Bestalde, ez da posible beti zuzen erabakitzea. Gainera, ugariak baino ugariagoak dira gure gainean eragina duten faktoreak... Azkenik, batek bere buruari galde egiten dio ez ote garen panpinak izango, norbaitek —ikuskitzuneke magoak— bere gogara darabiltzan panpinak. Eta maitasun-kontuetan hain da erraza tronpatzea... Maitasuna bera —maitasun guztiak— zer da —zer dira— hankasartze tamalgarri bat baino, batik bat balio digu(te)nak konturatzeko zenbat maite genuen geure behinolako bizimodua, geure gaztaro galdua, geure bakartasun ezinbestekoa? Emakumeak gizon hura maite zuen eta gizon hark emakume hura maite zuen. Hala ere, bakoitza amaitu zen beste ezkontide baten besoetan. Zergatik? zergatik? Hamaika alditan eginiko galdera; hamaika alditan huts egindako erantzuna. Heriotzak haren atean jo zuen arte. «Maite ez zuen gizonaren ondoan bizi izatea egokitu zitzaion emakumearen istorioa» hori da.

IV

Gurutzean hiltzen ari zela, behera begiratu eta gizon-emakumeak ikusi zituen berataz barrezka. Hitz lizunak: "Erakuts hire pottorro politte, puta horrek!"; "ni hirekin zerura joango nindunake"; "a zeinen ederra hagoen hor, gu guzision erregin". Halako batean, soldadu batek lantza jaurki zion, eta saihets-hezurren aldean zauri sakona egin. Lizunkeriak ez ziren hor amaitu: «Sartuko al dinat taketa hire zauri horretatik?»; «hi, lartzana, nolako puta ederra haizen»; «bai, puten erre-

gina!». Barre-algarak. Herritarrak pozik zeuden, besteen sufrimenduaz gozaten. Horrek ez du erremediorik; hala izan da betidanik eta. Gurutzean iltzaturiko emakumeak mundu honetakoa ez zen begirada jendearengandik zerrurantz jasoz, ezpainak ireki eta ozta-ozta entzun zitzaion hau esaten: «Aitta, zergatik utzi nauzu?». Gero, jendeak alde egin zuen. Eta hiru gurutze gelditu ziren zeru goibelaren aurka proiektaturik. Erdiko gurutzean emakume bat, buruan arantzazko koroa jantzirik, eskue-tatik eta oin biluzietatik iltzez zur sufrituari josita, karteltxo bat berataz trufatzeko jarria, goian, honela zioena: INRI. Azken arnasa eman zuenean, trumoi handi bat entzun omen zen. Askok Jainkoaren ahotsa izan zela zioten; edo ahotsa baino, oihua, amorruzko oihua. «Gurutzean hildako Jesus, egiatan emakumezko bat zenaren istorioa» hori da.

V

Gizonaren eskuak dar-dar egiten du, gizateria-ren historia osoan izan den lehen liburuaren orrialdeak pasatzen dituenean. Dakizuenez, beti dago lehen aldi bat, hala nola azken aldi bat ere. Beno bada, huraxe zen lehen liburua, inprimaturiko lehen liburua. Eta berak bere eskuetan zeukan. Hatz dardartsuekin behin eta berriro laztantzen zuen, ukitu baino. Azaleko urrezko letrak hatz-mamiekin haztatzen zituen miretsita. Uste zuen gauzak handik aurrera asko aldatuko zirela. Eta neurri batean, asmatu egin zuen —neurri batean, bakar-bakarrik—. Liburua irekitzen zuen azkeneko orrialdetik, erdialdetik gero, eta hasierako orrialdeetatik segituan. Ez zekien, ez zegoen ziur nondik hasi behar zuen. Esaldi batzuk irakurri zituen eta iruditu zitzaion, ezen, beste baten pentsamendua barruan sartzen zitzaiola. Eta izutu egin zen! Barruan zerbait hankaz gora jartzen zitzaiola ohartzeko astia izan zuen. Helduko ziren beste hainbat argitalpen, dozenaka, ehundaka, milaka, mili-oika... Begiak itxi zituen, eta etorkizunaren sasi aurre-

rapenetan sehaskaturik gelditu zen. Zientzia, ezaupideak, letrak, jainkozko hitzak... Berak, ordea, esku artean zeukana inprimaturiko lehen liburua zen. Eta ireki zuenean, orriak zenbakiturik gabe zeudela ohartu zen. Eta barregura eman zion hortaz ohartzeak. Bai, garbi zegoen: orrialdeak zenbakiturik egotea zen onena. Baina zenbakiak nola jarri behar ziren? Handitik txikira edo alderantziz? eta gai berberak jorratzen zituzten orrialdeek zenbaki berbera izan behar al zuten...? Ez zekien zer egin liburuarekin. Beldur apur bat ere ematen zion. Norbaitek ikusiz gero, deabrukeria egotziko zioten. Horrek heriotza esan nahi zuen, sutea... Dena den, liburua suntsitzea erabaki zuenean, ez zuen egin beldur zelako; egin zuen inprimaturiko lehenbiziko liburua zelako —eta lehenbiziko liburua zenez, irakurle bakarra izatea merezi zuelako—. Bera izango zen inprimaturiko lehenbiziko eta azkeneko irakurlea. Ederra iritzi zion pentsamenduari. Sutara bota zuen eta errauts beltz nola bilakatzen zen begira-begira eta adi-adi gelditu zen, irri ergel batek aurpegia zeharkatzen ziola, begiak hustasun batean galdurik. «Gizateriaren historian lehen aldiz inprimaturiko liburuaren istorioa» hori da.

VI

Argitaratzaileak gaia aipatu zionean, idazleak muzin egin zuen —bestea konturatu ez bazen ere—. Izan ere, terrorezko ipuinak idazteko proposamena egin baitzion. Berari ez zitzaion gogoko literatura-mota hori, bazekielako onak diren idazlanak barru-barrutik sentitu eta sortu egin behar direla, hau da, idazten duzuna zinez sentitzea da funtsezko baldintza literatura-mota batean edo bestean aritzeko. Kasu honetan, ikarazko literatura sortzeak ikara zinez sentitzea zekarren berekin. Eta berak ez zuen nahi. Diru aldetik, ordea, proposamena zen benetan tentagarria... Eta bera kinka larrian bizi zen azken hilabeteetan. Azkenik, amore eman zuen, izu-ikarazko ipuin-bilduma bat idatziko zuela hitz eman

zion editoreari. Eta bihotza erabat kikilduta zeukala, argitaletxetik atera zen bere bizitzako epitafla idaztea enkargatu izan baliote bezala. Ilargia goi-goian zegoen eta haizea bipil zebilen hirian zehar, eraikin garai bate-tik bestera mehatxukor, beharbada mezu-ekarle. Idazlea bere zereginari heldu zion. Eta begiak itxi zituen. Eta poliki-poliki ikarazko itsaso batean murgiltzen joan zen, gero eta sakonago, hondora iritsi zen arte. Han, gizakion baitako munstrokeria-mota guztiak kausitu zituen, ol-dartu egin zitzaizkionak, eta ez zuen handik nola atera jakin. Saiatu zen idazten, bihotza jelatzen zion ikaraz libratuko zelakoan. Bihotz-ahulekoa izanik, aldiz, ez zuen *itzultzeko* aukerarik izan. Galduta zegoen, protagonista ikaragarrien hatzaparretan erorita. Beraz, ikarazko itsaso hartako hondoan zegoela, begirada gorantz itzuli eta ikusi zuen ilargiaren distiraren antzeko zerbait, han, ur azaletik hurbil islatuta. Baina ez zen ilargiaren isla, beste mundura zeraman tuneleko argitasuna baizik. Igaro egin zuen mundu honen eta beste munduaren arteko muga, munstroak eta fantasiak bizi direneko erre-sumara heltzeko. Eta ez zen gehiago itzuli. Biharamo-nean, hilik aurkitu zuten, aurpegian izu-imentzio ikaragarria zuela. «Izu-ipuinak idazteko terrorea bizi beharko lukeelako, terrorezko ipuinik idatzi nahi ez zuen idazlearen istorioa» hori da.

VII

Gizon bat izarpean zebilen, firmamento erraldoiaz miretsita. Urrats bat bestearen segidan ematen zuen ia konturatu gabe. Han, izarpe eder hartan, berak zein leku betetzen zuen jakin nahi zuen. Bere patua igarri nahi zuen izarretan. Gauza txiki, garrantzigabea zela bazekien; ez zuen jeinurik izan behar hori jakiteko. Hala ere, behatu zion unetxo batez piztu zen izar bati, berehala itzali zen bati —izar-uxoa izango zen, noski— eta bere patua han idatzita egon litekeela bururatu zitzaion. Mezua garbia zen, izarrez jositako zeru hura

bezain garbia. Falta zitzaion, ordea, partitura interpreta-
tzeko klabea. Beste izar-uxo batek zeharkatu zuen ze-
ruko ganga miresgarri eta erraldoia, bere atzetik halako
nostalgia bat utziz. Eta gero, beste bat. Eta beste bat...
Zerua poxpoloz piztera joango balitz bezala. Gizonak
harrietan estropezu egiten zuen, ez baitzuen oina non
jartzen zuen begiratzen. Orduan, bere baitan zerbait
pizten zela sentitu zuen, eta jarraian amatatzen berriro...
Begiak itxi zituen eta espazio bera topatu zuen bere
baitan. Eta izar-uxoak zeharka zihoazen infinitu batetik
bestera. Eta orduan, berriz ere begiak itxi zituen, eta
bere baitaren baitan beste espazio bat kausitu zuen, hau
ere izarpeturik eta izar-uxoz ederki horniturik. Eta or-
duan, berriz ere begiak itxi zituen eta bere baitaren bai-
taren baitan beste espazio mugagabe, miresgarri eta
erraldoi bat aurkitu zuen. Panpin errusiarra bezalakoa
zen ordurako. Eta halako une batean, begiak irekitzeko
garaia zela pentsatu zuen, baina ezin izan zuen aurre-
neko espaziora berriz ere itzultzea lortu, baizik bere
kosmogonia hartan flotatzen jarraitu zuela... betiko.
«Izarpean bere patuaren bila zebilen gizonaren istorioa»
hori da.

VIII

Gaztea bere ama hilari begira zegoen. Bera ba-
karrik zegoen hildakoarekin, eta izaturik zegoen. Begi-
ratzen zion begirada apartatzerik ez zeukalako. Hila
zenetik, ordu bakan batzuk baino ez ziren igaroak; be-
raz, gorpua txukun zegoen oraindik. Hala ere, gaztea
izaturik zegoen. Alde egin nahi zuen handik, baina zer-
baitek eragozten zion. Bere amaren aurrean zegoen...
Bera hainbeste maitatu zuen amaren aurrean... Herio-
tzak eragiten zion izua, ordea, hain ikaragarria zen, eser-
lekutik jaiki eta gorputegitik kanpora jo zuen. Eskuare-
kin ateko eskutokiari heldu zion unean, aldiz, bere buru-
tik oroitzapen zahar bat igaro zen. Kanean zegoen, gura-
soen etxe aurreko plazan, eta balkoira agertuta zegoen

bere amari deiadar egiten zion: «Ama, bota idazu baloia!». Orduan, poliki-poliki, bere eserlekura itzuli zen, izua bat-batean desagerturik. «Bai», ahoskatu zuen oraingoan ozenki, «bota idazu baloia, amatxo». Ondoren, oroitzapenak arrapaladan igaro zitzaizkion burutik. «Ama, zumo bat nahi dut; ama, kalera jaisten zarenean, ekarridazu tebeo bat; ama, marrazki bizidunak ikusi nahi ditut; ama, pinturak gastatu zaizkit; ama, mina dut tripan; ama, jolastera joan nahi dut; ama, asko maite zaitut». Orduan, gaztea, bere ama hilari begira zegoen gaztea, hildakoarekin bakarrik zegoelako izuturik zegoen gaztea, ez zen gehiago izuturik sentitu; aitzitik, garai batean bezala sentitu zen, txikitan bezala alegia, bere amarekin zoriontsu sentitzen den haurra bezala. «Hildako amarengandik ikara lehenik, maitasuna gero, sentitu zituen gaztearen istorioa» hori da.

IX

Bere aurpegiari ispiluan begiratu zionean, ezin izan zuen oihu bat erreprimitzea saihestu. Aurpegi hura ez baitzen berarena! Ziur zegoen. Eta hori ez zen txarrena: ispiluan bere aurpegia ikusten zuen bakoitzean, aldaketa batzuk atzematen zituen beti. Bere aurpegia zen, bai, baina aldi berean ez zen bere aurpegia. Denboraren poderioz baizik gertatzen ez diren aldaketak abiadura izugarriaz igarotzen zitzaizkion aurretik. Une batez, ispilua sorgindurik egon zitekeela pentsatu zuen. Beraz, beste gela batera joan zen hango ispiluan bere aurpegiari begiratzera. Gauza bera gertatzen zen ordea! «Etxe osoa egongo ote da sorgidurik...?» galde egin zion bere buruari. Ziur egoteko, kalera jo zuen. Eta bertan topatzen zituen ispilu edota kristal islagarri guztietan begiratzen zion bere aurpegiari. Eta inoiz ez zuen aurpegi bera ikusten! Beti aldaketa bat edo beste atzematen zuen! Txoratzeko modukoa zen. Eskuekin aurpegiari heldu zion, aldaketak eragotzi nahirik edo. Eta hatzetan bertan somatu zituen aldaketa berriak! Korrika, oihuka hasi zen

kalearen erdian. Handik pasatzen zen jendea geldiarazi eta bere aurpegia ez zela berea hasi zitzaion mundu guztiari esaten; arren, zerbait egin zezatela. Lurrera erori eta berehala jendeak biribil bat egin zuen gizarajoaren inguruan. Aurpegia etengabe aldatzen ari zitzaiola esaten jarraitu zuen. Baina, halako batean, biribila osatzen zutenei begiratu zienean, denei gauza bera gertatzen zitzaiea ohartu zen, mundu guztiaren aurpegiak etengabe aldatzen ari zirela alegia. Urrunean, anbulantzia baten turuta-hotsa entzun zen. «Ispiluan begiratzen zuen bakoitzean, aurpegi desberdina kausitzen zuen gizonaren istorioa» hori da.

X

Itzalak erraturik zebiltzan Itzalen Erresuman zehar. Nola heldu ziren hara, misterio hutsa da. Erresuma bera bezala. Leku goibel hartan gustura ez zeudela besterik ezin dugu esan, gainerantzeko zehaztasunak gerorako edota beharbada gure golkorako gordetzen ditugarik. Dena den, gizaki ohien itzalak izan zitezkeen *gauza* haiek argia irrikatzen zuten, kartzela unibertsal hartan kausitzen ez zuten argia hain zuzen — horretan nabarmentzen zen Itzalei zerien gizatasuna, ez daukagunaren irrikan egote hartan—. Itzalen Erresumak ez zuen hasierarik ez amaierarik; espazioko zulo beltz infinituak elkartu izanaren ondorioa zen, eta zabaltzen eta zabaltzen jarraitzen zuen, etenik gabe. Itzalak, hala ere, ito egiten ziren giro infinitu hartan. Ez zekiten gainera nortzuk ziren. Beraiek beren hasiera propiora itzuli nahi zuten, beharbada norbaitzuk ziren hasierara... Lurra izeneko planetatxo garrantzigabea. Itzal bakoitzak argizaritxo bat zeraman, oin aurretxean zeukaten tokia beste ezertarako argiztatzeko aukera ematen ez ziena. Guztira zenbat itzal izango ziren han, Itzalen Erresuman, esatea zaila da, munduaren hasierako itzal guztiak bertan biltzen zirelako, eta itzalen sorburu omen ziren gizaki —unibertso guztietako gizaki— guztien itzalak

bertan amaitzen zirelako... sekula sekulorum! Gure aldetik, hori da dena. Bestalde, barkamena eskatzen dizuegu zehaztasun gehiagorik ezin eman izanagatik. Itxoin! Gauza bat, garrantzi handikoa, ahaztu zaigu esatea: Itzalak Itzalen Erresuman bizi ziren, denboren iluntasunean galtzen ziren arte. Egia esan, ezer gutxi argitzen du horrek, gure kontaktaren hariarekin guztiz bat datorrela aitortu beharra badago ere. «Denboren iluntasunean galtzen ziren arte, Itzalen Erresuman bizi ziren Itzalen istorioa» hori da.

XI

Infinitua sentitzen zuen bere baitan sarturik, bere hortzen artean zintzilik, bere odol-basoetan eta odol horixe ponpatzen zion bihotz nekaezin hartan. Infinitua zen zementua bezain solidoa sortzen zitzaion pentsamendu hura. Eta gizonak begiak itxi zituen, hormigoizko pentsamendu mugagabeari errealitate handiagoaz atzemateko. Pentsamendu unibertuala zen, denborarik gabea, bakartasuna bera gainditzen zuena. Eta hola, begiak itxita zeuzkala, iluntasun hartan begiak areago ixten saiatu zen; baita lortu ere. Eta bere pentsamenduan igeri egiten hasi zen. Ez zuen ezeren beharrik; pentsamendua apartatzen zuen eskuekin, eskuahurrekin. Halako batean, utzi zion une batez bere bihotza entzuteari, gelditu izan balitzaio bezala... Eta horren ordeztan, pentsamendua, lehen baino trinkoagoa, infinituagoa, den-dena hartzen. Heriotza zen. Bere pentsamenduan murgildurik egotea hilda egotea zen; edota beste pentsamendu batzuetan murgiltzea, ate bat irekitzen dugunean bezala. Berak ate asko ikusten zituen, eta bat ere ez zegoen itxita. Aitzitik, ate bat irekitzen zuen bakoitzean, beste pentsamendu batean sartzen zen, edo agian beste pentsamendu huraxe zen bere pentsamenduan barruan sartzen zena. Horrek berdin zion. Zeren ordurako pentsamenduak pilaturik zeuzkan. Bere pentsamendua pentsamendu askoren pilaketa zen. Eta inoiz

ez zen bukatzen. Ateak, zein bere pentsamenduaren zaintzaile, infinituak ziren. Une batez bere ahotsari galde egin zion Jainkoa izaten amaituko ote zen. Ez zuen erantzuna bilatzeko nekerik hartu, baizik beste ate bat ireki zuen, eta bere pentsamendu erraldoi, unibertsal, espazial horretan areago murgildu zen, nor zen gehiago jakin ez zuen arte. «Pentsamendu infinitua proiektatu zuen gizonaren istorioa» hori da.

XII

Gizonak arnasa sakona hartu zuen. Eta ahotik ihes egin zion hatsa beste denbora batzuetako oroitzapenak ekarri zizkion. Zaharra zen, oso, aurpegiari guztiz garbi nabarmentzen ez bazitzaion ere. Hiru edo lau mila urte zituen; beharbada, gehiago. Bere sorrera zen ondoren gogoratzen ez zituen gauza bakanetariko bat. Bera beti egon zen bertan. Bere eskuei begiratu zien, zimur arin eta ia-ia ikustezinez zeharkaturikoei. Harri gris baten gainean eserita zegoen, harkaitza bera bezain geldi eta astun. Erabateko presentzia zen. Eta begietara begiratzen zion gizasemea zulo sakon eta amaigabe batean zehar erortzen sentitzen zuen. Diotenez, baten bat amildegia bezalakoa zen bere begirada hartatik behera erori eta desagertua omen zen. Ez zuen inoiz inorekin hitz egiten. Mutua ez ote zen pentsatzen zuenik ere bazegoen. Munduko hizkuntza guztien sorrera ezagutu zuen gizona, ordea, ezin izan mutua. Beharbada, hizkuntzen sorreratik edan izanagatik galdu zuen bere garaikideekin hitz egiteko gogoia: haien hizkuntza zikindurik, nahasturik aurkitzen zuelarik. Hiru edo lau mila urtetan hainbat gauza ikusi eta ikasteko aukera dago, izpiritua zabalik duenarentzat. Eguzkia zeru goian bazegoen ere, begi batean eguzkia, bai, baina beste begian ilargia islatzen zitzaion. Eta mugimendurik txikiena egiten zuenean, denbora gelditu egiten zen, baita animaliak eta gauzak ere. Esaterako, txori bat bere aurretik pasatzen ari zela besoa edo beste gorputz-atal bat mugitu

tzen bazuen, bere mugimendua amaitu artean txoria espazioan gelditu geratzen zen. Ez zen berak egindako sorginkeria, naturaltasun osoz zerion sorginkeria baizik. Oraindik orain bizirik dirau, munduaz interesatzeari aspaldian utzi bazion ere. Bere barruan beste mundu bat, erabat infinitua —gurea ez-bezalakoa— sortu duelako. Bere sorrera eta bere amaiera erauzi ditu barrutik. Eta badaki beste hiru edo lau mila urte ostera ere igaroko zaizkiola... kanpotik —zeren barrutiko denbora neurri-gabe bilakatu baitzaio—. Azkenik, begiratzen digu eta ez gaitu ikusten, gu... kobazulo ilun hau populatzen dugun mamutxo gizarajook... «Hiru edo lau mila urte zituen gizonaren istorioa» hori da.

XIII

Landare-hesi izugarri handiz osaturiko labirinto erraldoiaren erdian, marmolezko estatua distiratsu eta orbanik gabea zetzan, zeru gris eta melankolikoaren azpian. Estatua bat, barruan harrizko bihotz bat daukana, taupa eta taupa antigoaleko garaietatik, gizakion oroimena nekez iristen den denbora hartatik... Sekula ez da haragizko izakirik lorategi labirintikoan sartu; jainko zahar eta paganoek bakarrik begira diezaiokete bertako biztanle bakarrari, jainkozko gelditasun faltsu horretan beti, mila kontu deszifragaitz buruan... Nola egiten duen inork ez daki, baina gaur hemen eta bihar han, estatua tokiz toki ibiltzen da, irteeraren bila —sekula aurkitu gabe, jakina— eginkizun horretan bere «existentzia» eternoaren helburua aurkitu izan balu bezala. Eta harrigarriena zera da, lorategian aurkitzen duen leku bakoitza erabat ezezaguna egiten zaiola, milaka eta milaka urtetan lorategi hura besterik ezagutu ez arren. Bestalde, leku aldaketa eguneko edozein momentutan izan daiteke: gaueko ordu txikietan, eguzkia goi-goian dagoela, ilunabarrak bere azken agurra herabeti bidaltzen duenean... Sastrakako fauno bihurriak estatua lekuz aldatzen den unea harrapatu nahian ibiltzen dira

beti, hori egitea debekaturik badaukate ere — harrapatuak izanez gero, jainkoen haserreak ez baitu urrikirik: bat lorategiko lore hosto bihurtuko dute; beste bat, labirintoko iturri kantari, edota lureko harri kozkor... Ai, igaro ziren jainko paganoen garaiak, igaro ere kristauen amets solidarioak, eta igaro azkenik gizakia-
ren arraza mitikoa bezain patetikoa. Baina estatuak bertan iraun zuen, misteriotsuki lekuz aldatzen beti, denboraz harantzago... denboraz harantzago. «Labirinto erraldoi baten erdian galdutako estatua marmolezkoaren istorioa» hori da.

XIV

Gizona edo animalia ote zen, auskalo. Ilargira begira zegoen, gauaz beldur izateaz ere ahaztuta. Ilargia ikaragarri handia zen, espazioa bezain handi eta biribila ia. Gizona edo animalia zen izaki hura miretsita zegoen, eta bihotzean bor-bor egiten zion sentimendu basati batek erraiak ahotik botararaziko zizkiola iruditzen zitzaien. Eskuan zeukan makilatxoarekin, hondartzan biribil bat egiten hasi zen, ilargira begiratzeari utzi gabe. Gero, beste biribil bat egin zuen harea bustian; eta gero beste bat, eta beste bat. Inguruan biribil gehiago egiteko tokia amaitu zitzaionean, piska bat mugitu eta gauza bera egiten jarraitu zuen, makilatxoarekin hondartzako hondarretan biribiltxoak marrazten alegia, beti ere ilargira begiratzeari utzi gabe. Itsaso gainean ilargia islatzen zen puskaturiko hamaika islatan, olatuen ganderrekin jolasean, hondartzaraino bertaraino iristen, bolizko ezpainak bailiran. Bat-batean, gizona edo animalia zen izakiak ulu bat jaurki zuen; eta hizkuntzatzat oraindik jotzerik ezin izango genukeen eztarriko soinu-multzo bat ahoskatzen saiatu zen. Hurrengo egunean, egunsentiko haize hotzak iratzarri zuenean, aurreko gauean hondartzan marraztutako biribilak ikusi zituen, itsas gorak behintzat errespetatu zituenak. Gizona edo animalia zen izaki horren begietan, ordea, zerbait bestelakoturik ze-

goen: haren begiradan... distira egiten zuen zerbait zegoen... ilargi izpi bat —izpi zuri horietariko bat— barruan sartu izan balitzaio bezala... adimen izpi bat... Eta gizona edo animalia zen izaki hura zutik jarri zenean eta urrats bat aurrera eman zuenean, noizbait gizaki bilakatuko zela zalantzarik ez zuen izan. «Zero zenbakia asmatu zuen gizonaren istorioa» hori da.

XV

Laboraria, bera bezain zaharrak ziren mahastien artean lotan zegoen. Inork ez zekien zenbat denbora zeraman horrela. Baina inguruetako belaunaldirik zaharrenak gogoratzen ziren hartaz, mahastien artean lotan beti. Ipuin zaharren arabera, milaka urte zeramatzan han; edo hobeto esan, betidanik hantxe egon zen, mahasti bat gehiago izango balitz bezala. Izan ere, jendearen sinesmenen arabera, erroak eta guzti zituen: burutik, oinetatik, bizkarretik... gorputz atal guztietatik ateratzen zitzaizkion lurrari atxekita eusten zioten erroak. Gauez, laboraria lotan zegoen mahastira joatea debekaturik bazegoen ere, ausartzen zirenak jakinminez hurbiltzen zitzaizkion, eta kontatzen zutenez (adimenez nahasita geratu ez zirenek —eta handik gutxira, horiek ere hilak—) mahastietako mahats-mordoen ale bakoitzean istorio bat agertzen zen irudikaturik, inoiz amaitzen ez zen istorio bat, zeren hurrengo gauan beste istorio bat agertuko bailitzateke mahats-mordo horretxan aleetariko bakoitzean, aurreko gaueko istoriotxoak —ale horrexena eta ale guztiena— denboratik kanpo gelditzen zelarik, aurrera jarraitzen zuena ordea, inoiz amaitu gabe. Mahasti zahar hartako mahats-mordoen aleetan islaturiko istorioak, laborariak lotan izandako ametsak ziren, edota baita amets horien interpretazioak eta apika egia bihurtu zirenak —eta bihurtuko zirenak— ere. Eta milioika zurrumurru antzeko zerbait entzuten zela zioten, inurritegi batean belarria jarri eta bat-batean inurrien solasaketa entzuten hasiko bagina bezala. Errioxa Arabarreko

herriska txiki batean horixe kontatu zidaten bertako mahastizain eta ardo egileek. Berehala konturatu nintzen jende haiek zenbat maite zituzten euren lurretako mahastiak. «Denborazko lotura kosmiko eta sekretuak amesten zituen laborariaren istorioa» hori da.

XVI

Hasieran, argi zerrenda nimiño bat izan zen; gero, poliki-poliki, aldaketa baten eta hurrengo aldaketaren artean gaurko gizaki baten existentzia laburbildurik balego bezala, argi zerrenda irekitzen joan zen, lehen izakiaren begiekin batera. Zeren izaki bat zegoen —eta ez diot «gizaki» bat zegoenik, oraindik ez baitzen hainbeste/hain gutxi—. Argia, bizi gehiago eta oparoagoa ekarriko zuen argia. Egunen batean, zibilizazio planetario bat ahalbidetuko zuen argia. *Noiz arte jarraituko dut etengabe hedatzen? noiz arte jarrituko dut nik ni naizen zelula-multzo hau osatzen?* Halako galderak egiten zizkion bere buruari argi-zerrendatxo gero eta handiagora begira zegoen izakiak. Pentsamendua argi-zerrendarekin batera irekitzen zihoan, gerora giza pentsamendua bilakatuko zena. Denok aurkitzen dugu noizbait gure bidea, gure adimena, gure pentsamendua, gure adierazteko ezintasun/ahaltasun hau guztiau. Eta orduan, hitz egin ere, ezpaineekin ez baizik larru-azaleko begitxoekin egiten dugu hitz. Orobat ere, argi zerrenda handiagotzen zihoan, eta izakiak bere baitako zurrumurrua entzun zezakeen orain. Hazten eta hazten zihoan, amaitezin, agortezin, ezerezatik aterako zuen dei, haragizko dei hari jarraiki. Ez zuen ama baten beharrik; ez zuen laztan baten premiarik (zibilizazioa eta hori dena aurrerago helduko zen, izurri guztiak heltzen diren modura). Orduak, gurinezkoak bailiran, akatu egin ziren marmeladazko itsaso urrikalgarri batean. Jainkoak ere bere lau iletxoak orraztu zituen. Eta norbaitek oihala jaso zuen. Eta eguzki bat, ederra, berotasun emalea, zeru kaotikoan zehar igotzen, trepatzen ikusi zuen lehen izakiak.

Eta orduan, bueltako bidea egiteko dena prest zegoela ulertu zuen: heriotzara itzuli beharra zegoen, lagunok. Heriotzara berriro! «Lehen goizaldeko lehen eguzki argia giza begiekin ikusi zuen lehen izakiaren istorioa» hori da.

XVII

Gazte bat, izenik ez zeukan edota izenik zeukanik ez dakigun bat, erori zen —edo bere burua bota zuen, auskalo— izenik ez zeukan ibai batera (zeren behintzat hori badakigu, ibaiak izenik ez zeukala). Eta kontua da inork ez zekiela zehatz nor zen, ezta erori zenean burutik zer pasatu zitzaion ere. Jendea, hala ere, miretsita zegoen: nola ote da posible, izenik ez daukan edota izenik ba ote zeukanik ez dakigun gazte bat, hola, besterik gabe, ibaian itota hiltzea?... Gutxienez, nor zen jakin beharko genuke, ezta? Izan ere, gauza misterioitsua baita pertsona baten patua. Are misterioitsuagoa, hortaz, heriotza tragikora daraman pertsona bati loturiko patua izanik. Izen bat, sikiera, barrutik erretzen gaituen jakin-minaren truke! Hondoratu baino lehen hura ikusi zutenek eskuekin marrazki geometriko antzeko zerbait egiten saiatu zela esaten zioten mundu guztiari. Eta begietan beldur-antzik ez zeukala. Ibaiak ere ez omen zuen gaztea itotzeko presarik erakutsi. Dena ondo zegoen; mundua ondo zegoen; gaztea eta ibaia ondo zeuden... izen bat, dioxosozko izen bat baino ez zen falta, denok lasai geratzeko. Bizitzari, ordea, ezin zaio gehiagorik eskatu. Eta hori denek dakite, baita izenik ez zeukan edota izenik zeukanik ez dakigun gazteak ere. Urteak igaro ziren, beti bezala. Eta jendeak ahaztu egin zuen gaztea, eta ahaztu baita ere ibaia bera... Ibaia ordea ez zen bere biktimaz ahaztu. Eta gauez, entzuten dakienarentzat, haizearen orroa gainditu eta zuhaitzen zurrumurrua isilaraziz, gauez, izar gaiztoek beren hoztasuna bidaltzen digutenean, izen bat ahoskatzen dute ibaiko ur azkarrek, barre hotsen artean galtzen den izen bat...

«Izenik gabeko ibai batean itotako gazte izenik gabearen istorioa» hori da.

XVIII

Animalia hiltzen ari zen. Hori berez ez da bat ere harrigarria, ezta kezkatzekoa ere, zeren denok daki-gunez, animalia guzti-guztiak, salbuespenik gabe, hiltzen baitira, baita gu ere —baldin eta *animalia* izena merezi badugu—. Beno bada, orduan zertarako atera dut kontu hau harira? Bada animalia berezia delako, noski. Zertan? Bada kopuruan, hain zuzen: bere espezieko azken alea da-eta. Azken-azkena, bai. Garai batean, ia-ia arratak bezain ugariak izan arren, gaur egun espeziea desagerturik dago, beste espezie asko bezala, gure indiferentziaren erdian. Tira, bada, ez gaitezen sentimentalak jar; roll hori gaizki datorkigu-eta. Ken dezagun mo-zorroa eta aldarrika dezagun lau haizetara egia hutsa: bost axola zaigu dena. Baina itzul gaitezen harira, espezie horren azken alea zain dugu-eta. Ar bat da. Eta esan dugun bezala, azken-azkena. Espezie horren eme guztiak hilda daude, eta baita gainerako ar guztiak ere, bera izan ezik. Zuhaitz batera igota dago; handik, zerbaiti begira dirau. Berak jakingo du zeri... Itsasoa, zerua, zuhaitzak, errepide bat, ibilgailuak... Halako gauzak ikusten ditu atalaia horretatik. Animaliak ez dira ton-toak; beraz, badaki bere espeziearen azkena dela. Ez du eme eske deirik egiten; lehen bai, ordea. Espezieak gutxieneko ar-emeak zituenean, arrak eme eske aritzen ziren. Baina orain ez. Bakarrik dago eta badaki bakarrik dagoela. Beraz, zuhaitz altu batera igo eta begi aurrean suertatzen zaion guztiari begira orduak eta orduak igarotzen ditu. Kito. Laster, jateari ere utziko dio. Izadiaren deiari jarraituko dio azkeneko aldiz. Agur eta ohore zuri, laguntxo! Eta, laster arte... «Animali espezie baten azken alearen istorioa» hori da.

XIX

Hura bai hiztegi bitxia! Hitz ordain bakoitzaren ordezt, zenbaki bat ekartzen baitzuen beti. Zenbaki horiek zifra bakarrekoak, bikoak edota hogeitahamasei zifra-koak izan zitezkeen. Infinituak ere bai. Hitzak adierazi nahi zuen kontzeptua zenbat eta konplikatuagoa izan, orduan eta zifra gehiago. Beti zegoen ordea esangura ulertzeko bide bat, klabe bat. Batzuetan, formula matematikoak erabili behar ziren zer esan nahi zuten jakiteko. Horregatik, filologian aritzeko matematikari ona izan behar zuen batek —orain ez bezala—. Txarrena zen hitz ordainak zenbaki ia infinituekin adierazten zirela. Uf, orduan ia ez zegoen zer eginik... Horrek, noski, esan nahi zuen zenbait kontzeptu ulertezinak zirela; edo, behintzat, euren osotasunean ulertzea erabat ezinezkoa zela. Baina denetan harrigarriena zen 0 zenbakia infinituraino proiektaturik zeukan hitz ordaina. Ez galdetu nolako teknika erabiltzen zuten inprimategietan horrelako kontzeptu zenbaki infinitudunak adierazteko; bakar-bakarrik esango dizuet goi injinerutza eta goi matematika eta goi informatika behar-beharrezkoak zirela horrelako hiztegiak egiteko. Ia-ia jainkozkoak ziren —askoren ustez, adituek beraiek ez zekiten zelan egiten zuten—. Adibide bat jarriko dizuet; demagun euskaraz "maitasun" hitza dagoela, ezta? Bada gure hiztegi matematiko unibertsal honetan horrela zetorren adierazita: $67+11\%34$. Guri hizkuntza hori txikitatik bertatik irakasten ziguten; beraz, oso erraz geureganatzen genuen hizkuntza matematikoaren nondik-norakoa, mekanika. Hori da dena. Ezin dut argibiderik gehiago eman, arazoak izan nitzake-eta. «Hitz ordainaren ordezt, beti zenbaki bat zekarren hiztegi bitxiaren istorioa» hori da.

XX

Hamazazpi egun zeramatzan langelatik atera gabe. Baina, orain lana amaiturik zegoen. Bestalde, galdetuz gero, ezin izango lizuke erantzun ea merezi izan zuen... Guztira, hil arte zenbat egun geratzen zitzaizkion asmatuta baitzeukan. Ez zitzaion erraza izan formula aurkitzea; azkenik, aurkitu ere egin bazuen ere. Sei mila berrehunda bost egun, ez bat gehiago ez bat gutxiago. Gero, mundu honetatik, behintzat, zeharo desagertuko zen. Hamazazpi urte inguru, beraz. Jakin zuenean, epaileak kartzelan hamazazpi urte egotera zigortu izan balu bezala gelditu zen. Lehen, zenbatekoaren berri ez zekienean, askeagoa zela iruditu zitzaion — arrazoi osoz gainera—. Zenbat egun geratzen zaizkizun zehatz jakinik, hiltzeak graziarik ez zeukala ondorioztatatu zuen. Horra, zientziak zertarako balio zuen! Kalkuluak, ordea, zuzen-zuzenak ziren. Galduta zegoen. Beraz, bere bihotzari hil arte zenbat taupa geratzen zitzaizkion kalkulatzeari ekin zion. Lan gogorra, benetan. Baina gizateriak egunen batean eskertu egingo zion... «Guztira zenbat egun geratzen zitzaizkion asmatu zuen gizonaren istorioa» hori da.

XXI

Zigarro bat piztu zuenean, zigarroari begira geratu zen: *kea*, esan zuen ia ia bere artean. Ni ere kea izango naiz laster. Hil behar zuelako; edo, hobeto esan, hil behar zutelako. Hiltzera zigorturik zegoen. Bi pertsona lapurreta batean hil ostean, harrapatu, epaitu eta hiltzera zigortu zuten. Ez zitzaion injustua iruditzen, bakarrik, halako nostalgia bat ematen zion laster hilko zela jakiteak. Bera, halere, ez zen inoiz sentimental horietako bat izan. Banketxe lapurra, hiltzaile arriskutsua —hark egindako zenbat hilketa geratuko ziren argitu gabe!—. Tristura sentitzeko denok berdinak gara horretan... Ez dakit bada nola azaldu, gure hezur mamiari bat eginik daramagun zerbait da. Tristura eta poza, oxigenoa eta ura, azido*kleikoa*... Ezer ez, txakurraren

putza. Hil aurretiko uneak bizitzen ari zen. Eta une haiek bere zigarroak ateratako keari loturik zeudela ikusten zuen. Bere izena ozenki ahoskatu zituen hainbat aldiz; arraroa egin zitzaion bere izena entzutea... Hesteak, odola, zainak, barruko haragia, bere pentsamendua, bere barne-ahotsa... Den-dena desagertuko zela pentsatzean, gaixotu egiten zen. *Jainkoarren!* Entzun zen kartzelako heriotzaren korridorean. Baina ia inork ez zion kasu handirik egin, halako deiadarrak ugariak baitziren halako toki batean. Lehenago edo beranduago, denok amaitzen gara Jainkoaz oroitzen. Geroago puskatuko zuen gutuna idatzi zuen; norbaitek ezkutuan helarazi zion botila hustu zuen; oroitzapen lauso bat edo beste ezabatzen saiatu zen; a, zeinen arrunta zen hiltzea! Zergatik ez zion inork sekula azaldu? jakin izan balu, erreparo gutxixeago jarriko ziokeen errugabeak hiltzeari! Gora! Gora nire patua! Hasi zen oihukatzen. Mozkortuta zegoen. Botila pasatu zion kartzelazainak zuhurtasuna gomendatu zion, beragatik sikiera... Gero, isiltasuna nagusitu zen kartzelako korridoreaz. Eta handik gutxira, zelda hura hutsik zegoen. «Hiltzera zigorturiko gizonaren azken uneen istorioa» hori da.

XXII

Ez dakit zergatik ez diezun erantzuten nire gutunei. Aspalditik nago zure erantzunaren zain. Badakizu maite zaitudala... Zuri antza gustatzen zaizu niri sufriaraztea, ezta? Hemen daukazu nire apaltasuna, berarekin —nirekin— nahi duzuna egin dezazun. Leihotik landara begira nago, bakardade izugarri honetan. Landan bizi naizela badakizu, baina zuri ez zaizu inporta. Elur maluta lodiak pilatzen doaz. Eta idazten dizudan gutun bakoitza, erantzunik gabe gelditzen den bakoitzean, nire bihotzean kokaturiko elur maluta antzekoa da —beruneko maluta hauek...—. Baina zuri ez zaizu inporta, ez baituzu orain arte erantzun. Urratzen nauzu, erretzen nauzu, zorutzen nauzu... Baina zuri ez zaizu

inporta. Behar zaitut, maite zaitut, gorroto zaitut... Baina zuri ez zaizu inporta. Beste egur bat botatzen dut sutara. Entzuten dut suaren kanta; baina ezerk ez nau berotzen. Nik erantzun bat behar dut, iristen ez den erantzun bat. Leihoaz harantzago den-dena dago zuri, elurrez estalita, munduan ni bakarrik existituko banintz bezala. Baina zuri ez zaizu inporta... Gutun hau idazten dizut, baina zuri ez zaizu inporta... «Dagoeneko hilda zegoen maitaleari —berak ez zekien hilda zegoenik— gutunak idazten zizkion emakumearen istorioa» hori da.

XXIII

Errauntsak gainetik hedatzen zitzaizkion. Eta berak, irriz, gertaerari behatzen zion, oso ondo ulertu gabe. Erraunts horiek berak asko maite zuen pertsona batenak ziren. Hil eta gero, gorpua erre eta orain erraunts beltz haiek ziren pertsona maitatu hartaz gelditzen zen gauza bakarra. Sinestezina... Esku bat luzatu zuen aurrerantz, erraunts multzo hura fisikoki egiaztatu nahian edo. Eskua airean utzi zuen, saiatu ere egin gabe erraunts haiek ukitzen. Haizea zirimolaka zebilen eta errauntsak ere zirimolaka zebiltzan, dantzan bezala, sorgindurik. Begirada barrurantz zuzendu zuen, bere baitan pertsona haren oroitzapen antzeko zerbait bilatzeko. Eta aurkitu bazuen ere, ez zitzaion ezertarako balio izan, errauntsek haren aurrean dantzan jarraitzen zutelako. Erraunts dantza... Existentziak izan zezakeen esangurari buruz gogoetaturik, apur bat lotsatu zen bere gaitasun intelektual nimiñoaz... Une batez, erraunts horien jabea izandakoa bere ondoan zegoela iruditu zitzaion. Hala izanez gero, bera bezain miretsita egongo zen, noski... Dena da igarotzekoa mundu honetan. Kea txu bihurtuta botatzen duen tximiniaren parekoak gara. Eta halako gauzak pentsatzen hasi zen, horrelako egoeretan denok bezala. Etxeko hozkailua irekitzen duzunean, telebista pizten duzunean, erosi berri duzun kotxea abian jartzen duzunean... naturaz gaindikoan pentsatzea bada gauza bene-

tan zirtzila, barregarria. Baina maite duzun —edo maite zenuen— pertsonaren errautesak zure inguruan, zure gainetik hegan egiten, flotatzen, ikusten dituzunean, orduan, mundu honetan —eta baita haraindikoan ere— edozer posible dela konturatzen zara. «Maite zuen pertsonaren errautesak bere gainetik hegan egiten ikusi zuen gizonaren istorioa» hori da.

XXIV

—Egun on —esan zion emakumeak.

—Baita zuri ere —erantzun zion Jesusek.

Isiltasun arraro bat sortu zen gizonaren eta emakumearen artean, emakumeak lehenik hautsi zuena, esanez:

—Min egiten al dizu?

—Zerk? Munduak?

—Ez, ez. Lantzak...

—O, ez! —erantzun zion Jesusek jostaturik.

Emakumeak lantza hatzekin ukitu zuen, benetako zela ziurtatzeko. Gero, Jesusi begira gelditu zen, haren begietan mezu bat irakurri nahian. Orduan, esan zion Jesusek:

—Zer irakurri nahi duzu nire begietan?

Emakumeak zalantza egin zuen une batez. Gero, herabeti, esan zuen:

—Egia...

Orduan, Jesusen begietan ordura arte jaiotako eta hildako gizon-emakume guztien istorioak islatzen hasi ziren. Istorioak izugarri azkar igarotzen ziren, existentzia osoak ozta segundu batean islatzen zirelarik. Hiru egun joan ziren tankera horretan. Azkenik, azken istorioa islatu zenean, emakumeak Jesusi —edo dena delakoari— musu luze bat eman zion ezpainetan, eta gurutzetik jaitsita, alde egin zuen herri hartatik, eta ez zen sekula haren berri gehiagorik izan.

«Emakumeak Jesusekin —edo dena delakoarekin— izandako elkarriketaren istorioa» hori da.

XXV

Bitzita honen ostean, gauza jakina da edozer egon daitekeela. Guk, ordea, bertan gelditzen garenok geure azken orduaren zain, gauzak kanpotik ikusten jarraitu beharra daukagu; eta hortaz, gauzen azalean gelditu. Kontua da bi hildakoak elkarren ondoan zuedela. Lehenik bat hil zen; eta handik urte batzuetara, haren ondoan jarriko zuten bestea hil zen. Berdin dio nortzuk ziren. Jende arrunta, seguru —kanposantuak jende arruntez josita daude-eta—. Horra gauzak zelan diren: bizi izan artean, elkarren existentzia igarri ere egin ez zuten bi hildako haiek elkarrekin lurpetaturik! Egia esan, horrek ez du ezer esan nahi. Baina, tira, badu bere... morboa. Esan nahi dut, zuek pentsatu al duzue noizbait noren ondoan lurpetaturik egotea egokituko zaizue...? Izan daiteke edonor: banketxe batean bizitza osoan lan egindako enplegatu zintzo eta apala —edo beharbada, ez hain zintzoa...—; edota aulki elektrikoan hiltzera zigortutako hiltzaile basati bat —edo beharbada, ez hain basatia—; edota emakume zintzo eta birtutesu baten ondoan —edo beharbada, ez hain zintzo eta birtutetsua—. Mila adibide gehiago jartzen jarrai genezake, baina zertarako? Nori axola dio noren ondoan lurpetaturik egokituko zaion momentua iristen zaionean? Segu-

raski berari ez; zorte apur batekin, beste batzuei inportako zaie bakarrik; eta hori ere, zorte apur batekin... «Elkarren berri sekula izan ez zuten bi gizon hilen eta elkarrekin lurperatutakoen istorioa» hori da.

XXVI

Argazkiari begiraten genion bakoitzean, bihotza kizkurtzen zitzaigun penaz eta beldurrez. Izan ere, argazkian agertzen zenari begiraten genion bakoitzean, haren aurpegia pitin bat zahartzen baitzen. Begirada batetik bestera gertatzen zitzaion zahartzea behatzaile ez-adituarentzat ia-ia oharkabea bazen ere, guretzat, ohituta geundenontzat, nabarmena zen. Ez genekien nola gertatzen zen. Argazkian zegoena aspaldian hila zen; gure sendiko bat, maitatua izan zen bat. Kontua da argazki hura maite genuela, pertsona hura maite izan genuen bezala; batik bat berataz geneukan argazki bakarra zelako. Horregatik ez genuen botatzen, gure ikara gora-behera. Bazirudien mezu antzeko zerbait igorri nahi zigula beste mundutik. Edo, agian, gutaz barre egiten ari zen, zeren bizi izan zenean izan ere oso adar jotzaile fina izan baikenuen. Dena dela, kontua hori zen, begiratu bakoitzean zahartu egiten zela. Eta argazkia bera ere bai; horiska kolorea eta gris kolorea biziagotzen zitzaizkion, badakizue, argazki benetan aspaldikoetan gertatzen den bezala —argazki hura duela urtebete eskas aterata egon arren—. Egun batean, argazkia gordetzen genuen kaxoia ireki genuenean, aurpegia argazkitik desagerturik zegoela ikusi genuen. Eta handik gutxira, argazkia bera hasi zen desagertzen, argazki-papera eta gutzi. Eta aurrerago, argazkia gordetzen genuen kaxoia hasi zen desagertzen. Eta konturatu ginenerako, gela bera desagertzen hasi zen, eta gero etxea, eta gero etxea zegoen kalea, eta gero kalea zegoen herria, eta gero... gu. «Begiraten zitzaion bakoitzean, piska bat zahartzen zen argazkiko erretratuaren istorioa» hori da.

XXVII

Batzuetan iruditzen zaigu gauza guztiak hasi eta bukatzen direla, eta halako jarraipen lineal bati jarraika gertatzen dela hori guzia. Bada ez, jaun-andreok. Hori ez da beti hala gertatzen. Egia esan, gaizki egiten dugu begiek erakusten digutenaz fidaturik. Are okerrago gabiltza, geure oroimen ustez historikoaren —edo geneologikoaren— esku guri buruzko hasiera nostalgikoak utzita. Amaren sabelean gaudela, esaterako, zeintzuk pentsamendu mamitzen zaizkigun argitzea baita zenbaki sorgindu honen helburu bat ere ez erraza. Lehen pentsamendua —pentsamendu bakarrarekin nahastu behar ez dena— garai horretan sortzekoa dela aspalditik zekiten-eta Grezia zaharreko filosofo jakintsuek. Lehen pentsamendua da geroagoko pentsamendu guztiak nolazbait edukiko dituen. *Pentsamendu ama* edo halako zerbait. Pentsamendu guztien enborra. Munduratu ostean, hortik garatzen hasiko diren pentsamendu guztien bilbea. Horra! Jauzi pentsamendu batetik bestera! biribil ezazu hurrengo portaera —portaera, jarrera eta gainerrako ideologia guztien euskarria pentsamendu-jauzi baten ondorio dira-eta—. Beno bada, pentsamendumultzo originario errepikaezin eta bakar hori amaren sabelean mamitzen da lehen eta azken aldiz, hortik aurrera izango ditugun pentsamendu guztiak hasierako pentsamendu horren isla patetikoa besterik ez direlarik. «Amaren sabelean geundela, mamitutako lehen pentsamendu sortzailearen istorioa» hori da.

XXVIII

Gizona hizketan ari zen harri batekin. Eta geuzurra badirudi ere, inori ez zitzaion arraroa iruditzen; oso arraroa, behintzat, ez. Haren berbaldia apur bat monotonoa zen, aspergarria itxuraz, errezatzen egongo balitz bezala. Batzuetan, eskuaz harria laztantzen zuen eta une

jakin batzuetan lurrean belaunikatu eta musu eta guzti ematen zion. Orduan, handik ez oso urrun aparkatuta zeukan automobilera joan, barrutik hainbat traste atera eta berriro ere itzuli zen harria zegoen tokira —bi litroko botila bat ur, garbikaria eta pare bat trapu zahar berekin ekarriz—. Lehiatsu ekin zion harria garbitzeari. Harri laua zen, ondo pulitua, eta inskripzio batzuk zeuzkan Lurra izeneko planetako hizkuntza ugarietarikoren batean idatzita. Harria garbitzen bukatu zuenean, traste guztiak bildu, berriro ere automobilera eraman, eta harria zegoen tokira itzuli zen urrats motelean —oraingoan, lore xorta koloretsu bat berekin ekarriz—. Loreak harri puskaren gainean ahal den txukunenik utzita, lehengo marmar berberarekin hasi zen, harriarekin hitz egiten... otoitz egiten arituko balitz bezala. Azkenik, begitik irristatutako malkoari erreparatu gabe, harri serio hartatik alde egin zuen. Eta kotxera igota, motorea abiarazi eta «HILERRIA» zioten letra handiz idatzitako letreroa poliki-poliki atzean utzi zuen. «Harri batekin hizketan ari zen gizonaren istorioa» hori da.

XXIX

Hila zen baina ez zuen ezer ulertzen. Beti sinetsi zuen noizbait aingeruekin ibiliko litzatekeela, zintzoa izanez gero... Ta hantxe zegoen, sagu beldurti eta garrantzigabe bilakaturik. Bazekien hilda zegoela, bere heriotzaren gaineko kontzientzia oso-osoa zeukan-eta —ez zen bat ere ergela, ez horixe!—. *Joder!* hots egin zuen apur bat amorrzita. *Sagutxo bat naiz.* Eta une batez, lakioak eta pozoiak eta katuak etorri zitzaizkion gogora. Eta orduan konturatu zen beldur horiek guztiak ez zirela genetikoak, baizik berak bizitako oroitzapenen zati zirela. Halaxe gertatuko omen zitzaion mundu guztiari, pentsatu zuen. Dena den, lehen bezala, ez zegoen ziurtasun osoa izaterik. Nolabaiteko xarma ere ematen ziona egoera berriari... Tira bada, sagutxo bat zen eta gose zen —horretan ez zegoen alde handirik, *jan egin*

behar beti, motel—. Beraz, inguruan begiratu zuen, jatekorik ikusiko ote zuen... Landa erdian zegoen; hau da, landako sagutxo zen. Basotarra alegia; ez kalekume gizarajo horietakoa. Azkar-azkar mugitzen zen. Baina halako batean, bera baino azkarrago mugitzen zen zerbait sumatu zuen bere inguruan. Eta konturatu orduko, hontz baten hatzaparretan zegoen, kumetxo gosetiz beteriko habiarako bidean, seguru... Garondo aldean kolpe gogorra sentitu zuen ia berehala —mokokada ederra hontzarena—. Eta begiak berriz ere ireki zituen, lurretik arrastaka zebilela ikusi zuen ez-nolanahiko harriduraz. Lurretik sigi-saga zebilen eta gainera bazekien norantz. Janari bila zebilen eta harrapakaria non zegoen eguargiz baino garbiago iragar zezakeen. Mihi luze eta bitan banaturiko bat behin eta berriz ateratzen zuela, haizeak erakarrita behingoan zekien harrapariaren mugimenduak nondik nora zihoazen. Bai, harri baten atzean zegoen ezkutaturik; bestek ere igarria zuen bere presentzia. Ez zeukan ihes egiterik: harrapatu, ito eta jan egingo zuen. Hura guztia gustatzen hasia zitzaien nonbait... Jostagarria zen. Gainera, horrek hilezkortasuna ziurtatzen zion. Ez zen gutxi, ez... Zer izango zen hurrengo bizialdian? Huraxe al zen eternitate? Eta Jainkoa? non zegoen Jainkoa? Baina, zer inporta zion Jainkoak sagu bati, suge bati, erle bati...? Harraparia irenstera zihoala, hegal hotsa entzun zuen eta tximista bezain arin arrano indartsuaren hatzaparrak sentitu zituen bere suge gorputz bigunean barneratzen, urrikigaitz. *Uf, bazkari legerik ez zegok egiterik horrela...* esan zuen berriro hil baino lehen. «Hil ostean, lehenik sagu bigarrenik suge eta hirugarrenik auskalozer bihurtutako gizonaren istorioa» hori da.

XXX

Mozkor-mozkor eginda zebilen New Yorkeko kale erraldoietan zehar. Jendea, mozkortietara ohituta nonbait, apenas egiten zion kasu. Halakoak milaka eta

milaka baitira New York hiritzarreko paisaia gris eta zementuzkoan. Mozkorti bat gehiago zen eta aldi berean mozkorti bakarra, bere existentzia propio, helarazina zuelarik. Emakume lirain, polit eta ondo jantziak beldur edota nazkaturik igarotzen zitzaizkion ondotik; gizon lanpetu eta gorbatadunek, berriz, ikusezina ote zen pentsarazten zioten. Botilari zurrutada ederra eman zion. Sos batzuk oraindik geratzen zitzaizkion, beste botila bat pattar merke erosteko. Berak New York maite zuen; beharbada, alkohola adina. Txikitatik jakin zuen alkohola zeinen gozoa zen... Amaren sabelean zegoela izan zuen horren berri, haren ama —bera bezala— alkoholi-koa izan zelako. Ia ez zuen ezagutu ere egin. New Yorkeko kale erraldoi, gris eta bortitzak hartzen zituen amatzat. Batzuetan, gizona zela ahazturik, kalerik kale zebilen hitz bat behin eta berriz errepikatuz, ezpainetatik zintzilik geratu izan balitzaio bezala: *ama*. Eta orduan, New Yorkeko botila guztiak haren egarria hiltzeko gutxi zirela irizten zion. Behin, neguko goiz izoztu horietariko batean, kartoi batzuen azpian, gorpu bat aurkitu zuten jolasean ari ziren haur batzuek. Haurrek, pena baino, jakingura sentitu zuten hilarekiko. New York hiri erraldoi osoan ez zion inori penarik eman mozkorti zahar-aren heriotzak. Bizitza, batzuetan, halakoa da: hondorik ez daukan bakardade gorria. «New Yorkeko kaleetan bizi zen mozkortiaren istorioa» hori da.

XXXI

Hilerri ondoko zakurrak gauez beti aritzen ziren zaunka. Arrazoia ez zegoen oso garbi, zenbaiten ustez zakurrak gauez zaunka aritzea gauza benetan arrunta izan arren. Baina guri ez zaizkigu gauza arruntak interesatzen; bestela, ez genuke ez idatzi ez irakurriko ezer. Misterioak, gainera, erakartzen gaitu. Morboak alegia. Bestalde, zergatik ez zuen naturaz gaindiko arrazoiren batek egon behar...? Beharbada, zakurrek zazpigarren sentimen antzeko zerbait zuten eta guk sumatzerik ez

daukagun zer-edo-zer sumatzen zuten. Nork jakin... Kontua da hilerri ondoko zakurrak gauzez zaunka aritzen zirela. Eta herriko jendea, ordu txiki horietan, hilerritik urrun egoten saiatzen zen beti. Ba al dakizue gauza bat? Nik ez ditut gogoko horrelako gauzei buruz hitz egitea, oilo-ipurdia jartzen zait-eta. Beraz, inporta ez bazaizue, beste egun batean jarraituko dugu guztionetaz hitz egiten. «Gauzez hilerri ondoan zaunka aritzen ziren zakurren istorioa» hori da.

XXXII

Azken kalkuluak ateratzen amaitu zuenean, gizona pentsakor gelditu zen. Hogeita hamar urte luze igaroak zituen formula hura bilatzen; orain korapiloa askaturik zeukala, ordea, ezin zezakeen esan pozik zegoenik: bere heriotzaren eguna, ordua eta azken uneak asmatzeko formula unibertsala errealitatea zen, mende honetako aurkikuntzarik garrantzitsuenetariko baten egilea zelarik. Hala ere, ez zegoen guztiz pozik. Zera... Bazegoen zerbait... edozein pertsona hilkorren ilusioak hilko zituen zerbait... Orain bazekien, esaterako, noiz hilko zen zehatz-mehatz, zein urtetan, zein egunetan, zein ordutan... Bere azken uneak matematikako formula korapilotsuen bidez irudikatzeko gauza zen. Lehena! Halako asmakizun bat egiten zuen lehen gizakia! Estatuak altxatuko zizkioketen bere omenez! Bere izena testu liburu guztietan agertuko litzateke! Planetako hiririk gorenetsuenetan eta herririk apalenean izango lukete haren berri! Baina ez zegoen pozik, ez. Barrenak esaten zion zeharo tronpaturik zebilela; eta zenbait sekretu igartzea debekaturiko frutatik jatea bezain zoritxarrekoa zela. Bere eskuei begiratu zion; ispiluan bere aurpegiari begiratu zion; gizakion heriotzaren urtea, eguna, ordua eta azken uneak igartzeko balio zuen formulari begiratu zion; irakurri zuen beste behin... Orduan, formula idatzi zueneko koadernoari su eman zion; eta suak poliki-poliki nola suntsitzen zuen begira gelditu zen. Eta jaiki

zenean, egindakoa damu ez zitzaiola ikusi zuen nahiko garbi; damu zitzaion gauza bakarra formula bere buruarekin erabili izana baino ez zen. «Bere heriotzaren eguna eta azken uneak igarri zituen gizonaren istorioa» hori da.

XXXIII

Itsua zen. Beti izan zen itsua. Eguzki argiarekin, koloreekin amesten zuen. Irudikatu ere egiten zituen; edo horretan saiutzen zen, behintzat. Baina, hain da pobrea irudimena, errealitatearekin alderatuta. Berak ikusi nahi zuen, ikusi! Edozer emango zuen, hamar segunduz sikiera ostadarra ikustearen truke. Eta horretan zebilela, bere pentsamendu goibel eta triste haietan murgildurik zegoela, sorgin bat azaldu zitzaion. Bai, benetako sorgin bat. Nork esango zukeen benetazkoak zirenik! Hala da mundua, ustekabez betea. Beno bada, kontua da sorgina proposatu ziola tratu bat egitea: berak bi begi emango zizkion, mundua nolakoa den jakiten utziko zioten bi begi eder. Begi-ninien kolorea hautatzeko aukera eta guzti eman zion. Trukean, berriz, itsuak sorginari bere arima eman beharko zion hil eta gero —sentitzen dut tratuari dagokionez horren originaltasun eskasa erakustea, baina deabruarekin edota bere mandatariekin egindako tratuetan gauza bera eskatzen da beti: arima eta guztiori, badakizue...—. Itsuak ez zuen bi alditan pentsatu beharrik izan. Mundua ikusi nahi zuen, koloreak ezagutu nahi zituen, ostadarra, eguzkiaren dirdira, itsaso urdina, mendi orlegiak, harri grisaskak, burdinaren herdoila... Orduan, sorginak hamar arte kontatzeko esan zion eta orduan begiak irekitzeko. Eta itsuak hala egin zuen. Bat, bi, hiru... Orduan, begiak ireki zituen eta lehenengo aldiz jakin zuen mundua nolakoa zen, eta koloreak zer ziren, eta ispiluak itzultzen zion aurpegia, eta inguruan zeuzkan forma guztien kolorea bere begiekin ikusi zuen... Sorginak beti sorgin, ordea. Zeren ba al dakizue begiak non jarri

zizkion? Bada garondoan! Bai, mundua ikusteko balio zioten begiak garondoan jarri zizkion, ohiko tokiaren ordeiz. Zoraturik egon behar, aizu, sorgin batez fidatzeko... «Sorgin batekin tratua egin ondoren, garondoan bi begi atera zitzaizkion gizon itsuaren istorioa» hori da.

XXXIV

Galduta zegoen: marrazoak gero eta hurbilago zituen bere inguruan, eta gero eta ausartago oldartzen zitzaizkion. Gutxi barru, berataz ez zen puska bakan batzuk baino geratuko. Eta hori ere, zorte piska batekin... Orduan, bere amaren oroitzapena igaro zitzaion burutik, eta haurtzaroko zenbait pasadizo, eta duela bi urte ikusten ez zuen semea, eta honetxan seme-alabak —ia-ia ezagutzen ez zituenak—, eta duela hamabi urte bananduriko andrea, eta bere aita duela urte asko zendua, eta erosi zuen lehen automobila —bigarren eskuko katxarro infame bat—, eta putatan ibilitako lehen gaua, eta benetako amodioz maitatu zuen lehen emakumea, eta bigarrena eta baita hirugarrena ere, eta hainbeste maite zuen auzoko hura, eta hainbeste gorrotatu zuen beste hura, eta txikitan apaizen ikastetxean jasandako tratu txarrak, eta erosi zuen bigarren automobila —ia-ia lehen eskuko automobil diskretu, ia-ia ona—, eta berea izan zuen etxebizitza, eta etxebizitzako balkoia pintatu zuenean, eta garai bateko lagunak, eta beste garai bateko lagunak, eta beste garai batekoak, eta hil zen auzo hartaz —beti damu izan zitzaion haren hiletara joan ez izana—, eta bere osaba guztiez ere oroitu zen, eta txakur hartaz, eta gogora etorri zitzaizkion (zurrunbilo batean bezala) duela hainbat eta hainbat urte gogoratzen ez zituen gauzak, familiarekin pasatako gabonak eta baka-rrik pasatakoak, eta Ingalaterrara joan zenean, eta Parisa joan zenean, eta emakumeak minez eta alferrik desiratzten zituenean, eta amorantea, eta bigarren amorantea, eta... «Marrazoak jan baino lehen, naufragato baten burutik pasa izandako azken oroitzapenen istorioa» hori da.

XXXV

Bizitzan beti izan basapizti hutsa. Auskalo zenbat lagun hurko hilak zituen, zenbat lapurreta eginak, zenbat bortxaketa, zenbat indarkeria... Epailleek heriotza zigorra ematea erabaki zuten, krimenak bata bestea-ren gainean pilaturik zeuzkan gizaki anker harentzat. Korridorerako bidean, hamaika alditan egindako galdera: *Eta orain zer?* Zeruari galdetzea bezala *zergatik*. Galderak... Organoaren oihartzunean itzalitako, erre-tako galderak; askatasunari buruz amesten duen oreina, txakur taldearen hatzaparretan erori baino lehen. Baina gure hiltzailea ez zen inoiz oreina izan, hiltzailea baizik. Hiltzaile arriskutsua. Beharbada, merezi zuen. Jainkoak daki... Kontua da korridorean zegoela, bere azken urratsak egiten, bere azken gogoetak nola edo hala harilkatzen, damutzeko astia ematen ziotenak, barkatzeko arrazoi bat edo beste ere bai, agian... Korridore hartan bazi-rudien denbora geldi zegoela, eta korridorea ez zela inoiz amaituko. Ez, bera ez zen preso bat gehiago. Bere kontzientzian —halakorik bazuen— izugarrikeria gehi-egi pilatzen baitziren... Orduan, korridorea amaitu eta hantxe azaldu zitzaion aulki elektrikoa. Barregura piska bat eman zion, zeren atsedean hartzeko bereziki pentsatu-riko altzari horietarikoa ematen zuen-eta. Eseri egin zen, uhalak jartzen utzi zien ume zintzo batek bezala, eta apaizak bere otoitzak amaitu zituenean begiak itxi zituen. [...] Listo, esan zuen berekiko. Hilda zegoen. Es-kuak mugitzen saiatu zen. Zeren bere existentzia fisi-koaz ohartzeko gai zen oraindik. Baina ezin zuen; ez zuen eskurik, ezta hankarik ere. Egia esan, ez zeukan gorputzik. Ezta sudurrik ere. Edo bai, hori guztia ba-zuen. Baina ez guk bezala. Bere burua, bere gorputza, bere belarriak, bere izakera fisiko guztia ez zen gizaki batena, animalia batena baizik. Animalia bilakaturik baitzegoen; animalia arriskutsu. Kobra bat zen, basa-mortuaren erdian bere amorru guztia txistukatzen zuen

kobra gaizto, arrenkuratsu eta arriskutsu bat zen. Eta nor zen guztiz ahaztu baino lehen, oraindik bere izena gogoratzeko gauza izan zen. «Animalia bilakaturiko gizon gaiztoaren istorioa» hori da.

XXXVI

Gizon hura munduko gizonik zuzenena zen; beste hura, berriz, bidegabeena. Biak ziren sagar beraren bi zatietariko bana. Zuzentasuna, amoraltasuna, bidegabekeria, justizia... Zeinen hutsalak diren hitzak, airean unetxo batzuez gelditzen direnean... Leherketa handi baten ondorioz, beste galaxia bat sortu zen gure unibertsoan. Zientzilariek, aldiz, ez zekiten, ez, beste unibertso batzuk zeudela, gureaz landa. Uste zuten gure unibertsoan galaxiak gutxi gora-behera infinituak zirela; ez zekiten, antza, unibertsoak ere gutxi gora-behera infinituak zirela. Kontua da gure planetaren gainean bi gizon sortu zirela, bata zintzoa eta bestea gaiztoa. Eta, ba al dakizue gauza bat? Biek patu bera izan zutela. Itxuraz, behintzat... Baina ez gaitezen ezkorrak izan; horrek ez baitu esan nahi putaseme hutsak izateak edo ez berdin dionik. Unibertsoak mekanismo berezi bat jarri baitzigu barruan; eta mekanismo hori ikusten ez badugu ere, sentitu egiten dugu. Eta horrekin nahiko ez duenak, bada ez daki unibertsoa zertan den; ez daki unibertsoa infinitua denik; ez daki ezer. *Heriotzak, halere, bai bata bai bestea deuseztatu zituen*. Bai, hori egia da. Eta...? «Ezerezak deuseztu zituen gizon zintzoaren eta gizon gaiztoaren istorioa» hori da.

XXXVII

Orain hilda zegoen... A, nola desiratu zituen bizitzan hainbat eta hainbat plazer!... Eta bizitzak beti nola ukatu zizkion, banan-banan!... Baina azkenik hilda zegoen; eta heriotzan, bizitzak ukatutako plazer guztiak

aurkitu zituen hamaika alditan biderkaturik, areagoturik... Hilda egotea zeinen atsegina zen... Nork esango zuen! Baina, halaxe zen. Jakin izan balu, hogeita hamar urte lehenago hilko zukeen bere burua, alajaina! Noski, nork esan behar zion hil osteko plazer-andana hura bere zain zegoela...? Gauza batzuk irudikaezinak dira, hil arte. Horretan datza sekretu handia; egia esan, sekretu horrentzat bizi gara gu... Zenbat plazer! zenbat sexu! zenbat orgasmo amaitezin! Aaaa, hilda egotea zeinen gozoa den... Hilda egotea inoiz amaitzen ez den orgasmo batetik behera labaintzea da, erortzea da... gelditu gabe... gelditu gabe... Paroxismoa da heriotza; plazer itzela; sexua errealitate bihurtzen denean... Zatoz, irakurle; ez egon zain gehiagoz; denbora iritsi da; haxe zen erlijioa: plazerraren erlijioa, zuzentasunaren erlijioa. Sexuaren garaia heldu da... Tira, ez izan presarik nahi ez baduzu. Gauza bakoitza bere garaian... Bere garaian... «Hil eta gero, sexu plazerrik beteena aurkitu zuen gizon zintzoaren istorioa» hori da.

XXXVIII

Zeinek bere bideak ditu hilezkortasunari helzeko, gutxi gora-beherako arrakastaz izanda ere. Horra nola zenbaitzuek ekin zioten munduan inoiz izan diren artelanik ederrenak sortzeari; horra beste batzuek nola burutu zituzten balentriarik / koldarkeriarik / birtuterik / ankerkeriarik handienak —jakina baita mundu honetan denontzako eta denetarako tokia dagoela—, euren izenabizenak hilezkortasunari lotzeko. Hala ere, esan daiteke egun arte behintzat inork —jainkotasunek izan ezik— ez duela benetako hilezkortasuna erdietsi; edo «benetako» baino, hobe «ageriko» hitza erabiltzea, ageriko hilezkortasuna alegia —hilezkortasun fisikoa ere dei genezakeena—. Aldiz, gutxik dakite ageriko hilezkortasun fisikoa gizon batek lortu zuela, gure garai modderno eta txit teknologiko honetan. Nolatan? Bada modu errazean bezain harrigarrian: telebistari begira.

Bai, ondo aditu duzue. Telebistari begira lortu zuen hilezina izatea. Telebista berezia zen ordea: kanal bakarrekoa. Kanal bakarra zuen. Antza, kanal hartan munduan diren kanal guzti-guztiak zeuden bilduta, batuta, kontzentratuta... Orduz geroztik, gizonak urteak eta urteak iraun du kanal bakarreko telebistari begira, zahartu gabe, gose eta egarri izan gabe, ezer sentitu gabe —itxuraz, behintzat—. Eta denboren amaierara arte berdin-berdin jarraituko du. «Kanal bakarreko telebistari begira hilezkortasuna lortu zuen gizonaren istorioa» hori da.

XXXIX

Afrikako elefante erraldoiak bere tronparekin ukitu zuen lurrean zetzan hezurdura. Berehala jakin zuen bere osaba izandakoaren hezurdura zela, hiru urte lehenago toki hartan hilik erori baitzen ehiztari ezkutuen tiroek jota. Hiru urte ziren handik igarotzen ez zela, inguruak arriskutsutzat hartu baitzituen gertaeraz geroztik. Gainera, elefante talde osoaren erantzukizuna berea zen orain, eta tentuz ibili beharra zegoen... Bai, hezurdura hartan oraindik ere haren osaba izandakoaren usainak atxikita zeuden. Tronpako sudur mintzo fin eta delikatuak medio, behin eta berriro usaintzen zituen hezurak: lepo aldean lehenik, hanka aldean gero, isats inguruan jarraian... Azkenik, buru itzel, eder eta jakintsua altxatu, haize emaile antzeko belarri eskergak zabaldu, eta Afrikako sabana emozioz bete zuen deia jaurki zuen bere biriken indar osoarekin. Gero, poliki-poliki, lasaitu eta bere taldekideekin biltzera joan zen. Gauez, hezurdura eta hiena baten edo besteren itzala baino ez zen toki hartan nabarmentzen, itzalen bat ihes... «Bere osaba izandakoaren hezurduraren aurrean gelditutako elefantearen istorioa» hori da.

XL

Zuhaitzaren berbaldiak zurrumurru antzeko zerbait eragiten zuen bere inguruan. Hasieran, batek pentsa zezakeen hostailaren mugimendua baino ez zela, haize arinak sehaskatuta. Baina ez; ez zen hostaila ez haizea ez izadian beti egoten den abarrotsa; benetako ahotsa baizik. Zuhaitzak hitz egiten baitzuen. Zaila da esatea «nondik» hitz egiten zuen: enbor aldetik, hosto bakoitzetik, lur azpiko erroetatik edota hatzapar luzeak bezalakoak zituen adar hosto orlegiz estalietatik. Pixka bat ozena zen haren ahotsa, eztarriko hots gangartsua bailitzan, halako aire misterios batekin... Eta tontakeria irudiko zaizue, baina inguruko harriek, belar izpiek, erreka urek... entzuten ziotela zirudien. Zuhaitzaren hitz-jarioa etengabea zen, nik hitz solteak besterik atzematen ez banizkion ere: «mineralak», «beta», «sua», «kareharria», «ura», «burdina», «airea», «unibertsoa», «sorrera», «erabateko geldotasuna», «atomoa», «mugimendua», «mugagabea», «ñimiñotasuna»... Zoritzarrez, zorabioak eragiten zizkidan azkartasunez hitz egiten zuen, eta esan bezala, hitz solteak besterik ez nion ulertzen. «Hitz egiten zuen zuhaitzaren istorioa» hori da.

XLI

Aizkora hura sorgindurik zegoen; halako indar jarkiezin eta menderagaitz bat zerion. Eta ankerra eta gaiztoa zen, dudarik gabe. Burdina zorroztu berriak dirdira egiten zuen harrotasunez, eta bere jabe izandako azkenak halako indar batez hornitzen zuen... Izan ere, jabe asko edukitako aizkora zen; horietatik jasoak zituen indarra eta ausardia. Baita adimena ere. Zeren aizkoa adimentsua baitzen. Aldiz, zeukan adimena gaizki bideraturik zegoen, asmo okerreko tresna bilakatzeraino. Auskalo zenbat jabe hilak zituen, aizkoraren madarika-zioa horixe zen-eta: bere jabeak hil egiten zituen, eta baita ere zati-zati eginda utzi. Jendeak bazekien sorgin-keriaren berri. Baina hantxe, enbor batean iltzaturik

aurkitzen zutenean, horren baketsu eta distirante, ez dakit nola esan baina kontua da lehenago edo beranduago norbaitek aizkorari kirtenetik heldu eta ez zuela gehiago askatuko, harik eta goiz batean, edozein tokitan, zati-zati eginda agertzen zen arte. Aizkora, berriz, inguruko basoetako edozein zuhaitzaren enborrean iltzaturik agertuko zen handik gutxira, distiratsu, garbi-garbi, odol arrastorik txikiena gabe, zain... «Bere jabeak zati-zati eginda uzten zituen aizkora sorginduaren istorioa» hori da.

XLII

Kopa jaso eta ezpainetara hurbildu zuenean, bazekien azkeneko aldia izango zela, ez zuela beste koparik ezpainetara eramango. Hilabeteak ziren minbi-ziak barrutik jaten zuela (hil-zoriko hilabeteak, behin-gez amaitzeko irrika areagotu ziotenak). Atzean gertatzen ziren kimioterapia-saio gogorrek, hasierako uneetako txundidura, ondorengo uneetako itxaropena... Atzean bizitza oso bat gelditzen zen, berak bakarrik ulertzen zuen —edo ulertzen ez zuen— bizitza bat, armiarmasare erraldoia osatzen zuen oroitzapen mamu andana. Atzean malkoak, pertsona maiteen garratzasuna, banitatea, frustrazioak, arrakastak eta eginak zeuzkan plan politak. Laster, ospitalera igoko zuten, non amaituko zituen bere azken egunak. Beraz, koparen ertzari begiratu zion, eta baita barruan oraindik punpui-laka ari zen txanpainari ere, eta ezpainekin ertza ukitu eta begiak itxi zituen, eta aurrean zeukan ispiluan islaturiko bere irudiari kopa jasoz, mutu, hitzik esan gabe, irri oker bat zuela, topa egin zuen, akaso bere eternitatearen alde... «Kopa azkeneko aldiz hustu zuten ezpainen istorioa» hori da.

XLIII

Ezin zezakeen ziurtasun osoz baietsi, baina koadroan zerbait aldatu zegoela zin egingo zukeen. Erosi berria zuen eta horregatik ez zekien zinez aldatu zegoen ala ez. Dena den, handik aurrera koadroari kontu egitea erabaki zuen, badaezpada ere... Paisaje bat zen: lursailak, nekazariak, eguzkia, hodeiak, txakur bat... Ez zen beste munduko ezer, hots, ez zen artelan handi horietariko bat. Artelana sikiera ere ez zen; baizik, aspaldian hila zen izeba batek oparitutako koadro apal bat. Berak ordea izeba hura maite izan zuen eta beraz baita koadroa ere. Bai, orain ez zeukan dudarik: koadroa aldatu egiten zen. Esaterako, lehen ondo ikusten zen eguzkia hodei artean erdi ezkutaturik agertzen zen orain; eta hurrengoan, jada ez zegoen. Edota nekazariak, lehen hiru zirenak, bi gizon eta emakume bat, eta handik ordu batzuetara bi emakumeak bakarrik agertzen zirelarik, eta hurrengo egunean gizona berriro, baina bestelako gizon bat, ez lehengo egunekoa. Eta halako mila adibide jar zitezkeen, aldaketak amaiezinak baitziren. Aldaketak zerk eragiten zituen ez bazekien ere, bazekien ordea zera: koadroari begiratzen zion bakoitzean, aldaketa bat edo beste kausituko zuela. «Begirada bakoitzean aldatzen zen koadroaren istorioa» hori da.

XLIV

Jendea erromesaldian joaten zen leku hartara. Eta bertan belaunikaturik, bizkarrezurra makurtu eta belarria lurrari atxikita gelditzen ziren; edo hobeto esan, lurrean arakatutako zulo txo batean jartzen zuten belarria. Gero, neurtzen zaila den denbora tarte batez hantxe gelditzen ziren, entzuten bezala. Zeren egiatan, entzun egiten zuten! Zuloak hitz egiten ziela esaten zuten denek (lurrean egindako zulo bat besterik ez bazen ere, zulo txiki bat...). Ea zer gauza kontatzen zizkion jendeari? Beno bada, hasteko, esan behar da pertsona bakoitzari gauza desberdin bat kontatzen ziola, inoiz ez gauza bera bi pertsonari —baina inork ez lizuke esango zer konta-

tzen zien—. Gauza sekretuak ziren, inoiz errepikatzen ez ziren errebelazioak, denak lotuta kosmosaren sorrerari eta garapenari, bakoitzak bere sekretua hilobiraino eramango bazuen ere. Mende luzeetan zuloak bertan jarraitu zuen, lurrean, erromesen bisitaldiak noizero-noizero hartzen, harik eta bisitaldiak bakantzen joan ziren arte. Horrela, ehunka urte, beharbada milaka urte igaro ziren, eta lurreko zuloa legenda, mito bihurtu zen, harik eta denboraren zurrumbiloan haren kokapen geografiko zehatza galdu zen arte. Gero, legenda bera, mito bera galdu zen... «Lurrean arakatutako zuloaren istorioa» hori da.

XLV

Semeari sorpresa eman nahi zion. Beraz, gozoki dendan sartu eta apalategietan begiratzen hasi zen: txikleak, txokolatinak, mota guztietako karameluak, txupatxupak, gominola mota andana bat, erregaliz beltz eta gorria, donutak, patata frijituak, "kroki-txipak", pipitak, arto erreak, kakahueteak... Uf, denetik zegoen han. Hainbeste gauzaren artetik ez zuen erraza erabakitzea, ez horixe... Halako batean, apur bat bereiz jarrita zegoen apal batean, «globo erraldoiak» txarteltxoa irakurri zuen. Ederki! Globo erraldoi mota ugari zeuden gainera, tamaina-klase askotakoak ere bai. Baina berak «handiena» txarteltxoa zeukana aukeratu zuen. Eta behin etxera helduz gero, semea eskolatik artean itzuli gabe zegoenez, globoa puzten hasi zen. Jainko maitea, sekulako globoa zen! Ez zuen inoiz horrelakorik ikusi. Biri-kak lehertuko zitzaizkiola iruditzen zitzaion. Beraz, aurrera jarraitu zuen, globoa puztu eta puztu, etengabe, arnasestuka, ia-ia itorik. *Ai!* hots egin zuen halako batean. Ez galdetu nola jazo zen, neronek ere ez baitakit —ezta gure gizon gizajoak ere—, baina kontua da globo barrura erori zela! Hala da, bat-batean globo barrura erorita zegoela ikusi zuen izu-laborri handiz. Orduan, une hartan semea eskolatik itzuli eta kaleko atea ireki-

tzean, sekulako aire korrontea sortu eta globoa leihotik kanpora atera zen hegan, gizon doakabea berekin eramanez. Eta ez zuten sekula haren berririk izan. «Globo barruan harrapatuturiko gizasemearen istorioa» hori da.

XLVI

A, orain bai, zeinen atsegina zen telebista ikustea! Izorratuta zegoen-eta. Bai, ondo aditu duzue. Telebista ez zebilen, izorratuta zegoelako. Baina hori ez da bitxiena; bitxiena da zera: gizonak holaxe erosi zuela, izorratuta alegia. Saltzaileak hasieran ez zion ongi ulertu, hainbat alditan galdetu behar izan zion. Baina ez zegoen dudarik, gizon hark ez zebilen telebista erosi nahi zuen. Marka onekoa gainera, pantaila lau-lauarekin! Eta kanal frantsesa eta guztiarekin. Eta kanal plus eta kanal minus guztiekin. Bera kategoriakoa zen gero! Hala ere, kopetaraino zegoen telebistako programa guztiez. Programarik onenak txarrak iruditzen zitzaizkion-eta. Ohituraz eginak gara gu, gizakiok. Eta hainbeste urtetan telebista ikusten igaro ondoren, gure gizonak telebistaren presentzia *fisikoa* behar zuen. Beraz, hantxe jarri zuen aparailu mirezgarria, bere pantaila beltz eta grisa uneoro aurrean izateko. Telebista pizteko tekla sakatu ondoren, sofan esertzen zen eroso-eroso. Batzuetan, urrutiko aginteko teklak ere sakatzen zituen, kanalak aldatzen arituko balitz bezala —garai batean ziping-zale amorratua izan baitzen—. Haren begitartea ikusita, baten batek pentsatuko zuen telebista *benetan* ikusten ez ote zuen... «Ez zebilen telebista nahita erosi zuen gizonaren istorioa» hori da.

XLVII

Kalean Herioa topatu zuenean, ez zen harritu, baina bai zertxobait urduritu —Herioa topatzen zuen bakoitzean beti gertatzen zitzaion legez—. Pertsona

bakoitzak bere Herio propioa du-eta. Esan nahi dut Herioa aurpegiz eta fisikoz —edota sexuz— guztiz aldatzen dela, segun-eta noren Herioa den. Orokorrean, guk ezagutzen dugun pertsonaren heriotza hurbil dagoenean, orduan pertsona horri dagokion Herioa topatzen hasten gara gure herriko kaleetan. Eta guk ezagutzen dugun pertsona hiltzen denean, orduan ez dugu pertsona horri zegokion Herioa gehiago kausituko kalean. Norbaiten Herioa kalean topatzeko, lehenengo eta behin, Herio hori —baina Herio guztiak bat-bera dira— dagokion pertsonak guretzat garrantzitsua izan behar du (oso maitatua izan behar duela esan nahi dut). Bestela, ezinezkoa da horren Herioa ikustea. Baliteke, hala ere, kalean gurekin gurutzatzen diren pertsona asko egiatan beste pertsona batzuen Herioak izatea —hori ez dugu inoiz jakingo—; baina *gureak*, guk Heriotzat ezagutzen duguna —edo ditugunak— horiek soil-soilik ezagutuko d(it)ugu zinez maite dugun norbaiten Herioa denean. Itxuraz konplikatu dirudi, baina kontua zinez simplea da — existentzia bezala—. Herio hauek berehala ezagutzen dira, darien *berezitasunagatik*. Zaila da adieraztea, jitez konturatzen zara gehien-bat. Dena dela, denek dute ezaugarri komun bat: zorotasuna agerian jartzen duen detailetxoren bat atzematen zaie begitardean; baita ibilerari berari ere. Gero, bihotzak esaten dizu behingoan kalean sarri topatzen duzun hori, maite duzun norbaiten Herioa dela, eta beraz, maite duzun pertsona laster hilko dela —zeren horixe baita norbaiten Herioa aurkitzeak daukan esangura: heriotza hurbilaren igarpen modura balio izatea—. «Bihotzez maite dugun norbaiten heriotza hurbil dagoenean, pertsona horri dagokion Herioak giza itxura hartu eta kalean sarri topatzen dugun Herioaren istorioa» hori da.

XLVIII

Herria sortu zenetik milaka urte igarota zeuden. Herri txiki bat, antza, inguruan ez baitzegoen zibiliza-

zio handi baten aztarnarik. Seguraski, lehenbiziko nekazari herri horietariko bat: hamabi txabola gutxi gorabehera, harresi batez inguratuta, eta ezer gehiagorik ez. Noizean behin, trepeta bat edo beste agertzen zen: behin ur freskoa garraiatzeko balio izandako buztinazko anfora, lurra lantzeko zurez eta harriz gehien-bat egindako tresneria traketsa, arma primitiboak... Herri txiki bat zen, unibertsoaren amaigabetasunaren erdian nola edo hala oraindik ere bizirik zegoena, zeren behinolako biztanleek denborari aurre egindako txabola haietan bizi izaten jarraitzen baitzuten. Zientzia gizonek inor ikusten ez bazuten ere, beraiek hantxe zeuden, euren txaboletan, euren lurak lantzen, euren tresnak egiten. Eta esan behar da beraiek ere ez zituztela zientzia gizonak ikusten, izan ere ez zuten ezohiko ezer ikusten. Jarraitzen zuten, besterik gabe, denborak irekitako leiho infinitu hartan, euren primitibismo guztiarekin, historiaz harantzago, Lurrean izan diren guztiekin gertatu bezala, benetan aldatzen dena gizakiak eta historia ez baizik historiari eta gizakiei buruz daukagun ikuspegia baino ez da eta. Beste modu batez begiratzen ikasi behar dugula esan nahi dut. Den-dena gure aurrean dago, duela milaka urte gertatzen zen bezala gertatzen jarraitzen du gure aurrean. Bestelako begiekin begiratzen ikasi besterik ez dugu egin behar. «Milaka urte zituen herri zaharraren hondakinen istorioa» hori da.

XLIX

Lur gainean etzanda zegoen, bere amak munda ekarri zuen bezala. Marroi koloreko lur gainean, bere marroi koloreko larru azalak distira egiten zuen. Eta hanka artean, pubis aldean, triangelu magikoak bidea erakusten zuen, izadiak hantxe eraiki baitzuen bere etxea. Hurbileko basotik hostailaren zurrumurrua heltzen zen. Baina berak, neska gazte eta zoragarriak, mutagaitz zirauen. Basoa ere neskaren zelatan zegoela zirudien. Oi, zeinen ederra zen! Begiak irekitzen zitue-

nean, izadiaren oihartzuna entzuten zen. Eta lohizko bidean gora ibiltzen hasi zenean, bular zabal eta biguna aldiro-aldiro mugitu eta zabukatzen zitzaion ezkereskuin, gora eta behera... unibertsoaren harmoniarekin lehian arituko balitz bezala. Gero, zuhaitz baten azpitik igaro zenean, lurretik oso altu ez zegoen adar mehe baina indartsuari heldu eta zintzilik gelditu zen, oinak lurretik zentimetro batzuetara, ingrabitateak sortzen zion gorputz tentsioaz gozaturik, orgasmoaz harantzago, izadi huts, errepikaezin. Bazuen izen bat: Naomi Campbell. «Naomi Campbell delako neskatoaren istorioa» hori da.

L

Erlojuko orratzak geldirik zeuden beti, segundoen orratzak bere betiko mugimenduekin aurrera jarraitzen bazuen ere. Belarria erlojura hurbilduz gero, tik-tak harmoniotsua ere entzun zitekeen. Baina beste bi orratzak, luzea eta laburra, orduena eta minutuena, bi horiek geldi zeuden beti. Eta beraz, erlojuak ordu bera zerakutsan uneoro. Denbora, hala ere, ez zegoen geldi; aitzitik, aurrera zihoan nekagaitz. Zaila zen denbora geldiaren ikuspenak eragiten zuen sentsazioa deskribatzea. Bazen, ordea, historiaren bilakaera kanpotik ikustea bezala. Edota bizi izan ostean, gauzak leihoaz bestaldetik ikustea egokitu izan balitzaigu bezala. Denbora geldi hark ia den-dena harrapatzen zuen: gure begirada, gure inguruko gertaera handiak zein txikiak, gure bihotz taupak, maite eta gorroto genituen ekintzak... Erlojuak bere gelditasun alfer hartatik halako botere bat zabaltzen zuen, ezen, gu denok sentsazio lodi eta absurdu batean biltzen gintuen. Gogoan dut behin erloju denda batera eramán nuela, konpontzera. Baina erloju egileak erlojuak ikusi bezain laster, buruaz ezezko mugimendu etsitu bat egin eta itzuli egin zidan, hitzik gabe eta segituan gortina baten atzean ezkutaturik zeukan tailerrera itzuli zen. Hiriko erloju denda ia guztietan aproba egin ondoren,

azkenean amore eman behar izan nuen, eta onartu nire erlojuari ez zitzaiola ezertxo ere gertatzen, ibili primeran zebilela, gertatzen zitzaion gauza bakarra zen bada hori, beti ordu bera erakusten zuela. Baina ez zen nire erlojuaren errua horrela eginga egotea —bere asmatzailak nahita asmatu baitzuen zeregin horixe bete zezan—. «Ordu bera beti zerakutsan erlojuaren istorioa» hori da.

LI

1870eko abuztuaren 7ko albisteak behin eta berriro erripikatzen ziren *Denon Ahotsa* egunkari ospetsuan, egunkariko goi-buruan datak ongi azaltzen baziren ere. Hasi lehenengo orrialdetik eta azkeneko orrialdean bukatu arte, den-dena agertzen zen modu berean: leku urrunen batean piztutako gerra, toki hurbilen batean izandako ezbeharra, eskelak, iragarkiak, erratak... Den-dena. Hala ere, jendeak egunero erosten zuen *Denon Ahotsa* egunkaria, 1870eko abuztuaren 7an bildutako albisteak benetan *gogoangarriak* izango balira bezala. Irakurleak zinez pozten ziren betiko albisteak irakurtzeaz. Iragana eta geroa nolabait orainaldi bihurturik zegoen. Errepikapen lineal eta eliptiko hartan, hilezintasuna ez zen amets baten ondorioa, errealitate gordina baizik. Egunkaria hain arrakastatsua izan zen, ezen, hura hizkuntza guztietara itzultzen hasi ziren. Eta handik gutxira, albiste haiek, eskela haiek, errata haiek... baino ez zituzten irakurtzen herrialde guztietako egunkarietan. Ez zen globalizazioa, eternalizazioa baizik. Bai, eternitatea izan zen azkenik irakurleek aurkitu zutena: ez zuten gerra zaharrekin amaitzea lortu, baina behintzat gerra berririk ere ez zen aurrerantzean piztu; ez zuten heriotza guztiz eragotzi, baina behintzat egunkariko eskeletan beti errepikaturik agertzen zirenak baino ez ziren hiltzen; e.a. e.a. Hura eternitatea ez bazen... Ea zergatik 1870eko abuztuaren 7ko albisteak, eta ez, esaterako, 1910eko otsaileko 13koak? Beno, bada asmakizuna noizbait martxan jarri behar zutelako,

ezta? Edozein urtetako edozein hilabetetako edozein egunetako albisteak baino ez ziren, hortaz. «1870eko abuztuaren 7ko albisteak egunero-egunero errepikatzen zituen egunkariaren istorioa» hori da.

LII

Orgasmo hartara igota hain gozo zegoen... Zer-tarako jaitsi bada? Gainera, berak bazekien handik jaitzita zer zegoen: lana, izerdia, asperdura, milaka urtetako beldurra, desesperoa... Ez, ez zen inoiz orgasmo hartatik jaitziko. Hori heriotza bazen, orduan berak hilik egon nahi zuen eternitate osorako. Baina ez zegoen hilda, ez horixe; orgasmo batetik jaisterik ez zeukan, eta besterik ez. Noiz arte...? O, noiz arte dirau espazioan zehar zabaltzen den oihuak? ez al da zabaltzen infinituraino, espazio amaigabea bezala? Eta etenik gabe, amaierarik gabe zabaltzen den hotsa... zer bilakatzen da? zer bilakatzen da amaierarik ezagutzen ez duen bide horren amaierara iristen denean —egiatan, inoiz hartara iristen ez bada ere—?. Orgasmo hartan den-dena zeukan kontrolpean, bere desira, bere haragizko irrikak... Gorputza, berokia bezala, soberan zeukan. Indar magiko batek zeharkaturik zegoen, gaztaroko kartzelatik inoiz ez ateratzeko modua aurkitu izan balu bezala. Egun batzuk barru bere gorputza hilda aurkituko zuten seguraski; ordea berak bazekien hilda zegoela, paradisua existitzen zela. Eta orain, plazerrezko olatu hartatik ekin behar zion unibertsoa ulertzeari, interpretatzeari, kausitzeari, moldatzeari, gozatzeari... «Orgasmotik jaisterik izan ez zuen gizonaren istorioa» hori da.

LIII

Arranopola! hots egin zuen. Zoritxarrez, beranduegi zen: oroitzapena leihotik hegan atera eta ez zuen sekula harrapatuko berriro. Oroitzapen batzuk halako-

xeak dira, izan ere... iheskorrak. Gizona, aldiz, betiko aldentzen zihoan oroitzapenari begira gelditu zen ageriko penaz, eskapatzen den oroitzapena ez baita inoiz itzultzen. Egia esan, pertsona baten existentzia horrelako gertaeraz josita dago, eta ezin dugu ezer egin oroitzapen iheskorren patua saihesteko, gizakion patua horixe delako: oroitzapen guztiak galtzea. Dena den, aitor dezagun munduko nostalgiarik handiena sentitzen dugula oroitzapen bat eskapatzen zaigun bakoitzean. Eta ez pentsa bakan gertatzen den jazoera denik; aitzitik, sarritan gertatzen da (sarri gertatzeagatik nostalgia bat ere arintzen ez den arren, frogatuz, ezen, egunerokotasunak ez duela batzuek uste duten adina indar). Matematikariek ateratako kalkuluaren arabera, gure oroitzapen guztien %98 baino gehiago eskapatzen zaigu, %2 bakarrik gogoratzen dugularik. Aditu batzuen ustez, hirurogei oroitzapen jasotzen ditugu, gutxienez, orduko. Infinituzaleek, aldiz, guztiz ukatzen dute kopuru hori, esanez, zentesimak eta dezimak ere *zenbatu* beharko genituzkeela, eta hori —jakina denez— hondartzako hondar aleak bezain ezinezkoa izango litzateke, zeren bai oroitzapenak bai hondar aleak etengabe sortzen ari baitira (ezerezatik akaso...?). Tira, ez gaitezen transzendentak jar, munduak ez du horrenbeste merezi eta. «Leihotik ihes egindako oroitzapenaren istorioa» hori da.

LIV

Beti egon zen une horren zain, une horren bel-durrez... Hiltzen ari zen, eta kinka larri hartatik ateratzeko itxaropenak orok desagertuak ziren, olatu erraldoi batek irentsita bezala. Bide bat egon behar zen, hala ere, handik ihes egiteko; berak bazekien bide bat zegoela. Baina non? non? Han, ohean, hausnartzeko denbora asko bazeukan ere, denbora bera —bere denbora— agortzen ari zitzaion. Ohean hogeita lau orduz egoten den gaixoak badaki zenbat gauza igaro daitezkeen baten burutik, zenbat toki desberdin —eta urrunak— bisita

daitezkeen ohantzetik atera gabe. Orduan, argitasun une batean, gaixoaren begiek dirdir egin zuten. Eta jarraian, gogoeta luzeetan murgildu zen, eta ez zen gogoeta horietatik gehiago itzuli. Bai, lorturik zeukan: denbora geldiaraztea lorturik zeukan. Jada ez zen inoiz hilko, menderen mendetan denbora hartan jarraituko zuen, bizirik... Tamalez, gauzatxo bat pasatu zitzaion oharkabean, zera: hil zorian denbora geldiaraztea lortu zuenez, hilzoria bera ere infinituraino luza zezakeen nahigabe. Eta hala gertatu zitzaion: Mina, ahulezia, gaixoaren frustrazioa, elbarritasuna... Hori guztia bere amaigabetasunari atxikita eramango zuen handik aurrera, sekula amaitzen ez diren denboren bukaerara arte. Uf... «Bere hilzoria infinituraino luzatzea lortu zuen gizonaren istorioa» hori da.

LV

Beti gorrotatu zituen beltz arrazako gizakiak. Horregatik, gizaki beltz horietako baten gorputzean harrapatu egoteak, amorrua baino (nork senti dezake gorrotorik funtsean bere buruarekiko?), txundidura eragiten zion. Beraz, jainkoen zigorrak tankera horretakoak ziren, ezta? Ikusiko duzueenez, jainkoek zigortzeko zera-biltzaten moduak infinituak eta zein baino zein harrigarriagoak ziren. Azken batean, zigor eredugarriak ziren. Ez zuten *bekatariaren* suntsipena bilatzen, erredentzioa baizik. Suntsitzea errazegia baita, eta gainera, denek dakite jainkoei sortzea bereziki gustatzen zaiela, eta ez suntsitzea. Esaterako, hantxe zeuden hiltzaileak, milaka alditan biktima izatera zigortuak; eta bortxatzaileak, emakume bihurtuak eta ehun alditan bortxatuak beste bizitza batzuetan; edota errukirik gabeko aberats zekenak, Indiako gizakirik txiroenak bilakaturik orain; eta jakina, arrazista porrokatua izandakoek ere euren zigorrari eutsi behar zioten, beltz arrazako gizaseme bihurtuak, mota guztietako bidegabekeriak eta erdeinuak jasaten zituztela. Zorionez, jainkoen hira ez zen betikoa.

Hala bada, zigorrak ehunka edota milaka urtetan iraun arren, bekatariari zigorra noizbait jaso eta aske uzten zuten. «Gizaseme beltz bihurturiko gizon arrazistaren istorioa» hori da.

LVI

Hamasei urte zituela hasi zen langintza hartan. Aitak erakutsi zion lanbidea; eta aitari aitonak, eta aitonari... Izen-abizenak eta ohiko beste inskripzio batzuk lantzen zituen hilobietako hilarrietan, izenik gabeko hilarriak izan ez zitezen, hain zuzen. Ordurako zahartuta zegoen. Eta jainkoa lagun, laster erretiroa hartuko zuen. Edo, behintzat, hala uste zuen berak, noizbait erretiroa hartuko zuela alegia. Bai zera! Lagunen enkargu txikiak, semeari eman beharreko lekzioak, ustekabeko konpromisoak... Erretiroa hartuta ere, ezin lanbidea guttiz baztertu. Liburuak idazten dituztenei bezala gertatzen zitzaion berari ere: *Hau duk azkena; ez diat beste ezer idatziko*. Lehenago edo beranduago, ordea, idazteko tirriari ezin aurre egin. Hilarriak lantzen zituen gizonari ere gauza bera gertatzen zitzaion. Tira ba, kontua da egun batean gure hilarri egilea hil egin zela. Eta mundu guztiaren harridurarako, haren hilarriak ez zekarren izen-abizenik, ezta inongo inskripziorik ere, ez datarik ez laubururik. Ezer ez. Izen-abizenik gabeko hilarri bakarra zen kanposatu osoan, berak espreski halaxe eskatu baitzien bere familiakoei. Eta hildakoaren azken borondatea izanik... «Izen-abizenik gabeko hilarriaren istorioa» hori da.

LVII

Greziar atleta ederra duela ehunka urte hasi zen hareazko fosoaren gainetik jauzten, eta artean ere jauzia amaitu gabe zeukan, airean jarraitzen zuen-eta. Ez, ez zuen milaka edota milioiko kilometroko jauzirik egin.

Egia esan, fosoaz bestaldera artean iritsi gabe zegoen. Gainera, jauzia noizbait amaituko balu ere, ez litzateke oso urrun helduko, fosoak hamabot metro luze besterik ez baitzitu —edonola ere, inork ez dauka milaka edota milioika kilometroko jauzia egiteko ahalmenik, nik dakidala, behintzat, ezta atleta grekoek ere—. Jauzi aurretik ahalik eta gehien kontzentratu zen jauzian, kontua ez baitzen ahalik eta metrorik gehien jauzte; baizik jauzte, jauzte, hegan egitea ia, airez jarraitzea, ez bukatzea inoiz jauzia, fosoaz bestaldera ez iristea sekula, fosoko harean ez erortzea egundaino, airez beti, beti airean... Greziako Olinpiada hartako zuzia aspaldian itzali bazen ere, zuziaren dirdirak oraindik bizirik dirau. «Betiereko jauzia egin zuen atleta grekoaren istorioa» hori da.

LVIII

Arkitekto hark beti proiektatzen zituen bere eraikinak akats *txiki* batekin. Akatsa zela eta, eraikinak ehun urte edo ehun egun edo ehun ordu iraun zezakeen zutik. Hori ez zekien inork —beharbada, ezta arkitektoak berak ere—. Aldiz, milioiak eta milioiak ordaintzen zituen jendeak eraikin haietariko batean bizi izateko. Gertaera sozial bihurturik zegoen, eta herriko agintariak eta jende burutsuak, intelektualak barne, guztiz harrিতa zeuzkan (sekretuki eurek ere grina berbera erdibanatzen bazuten ere). Akatsa eraikineko edozein tokitan egon zitekeen: azpiegituran, habe nagusi batean, garrantzirik gabeko horma batean... Edonon. Halaber, ondorioak mota guztietakoak izan zitezkeen: eraikuntza osoa bat-batean lurrera erortzea, etxeko hormaren bat jaustea, zorua ustekabean zulatzea, gas hodiak butxatu eta leherketa gertatzea, balkoia kalera erortzea... Ez pentsa arkitekto kazkarra edota kriminala zenik; aitzitik, arkitekto hura onenatarikoa zen. Eta eraikin bakoitzean egiten zuen akatsa benetako artelantzat jotzen zuten adituek. Maisutasuna behar zen horrelako akatsak asma-

tzeko; goi arkitektura, aparteko adimen eta asmamena behar ziren. Kontua da jendeak arkitekto hura maite eta miretsi egiten zuela, berak egindako eraikinetariko batean bizi izateak areagotzen omen zizkielako, oro har, bizitzarekiko grina eta gogoia. «Eraikinak akats txiki batekin egiten zituen arkitektoaren istorioa» hori da.

LIX

Aurpegian jazteko mozorroa edozein tokitan ager zitekeen: basamortuan, Afrikako sabanan, Mongoliako estepan, Italiako Apeninoetan, Frantziako Midi-n, Arabako Lautadan, Nafarroako Bardenetan edota Amazoniako oihanean. Edozein tokitan, baita zure hiriko auzorik arruntenean edota zure herriko sororik ahaztue-
nean ere. Mozorroa sorgindurik zegoen, denboretako gauean galtzen zen aztikeria zela medio. Hartaz ailegatuak ziren deskribapenengatik, batzuen ustez etruskoen garaietakoa izan zitekeen; beste batzuek, ordea, amerindioen kulturarekin erlazionatzen zuten; eta beste zenbaitzuen iritziz... Tira, zenbat buru hainbat aburu. Ezta? Kontua zen mozorroa jantzitako inork ez zituela begiak kontserbatu. Hortik mozorroaz deskribapenak baino ez izatea. Zeren hura ikusten zuenak aurpegian jazteko irrikari ezin baitzion eutsi; eta hala egin ostean, mozorroak estraineko jabeari ematen zion iragan osoaren berri, munduari buruzko historia zehatz-mehatz kontatzen zion alegia, hasieratik une hartara arte —zenbaitzuek benetako amaiera beretzat gordetzen zuela uste bazuten ere—. Mozorroak eta jakituria hartaz jantzita egoteak, ordea, bazuten halako eragozpen bat: munduari buruzko historia kondatzen bukatu bezain laster, mozorroak bi begiak zulatzen zizkion bere jabeari. Orduan, minaren minez mozorroa erantzi, betiko itsu gelditu eta sochk-aren eraginez mozorroak kondatutako ia guztia ezabatzen zitzaion oroimenetik —historia osoa ezagutu izanaren sentsazioa baino ez zitzaion girajoari gelditzen—. Mozorroari dagokion bezainbatean,

aztarnarik utzi gabe desagertzen zen, munduko edozein tokitan ostera ere azaltzen zen arte. «Iragan osoaren berri ematen zuen mozorroaren istorioa» hori da.

LX

Hogeita lau ordu edo hogeita lau urte, berdin dio. Otik 4ra doan tartea espazioan zehar luzatu eta luzatu egiten da, unibertsozko zoko-moko guztietan miaztea gauza gustagarria baita. Aldiz, zer irudituko litzazueke hogeita lau ordutan jaio, hazi, gizondu, zahartu eta hil zen gizaseme baten berri emango banizue? Izan ere, hogeita lau ordu... hainbeste denbora da. Munduko gozamenik edota atsekaberik handiena jasateko denbora nahikoa bai, behintzat. Egiatan, denbora magikoa da, berau eratzen duen zenbakiagatik, noski. Esaidazue, esaidazue zenbat gauza egin daitezkeen hogeita lau ordutan: gizaki bat sortu, gizaki bat hil, zeruari begiratu, zapatetako lokarriak lotu!... Denbora nonbait hazkura eragiten digun espazio bilakaturiko tartea da, eta gu horren ogitartekoak bagina bezala, erdian beti... «Hogeita lau ordutan jaio, hazi, gizondu, zahartu eta hil zen gizasemearen istorioa» hori da.

LXI

Gizakia, zaldia eta meteorittoa: horietxek ziren izaki bizidun hark ezagutzen zituen hiru patuak. Hiru patu zinez desberdinak, baina bere-bereak hirurak. Ezin izango liezazuke esan zein gustatzen zitzaion gehien. Bata beste biak baino gehiago gustatzeko aukera bera planteatzea gaizki abiatutako jarrera izan baliteke ere. Dena dela, hiru patu ziren, bizitzako lokarrien antzekoak. Meteorittoa zenean, espazioa zeharkatzen zuen inoiz agortzen ez zitzaion jakinguraz; zaldia zenean, belardia lauoinka zeharkatzen zuen lasterrak sortzen zuen oihartzunak horditurik; eta gizakia zenean, izadiko

azken-azkena izateak eragiten zion hunkipena ez zeukan zerekin alderatu. Hiru patu, batzuetan banaka eta beste batzuetan batera bizi zituenak —gauzak ez baitira modu lineal batean gertatzen beti—. Hortaz, hiru patuak batera bizi zituenean, itsasoko olatuaren pareko edota erreka ur arinen antzeko sentitzen zen. Eta orduan, meteoritoa zen aldetik lurra kolpatzen zuen gupidagabe; eta zaldia zen aldetik izua eragiten zuen moduan begiratzen zuen; eta gizakia zen aldetik heriotzari buruz pentsatzen zuen. «Hiru patu desberdin izan zituen gizonaren istorioa» hori da.

LXII

Begiratzen zenionean, bihotza kizkurtzen zizun zerbait atzematen zenuen. Hiruzpalau urte besterik ez bazituen ere, neskatoak den-dena zekiela konturatzen zinen. Ez zuen hitzik egiten, munduko hizkuntza guztiez zekielako. Eta komunikatu nahi zuena aditzera emateko, hitzen beharrik ez zuelako. Hiruzpalau urteko neskatoa baino ez zen, eta inork ez zekien zehatz-mehatz nor zen, zein izen zuen, nortzuk ziren haren gurasoak. Inork ez zekien ezer neskatoaz, den-dena zekiela izan ezik. Aldiz, ume guztiek zenbait momentutan izaten duten aurpegi zaharkitu bera zuen hark ere momentu guztietan. Beti egoten zen leku berean eserita, lurretik zentimetro batzuetara. Eta begiratzen zizunean, ez zizun egiatan begiratzen, zure barruan erortzen (edo labaintzen) zela baizik. Eta orduan, espazioaz zergatik esaten dugun amaigabea dela konturatzen zinen. Begirada zure barrura erortzen uzten zuenean, zituen hiruzpalau urteek munduaren, biziaren sorrera ezagutu zutela egiaztatu baino ez zenuen egiten. «Den-dena zekien hiruzpalau urteko neskatoaren istorioa» hori da.

LXIII

Egunkariko iragarkia irakurri zuenean, irribarre trufati eta eszeptikoa margotu zitzaion, iragarkiak honela zioen-eta: *Gizaki guztion ametsak biltzen dituen entziklopedia erraldoia, etengabe gaurkotze prozesuan, hileko 1.225,-Pta.ren truke eta hurrengo bost gaurkotzealdiak doan. Erosi baino lehen, nahi adina proba egiten utziko dizugu.* Eta ondoan, telefono zenbaki bat eta izen bat, *Martinique andereñoa*. Jostaturik, telefonoa hartu eta iragarkiak zekarren telefono zenbakia markatu zuen. Gizonezko batek erantzun zion pare bat txisturen ostean. Apur bat lotsaz, entziklopediaz galde egin zion, eta besteak zehatz-mehatz norekin hitz egin nahi zuen galdetu zion bere aldetik. Hark Martinique andereñoarekin hitz egin nahi zuela erantzutera lehiatu zen. Orduan, telefonoz bestaldeko ahotsak oihu egin zuen alai: *A, bueno! Zu orduan *** jauna izango zara. Aspalditik geunden zure deiaren zain.* Hura entzunda, zur eta lur gelditu zen, eta zainetan odola izoztu egiten zitzaiola sentitu zuen. Berehala, emakumezko ahots batek hitza zuzendu zion abegitsu. *Martinique andereñoa?* toteldu zuen, bere beldurraz lehen aldiz ohartuta. Jarraian ohiko azalpenak, ohiko marketing hitzak eta gizaki guztien ametsak biltzen zituen entziklopedia bidaltzeko datuak. Hau da, horrelakoetan ohikoak diren *izapideak*, Martinique andereñoak azaldu zionez. Holaxe zen, bai: gizaki guztien ametsak bilduta zeuden entziklopedia hartan, izan ziren gizakien ametsak, direnenak eta seguraski baita noizbait izango direnenak ere —ametsen mundua misteriotsua bezain infinitua da-eta—. Bazitekeen entziklopedia bera izatea amets baten zati, Martinique andereñoa bezala, *** bera bezala, hileko 1.225,-Pta.ren truke... «Gizaki guztien ametsak biltzen zituen entziklopediaren istorioa» hori da.

LXIV

Emakume zaharrak iruten eta iruten ziharduen. Ez zen inoiz gelditzen; ez zen inoiz geldituko. Bere

irundegitik munduan izan diren, eta diren eta izango diren gauza, gertaera eta pentsamendu guztiak igarotzen ziren —iruten zituen—. Gauza guztiak igarotzen ziren bere eskuetatik lehenago edo beranduago. Emakume zaharrak, aurpegia erdi ezkututzen zion zapi batean bildurik zeukan burua. Bere eskuetako hatz luze eta hezurtsuak hain azkar mugitzen ziren, ezen, batzuetan begiak ez zuen hatzik ikusten. Eta batzuetan diot, zeren lan erritmoa noizbait ere motelagozten baitzuen, unibertsoko zoko-mokoren batean erretako belar izpiren bati denbora eman nahi izango balio bezala, hazteko, ernetzeko... Batzuen ustez, emakume zaharra, irun eta irun, bera zen unibertsoaren antolatzailea —hori inoiz frogatzerik izan ez bazuten ere—. Edonola ere, beti ari zen lanean. Leiho batetik ikusi ahal zitzaion, lanean beti, nekagaitz, baina neke aztarnarik sekula erakutsi gabe, gorputza jarrera berean beti, eskuetako hatz luze eta hezurtsuak soilik mugitu, dantzarazten zituela. «Munduan izan diren, eta diren eta izango diren gauza guztiak iruten zituen emakume zaharraren istorioa» hori da.

LXV

Dantzan jira-biraka hasi zirenean, mundua modu jakin batean antolaturik zegoen —mundua bera bestelakoa zen—. Ehunka, milaka urte igaro ziren eta munduak antolamendu modu ugari ezagutu zituen —eta hainbat alditan bestelakoa izan zen—. Haiek, ordea, dantzan, jira-biraka jarraitu zuten mutagaitz, aldagaitz, beti berdin. Zibak izango bailiran egiten zuten dantza, begiak itxita zituztela. Munduan zeudela ematen bazuen ere —zeren jendeak egiatan hantxe ikusten baitzituen, haien aurrean dantzan, jita eta jira—, munduaren bila-kaerarekin batera zihoazen unibertsoz unibertso, kosmogoniaz kosmogonia, gizakiok bizitza honetan (eta bestean) behar dugun guztia euren jira-bira horietan laburbildurik balego bezala, irudikatzen bezala, beharbada hariltzen: pentsamendu bat, konta ahal ezinezko

pentsamenduetan biderkatzen zena, eta milaka biderkapen horietatik beste milaka pentsamenduekin nahasten zena, beste pentsamendu horiek euren bide zidor propioak zituztelarik. «Dantzan jira-biraka milaka urte zera-matzaten gizonen istorioa» hori da.

LXVI

Diotenez, zenbat eta gorago igo, orduan eta mingarriagoa erorketa. Hala izango da, bai, nik alderdi hori ziurtatzerik ez badaukat ere, ez bainaiz inoiz goregi igo inora. Baina bazter ditzagun norberari buruzko juzgamenduak eta hel diezaiogun benetan garrantzia daukanari, kasu honetan jainko batekin gertatutakoari. Zerbaki sorgindu honetako protagonista jainkoa izan baitzen —behintzat, jainkoa izatea egokitu zitzaion bitartean—. Gauzak, baina, ez dira betiko; eta beraz, egun batean gure jainkotxoari eulia izatea egokitu zitzaion. Ez, ez zen zigor baten ondorioa izan; aitzitik, unibertsoan gauzak benetan ondo eginda dauden seinale, besterik ez. Milaka, edota milioika urteren ostean, egunen batean agian berriz ere egokituko zaio jainkoa izatea, baina ordurako askozaz jakintsuagoa izango da, milaka izaki eta objektu izanaren eskarmentua bereganatua izango duelako. Azken batean, apaltasuna behar da, baita jainkoa izateko ere —eta batez ere, jainkoa izateko, hain zuzen—. «Euli bilakatutako jainkotxoaren istorioa» hori da.

LXVII

Esan egin zioten: *Hori eginez gero, heriotza topatuko duzu*. Berak halere horixe egin zuen, bestelako aukerak izan arren. Kontua da gizon hark patuan sinesen zuela, grekoen patuan endemas. Beraz, bere patua saihesterik ez zeukala uste izanik, bestelako aukerak bilatzeko nekerik ez zuen hartu nahi izan. Beharbada, ez

zebilen oker; gu bai ordea. Edo ez —eta kasu horretan, gizon horren ergelkeria zinez agerikoa eta patetikoa izango litzateke—. Nork jakin. Dena den, urkamendian soak lepo inguruan jantzi zionak —borreroak— galde egin zionean ea zergatik ez zuen ihes egin hartarako parada edukita, besteak hala erantzun zion: *Bai, lagun. Nik ere horixe bera egin nahi nuen, ihes egin alegia. Baina zerbaitek galarazi zidan erabakia gauzatzea — zeren benetan ihes egitea erabakita bainean—*. *Ez dakit, ba... Heriotzara eramango ninduen bideak imana izango balu bezala erakartzen ninduen; indar jarkiezina zen, eta nik horren aurrean men egin besterik ezin neza-keen egin. Gainera, zertarako hartu behar nuen herio-tza saihesteko nekea, aurrerago heriotza berriz ere to-patuko nukeela jakinda?* «Heriotza saihesteko aukera edukita ere, bere patuari jarraitzea erabaki zuen gizona-ren istorioa» hori da.

LXVIII

Harri baten gainean eguzkitan dagoen sugandi-lak gogoeta egiten du munduan izan diren gauza eta gertaera guztiei buruz. Begi oblikuoak dilatatu egiten zaizkio gogoetagai darabiltzan gertaeren bizitasunaren edota aspaldikotasunaren arabera. Musker orlegiak abesti bat gogoratu du, eta segituan abestiaren egilea etorri zaio gogora, eta segituan egilearen sentimenduak eta abesti hura sortzeko izan zituen arrazoiak eta arrazoi horiei loturik zeuden pertsonak eta pertsona horien senti-mendu goi-mailakoak eta sentimendurik zitalenak eta abestia asmatu zuenarengan onerako zein txarrerako obratu ziren eraginak eta eragin horien ondorioz eta abesti horren ondorioz munduak izan zuen aldaketa — geroago aldaketa horren aztarnarik txikiena zeharo aie-natu bazen ere—. Muskerrak hori guztia du gogoan eta behin eta berriro gogoeta egiten du oroitzapen horiei guztiei buruz, zeren bestela aspergarria izango bailitza-teke harri baten gainean eguzkitan egotea, hola, ezertan

aritu gabe. «Harri baten gainean eguzkitan gogoeta egi-
ten zuen musker orlegiaren istorioa» hori da.

LXIX

Sumendiak mota guztietako mezuak jaurkitzen zituen lurraren erraietatik kanpora: pergamino txiki-
txikiak, botiletan sarturiko mezuak, telefono higikorre-
tako buzoietara iristen ziren ahozko mezuak, airean
esaldiak osatuz elkartzen ziren letrak... Mezuetan, be-
rriz, denetik zegoen: naufragoen mezuak, maiteminduek
ezkutuan elkarri bidalitako mezuak, nazioak gerrara
eramaten zituzten aldarrikapenak, aurkikuntza handiak
eta zirtzilak, bihar hilko zirenen zerrenda, hurrengo
mendeko izurrien izenak, norberaren aurpegia berrogei
urte barru, aitortzera ausartu ez ginen sentimendu eta
sekretu goibelak, infidelitateak, garai bateko frustrazi-
oak eta hurrengo mendeko desirak, bizitzan arrakasta
izateko giltza eta bizitzan arrakasta ez izateko hamaika
arrazoi on, jadanik inork gogoratzen ez dituen oroitza-
penak, argitaratu gabe geratu ziren liburuak, urik gabe
geratu ziren ibai behinolaz erraldoiak eta kerik gabe
irakiten ziren suak, eta... Mezuak zinez ugariak ziren
eta ia-ia errebelaziotzat jo beharko genitzakeen. «Lurra-
ren erraietatik kanpora mezuak jaurkitzen zituen su-
mendiaren istorioa» hori da.

LXX

Botila barruan sartuta, mezuak ehunka urte ze-
ramatzen itsasoan. Benetako naufrago batek itsasora
jaurkitako botila mezuduna zen. Ehunka urte igaroak
ziren geroztik eta naufragoa jada hilda zegoen, noski
(egarriak, goseak eta bakardadeak jota edo gizajaleek
janda, auskalo). Baina botilak itsasoak zeharkatzen ja-
rraitu zuen, bere barruan benetan hil edo biziko mezua
eramango balu bezala, olatuen jostailu, itsas korronteen

adiskide. Botilak frogatzen zigun mundua egiatan biribila dela, eta beraz, infinitua ere badela (kosmosa bezala, hots, biribil eta amaigabea, hots, amets bat bezala, hots, gu guztion zain omen dagoen Eternitatea bezala). Itsasoan haizeak orro egiten zuen askotan —hori baieztatzeko bertan inor inoiz egon ez bazen ere, gure botila ausarta izan ezik—. Egun batean, ordea, botila hondartza batera heldu zen, non mutiko bat jolasten ari baitzen. Botila atzeman, mezua barrutik atera eta irakurri egin zuen. Honela zioen: *Salba zaitetz*. «Itsasoan ehunka urte zeramatzan botila barruko mezuaren istorioa» hori da.

LXXI

Ilargi betearen azpian, zeru ganga ehunka begi distiratsuz jositakoaren gerizpean, txinparka ari den sutearen ondoan, hitz misteriotso eta ulertezinak ahoskatzen diharduen agure zahar bat dago. Darabilen hizkuntza arrotza da Lurreko gizaki guztientzako. Sugarrak dantzan ari dira sorgindurik; haizeak batzuetan indarrez jotzen du, agure zaharraren hitzak bere magalean jasoz. Agure zaharrak begiak itxita dauzka, eta besoak zerurantz altxata. Beharbada, leinu zahar bateko azkena da; edo izan liteke duela ehunka urtetik lur gainean bakarturik gelditutako isla; edo Australiako herritar eskubiderik gabeko batek izandako ametsa; edo goizean bainugelako ispiluak itzultzen digun irudia; edo egunen batean izango garenaren iragarpena; edo... Ilargia beterik dago eta gauean irekitako zuloa dirudi. Agian, agure zaharra hortik etorri zen eta hortik ere desagertuko da, sorgin hitzak ahoskatzen bukatu eta gero. Izarpean den-dena da posible eta. «Gauean, su ondoan hitz misteriotso eta ulergaitzak ahoskatzen zituen agure zaharraren istorioa» hori da.

LXXII

Emakumeak hiru alditan musu eman zion suabe-suabe sugearen buruari. Sugeak egiten utzi zion lehenik, eta emakumearengandik jaso behar zuen samurtasuna bereganatuta zuela uste izan zuenean, emakumearen eztarri zuri eta distiratsuari hiru alditan kosk egin zion suabe-suabe. Gero, biak eseri ziren elkarren parean, emakumea lurrean kokoriko eta sugea gorputzik gehiena kiribilduta zuela —burua eta gainerako gorputzaren zati bat izan ezik, tente-tente utzi zituenak—. Sugea, poliki-poliki, emakumeak emandako hiru musuen eragina sentitzen hasi zen; eta emakumeak, poliki-poliki, sugeak egindako hiru kosken eragina bere baitan obratzen ere atzeman zuen. Gero, emakumeak arropa guztiak erantzi zituen; sugea, berriz, larruz aldatu zen. Lehena hiltzen sugea izan zen, beti bezala. Emakumeak, aldiz, handik gutxira jarraitu zion, berrogeita hamar urte igarota bera ere hil zelako, hiru kosken ondorioz. «Sugeari buruan hiru musu eman zizkion emakumearen istorioa» hori da.

LXXIII

Dadoak botatzen zituen bakoitzean, zenbaki eta irudi eta mezu desberdinak (hizkuntza arrotz batean idatzita) ateratzen zitzaizkion beti. Hori nola eta zergatik gertatzen zen, berak ere ez zekien. Bazekien, ordea, tirada bakoitzean ateratako zenbaki, irudi edota mezua-aren esangura interpretatzen. Unibertsoan izaki eta objektu bakoitzak bere tokia du. Esaterako, urliak organoa eraikitzen daki; eta sendiak munduko melodiarik ederrinak ateratzen daki. Edonola ere, dadoak dado guztiak bezalakoak ziren (bi guztira), zazpi alde edo aurpegirekin. Baina tirada bakoitzean sekula ez zen aurreko tiradan ateratako zenbaki, irudi edo mezua errepikatzen. Areago, eskuekin hartuz gero, eta alde bakoitzari begiratzuz gero, azkar-azkar begiratuta ere, alde ez zen inoiz errepikatzen. Batzuen ustez, tirada bakoitzean gizaki baten patua erabakita gelditzen zen; beste batzuek, be-

rriz, gizaki batena ez ezik, animalia edota intsektu batena ere gelditzen zen erabakita. Azkenik, unibertsoan, kosmosean zegoen gauza eta kreatura bakoitza ere erabakita gelditzen zen ustea zabaldu zen adituen artean. Arrazoia nork zuen esatea zaila da. Beharbada, denek zuten arrazoi eta aldi berean inork ez. «Tirada bakoitzean zenbaki, irudi edota mezu desberdinak ateratzen zituzten dadoen istorioa» hori da.

LXXIV

Eguzki argia sekula ezagutu gabeko herria zen hura, betidanik lurpean bizi izan zelako. Betidanik...? Legenda eta ele-zaharretan noizbait aipatuak ziren lur-reko azalean, haize agerian, bizi izandako garaiak. Baina, tira, legendak eta ele-zaharrak baino ez ziren, haitzulo eta lur azpiko galerietan leizez leize helarazten zirenak, Sator Herrian gizaki itsuek oso maite baitzituzten ahoz-ahoz helarazitako ipuin zaharrak kontatu eta entzutea. Ele-zaharrik aspaldikoenari kasu egitera, lurpean bizi izatearen benetako arrazoia huraxe zen. Ahozko literaturari hobeto atxikitzea. Zer esanik ez, euren helburua modu harrigarrian erdietsi zutela. Gainera,itsuak izanik, hitzei hobeto atxikitzeko aukera zuten. Hitzak marraskatu, mastekatu egiten zituztela esan zitekeen ia. Milaka urteren buruan, kobazuloetatik erdi herrestan zebiltzaten itzalitsu haiek, haragizko izakiak baino, hitzezko izaki bihurtuak ziren. Eta zegoeneko milioika eta milioika zenbatzen ziren lurpean. Eta lurraren historia (Sator Herriaren historia) eta eurena ezagutzeko, ehun urtean behin biztanle guzti-guztiak jartzen ziren lerroka edo ilaran, eta denen gorputza (berbazkoak) elkartu eta Kreazioaren misterioaren berri ematen saiatzen ziren. Gero, egun seinalatua iraungitzen zenean, iladak apurtu eta ez ziren gehiago biltzen beste ehun urte igaro arte. «Lurpean bizi zen Sator Herriaren historiaren istorioa» hori da.

LXXV

Bazko irlako irudiek euren mezuak zabaltzen zituzten itsaso alderantz. Eta itsasoko uretan islaturik, mezuek zerurantz egiten zuten hegan; gero, atmosfera hurbileko geruzak zeharkatu eta espazio hotz eta ilunean barneratzen ziren. Mezuek beti gauza bera zioten, eta berrogeita zortzi orduko tartearekin errepikatzen ziren. Urte luzeetan, behintzat, hala izan zen. Tamalez, heldu ziren europarrak. Eta poesia sortu eta bizitzeko ahalmen gutxikoak zirenez, Bazko irlako hainbat estatua lapurtu eta euren herrira eraman zituzten, beste batzuk puskatu eta lurrera bota ostean. Beraz, mezua jada ez zen garai batean bezain garbia; eta Lur inguruko geruzak ez zituen hain erraz gainditzen. Behin Kosmosera heldu ezkerro, ordea, errazago lortzen zuten helburua: batetik, euren bidaiia inoiz amaitzen ez zelako; eta bestetik, espazioan flotatzen zutelako (eta horrek asko errazten zien batetik besterako mugikortasuna). Egiatan, itsasargiak bezalakoak ziren, espazioko marinelentzat han jarriak. «Bazko irlako harrizko estatuen misterioaren istorioa» hori da.

LXXVI

Afrikan zurezko iruditxoak lantzen milaka urte daramatza eskulangile beltzak. Dagoeneko, irudi kopuru amaigabea ditu eginak eta munduan eta espazioan zehar barreiatuak. Astronautak hasieran harri eta zur gelditzen ziren, espazioko leku berri batera iristen zirenean, hantxe topatzen baitzituzten afrikar eskulangilearen iruditxoak, zurez txukun-txukun landuta. Ilargia zela, Martitz zela, Neptuno zela... Hantxe agertzen ziren beti, huts egin gabe. Gero, poliki-poliki, agerpen horietara ohitu eta ez zioten garrantzi handiegirik eman. Irudiak batik-bat animala irudiak izaten ziren, Afrikako faunari buruzkoak: elefanteak, lehoiak, zebrak, jirafak, hipopota-

moak, ñuak... Ohiko animaliak alegia. Giza itxurako irudiak ere egiten zituen, baina kasu honetan giza irudi bera irudikatzen zuen beti, artzain bizardun baten irudia, eskuan makila zuena eta begiak hutsik zituena. Artzainaren irudia ez zen inoiz planetetan agertzen, espazioan flotatzen baizik (zenbaiten ustez salbuespen batzuk baziren, urruneko planetei loturik gehienak). Hortaz, astronautek eta espazioko bidaiariek koeteko eta espaziontzietako leihoetatik begiratzen zutenean, askotan zurezko irudi harrigarriak topatzen zituzten, beti-berdinak: artzain zaharra begiak hutsik eta bere makilari eutsita. Orduan, bihotz-bihotzez pozten ziren iruditxoak topatzeaz. «Zurezko irudiak landu eta espazioan zehar barreiatzen zituen afrikar eskulangilearen istorioa» hori da.

LXXVII

Planeta hartako eguzkia egunero-egunero hainbat eguzki-puskatan banatzen zen, gauez eguzki-puska guztiak ostera ere biltzen ziren arte. Gauzak halaxe gertatzen ziren planeta hartan. Jakina, kontua zinez ikusgarria zen. Eguzki puska bakoitza biribila zen, eguzki amandrea bezala. Batzuetan, puska bakoitzetik beste puska batzuk bereizten ziren. Baina azkeneko hau batikbat ilunabar aldean gertatzen zen gehien-bat. Puskak gauez berriro nola biltzen ziren, inork ez zekien. Batzuek, hala ere, magnetismorantz apuntatzen zuten gertaera bitxia azaltzeko. Antza, planeta hartako eguzkiaren osakeran burdinazko partikulen kopurua nagusi zen; eta planetako arkaitz imandunek erakarrira, eguzkia dozenaka puskatan partitzen zen. Gauez ordea puskek zergatik elkartzen ziren berriro ez zegoen oso garbi. Eguzki argia joanda, arkaitz imandunek euren propietatea galtzen zutela, hori nahiko agerian zegoen. Bakarrik falta zen eguzkiaren (edota eguzki argiaren) eta arkaitz imandunen arteko erlazioa aurkitzea. Eguzkira itzultzen ziren puskek imantaturik zeudelako itzultzen zirela uste zuten

batzuek. Eta hala omen zen. Dena den, horrek ez zuen azaltzen desimantazioaren misterioa, eguzki argiari zuzen lotuta zegoela duda-izpirik txikiena egon ez arren. «Eguzkia hainbat puskatan partitzen zireneko planetaren istorioa» hori da.

LXXVIII

Istoriaoa behin eta berriro errepikatzen zen. Beti egon zen gizakion ezpainetan eta oroimenean, eta hala jarraituko zuen denboren amaierara arte. Hiruzpalau orri besterik ez zuen okupatzen. Eta amaitzen zenean, berriz ere "bera bakarrik" berridazten hasten zen. Batzuek diotenez, errepikaturiko istorio bakoitzean aldaketa txiki eta nimiño bat zegoen, baina kontua da inork ezin izan zuela alderdi hori guztiz baieztatu, adituak horretan gogor ahalegindu baziren ere. Gainera, hiruzpalau orri-txoak idazteaz amaitu orduko, orritxoak mundurantz abiatzen ziren abentura bila (irakurle bila), eta beraz, oso-oso zaila zen bertsio bakoitza aurreko edota geroko bertsioekin alderatzea (kotejatzea). Bestalde, hori egin ahal izateko, existentzia askoren jabe izan beharko litzateke horrelako zereginari ekingo zion gizaseme ausarta (edota eroa izan), kontua aspalditik zetorrelako. «Beti errepikatzen zen istorioaren istorioa» hori da.

LXXIX

Hura izan zen azken borroka. Borroka galdua. Ehunka urte igaroak ziren orduz geroztik. Bizirik ateratako soldaduek, berriz, erretirada lotsagarrian jarraitzen zuten. Horixe izan baitzen historiak egin zien azken jukutria, eta ederra gainera. Etsaiaren aurrean atzera egin zutenek ez zuten hil ostean ere lekuri aurkitzen lurtean, eta mende luzeak zeramatzaten erretiradan beti, neke-neke eginda, geratzen zitzaizkien haragi puskei nola edo hala eusten zietela. Mendiz mendi, zelairik

zelai, ibiltzen ziren alderrai, borroka lekutik asko urrundu gabe baina, naturaz gaindiko indar batek ihes egitea eragozten baitzien etsaiaren aurrean hain lotsagarriro ihes egin zutenei. Ezpatek elkar jotzen zutenean, lantzek eta geziek haragia urratzen zutenean, zaldiak zauriturik deskalabru handiz lurrera erortzen zirenean, leherturik, hil zorikoen oihuak, odola... Hura guztiura errealitate bihurtzen zen urtean behin, egun horretan galduriko borroka-eguna ostera ere hasten baitzen, hasieratik bertatik, antzespen ikaragarri hartan ezertxo ere ahaztu gabe, historia baita ahazten ez gaituen bakarra. «Azken borroka galdu ondoren, ihes egin zuten soldaduen istorioa» hori da.

LXXX

Gizon batzuek etorkizuna asmatzen dakite; beste batzuek, berriz, ozta-ozta dakite oraina interpreta-tzen. Baina denetan mundialena iragana zen bezalaxe igartzen zekien gizona izan zen. Zeuzkan ahalmenak zinez harrigarriak ziren. Esaterako, demagun A herria eta B herria elkarren etsai amorratuak zirela. Beno bada, gure gizonak etsai biak guztiz pozik eta konforme utziko zituen Historia idazteko gai zen. Bi herri horien Historia alegia. Nola egiten zuen inork ez zekien, sekretua berekin eraman baitzuen hilobira. Beraz, hemen lerro hauetan konjeturak eta badaezpadako usteak baino ezin ditugu aditzera eman. Eta horiek ere inori axolarik emango ez diotenez, hobe dugu isildu eta gauzak dau-den bezala uztea. «Iragana izan zen bezalaxe asmatzen zekien gizonaren istorioa» hori da.

LXXXI

Hura egun pozgarria! Zientziarentzat eta mundu guztiarentzat. Azkenik, lorturik geneukan: sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunak oro desagertuta zeuden.

Albistea iragarri zuen Nobel sariduna telebistan agertu zen, gutxienez hirurogei pertsonak —bi sexuetaoek— parte hartzen zuten orgia baten erdian. Halakorik ere! Hasieran, haserre keinuak eta hitz larriak baino ez ziren entzuten, nonahi. Baina, poliki-poliki, jendea gertaerari buruz gogoeta egiten hasi zen. Eta laster ondorio gisa denek atera zuten gauza bera: txortan egitea libre zela. Sexu gaixotasunek milaka urtean eragindako errespetua —barka, izua— behin desagertarazi ondoren, ordura arte sexu inguruan altxatako tabu, gezur, beldur eta hipokresiek orok lurra jo zuten, dinamitaturiko eraikuntza erraldoiak lurra jotzen duen bezala. Jendea zinemara joan beharrean, txortan egitera joaten zen. Edota lehen Interneten orduak eta orduak zintzilik igarotzen zituztenak mota guztietako orgietara joaten ziren distraitzera. Norbaitekin txortan egitea hamaika eta erdietako kafea hartzea bezain arrunt bilakatu zen. Autobusaren zain jendeak geltokian itxoiten zuen bitartean, batzuek aprobetxatzen zuten txortan aritzeko, arin bai arin, autobusa ustekabean ager zitekeen-eta. Bai, zientziaren ekarpenak moralari buruz genuen iritzia zeharo kordokatu eta hankaz gora jarri zuen. «Zientziak sexu gaixotasunak orok desagertarazi zituen egunaren istorioa» hori da.

LXXXII

Zoriontsu zihoan, han, bere tapiz hegalaria eta magikoan. Jendeak uste zuen gauza horiek ipuinetako fantasiak zirela. Bai zera! Tapiz hark behintzat ederki zekien hegan egiten. Ekialdeko basamortura egindako bidaia batean eskuratu zuen; mapak ez zekarren herri batean sartu eta hantxe oparitu zioten tapiz magikoa. Diruz ordaindu nahi izan zion saltzaileari —ia hortz guztiak desagerturik zeuzkan eta modu zinez trufagarrian begiratzen zion agure bati—, baina ez zuen dirurik onartu nahi izan. Tapizari hegan eragiteko ahoskatu beharreko hitz magikoak esan zizkionean, belarri egin zion, bai... Baina tapiza lurrera berriro jaitsiarazteko

ahoskatu beharreko hitz magikoak azaltzen hasi zitzaionean, ezin izan zion barregurari gehiago eutsi eta jada ez zion kasurik egin. Tamalgarria, zinez. Orain ez baitzekien nola arraio egin ditzosozko tapiz magiko hartatik jaisteko. Eta goseak zegoen. Eta izu laborria berataz jabetzen hasia zen. Eta ez zekien nola demontre jaitsi tapiz madarikatu hartatik. Urteak igaro ziren, eta munduari hamaika buelta emanda zeuzkan, hara-hona, tapizaren gainean bere hezurak txukun-txukun pilaturik gelditu ziren arte. «Tapiz magikoa lurrera jaitsiarazteko sorgin hitzak ikasi ez zituen gizonaren istorioa» hori da.

LXXXIII

Berak ez zuen heriotzan sinesten. Ondo ulertu duzue, bai. Ez dut esan naturaz gaindiko bizitzan sinesten ez zuela; heriotzan baizik, ez zuela sinesten. Sinesten zuen, ordea, sinesgarritzat jotzen dugun guztia izan daitekeela. Bestelako hitzez ere adieraz dezakegu hori, esaterako, irudika dezakegun guztia izan daitekeela. Euskaldunok, aspaldiko euskaldunek bederen, *izena duen guztia badela* esaten zuten... Tira ba, kontua da gure gizonak ez zuela heriotzan sinesten, eta sinesten dugun guztia izan daitekeela —eta badela— sinesten zuenez gero, gertatu zitzaion gauza benetan kurios bat: ezin zela hil. Benetan, ahaleginak eginda ere, ez zen sekula hiltzeko gai izan, heriotzan sinesten ez zuelako. Gizarajoa ez dakit zenbat alditan saiatu den bere buruaz beste egiten; baina beti alferrik, noski. Behin, burdina birrintzeko tresna batera ere bota zuen bere burua. Baina tresnaren beste aldetik atera zenean, puska guztiak osaturik zeuzkan osterera ere, eta bizi izaten jarraitu zuen. Lagun batek haxe aholkatu zion: *Hik heriotzan sinesten hasi beharko huke. Orduan, hiltzea lortuko huke eta*. Ezin, ordea, heriotzan sinetsi. Betiko bizi behar, betiko... «Heriotzan sinesten ez zuelako, betiko bizi izatera zigorturiko gizonaren istorioa» hori da.

LXXXIV

Botilatik askatuko zuenari hiru mendeku oparituko zizkiola agindu zuen. Jada ahazturik zeuzkan botila barruan preso igarotako urteak, mendeak... Ehunka urte zeramatzan, bera baino indartsua zenari —Ala-ri— aurre egin ziolako.

Egun batean, arrantzale gizarajo batek sarea itsasora bota zuenean eta sarea jasotzean botila bat besterik ez zegoela ikusi zuenean, eta botilako tapoia atera zuenean eta jeinu erraldoi eta beldurgarri bat aurrean azaldu zitzaionean, orduan, harri eta zur gelditu zen, noski. Une batez, jeinuak hiru desio emango zizkiola pasatu zitzaion burutik. Eta horrek poztu egin zuen, bera arrantzale txiro eta gizarajoa zelako. Jeinuak, ordea, ez zirudien desirak ematen dituzten jeinu horietarikoak zenenik; aitzitik, eskuan oraturik zeukan alfanjea susmorik txarrenak iradokitzeke modukoa zen. Azkenik, jeinuak hitz egin zuenean, bere harridura areagotu baino ez zen egin, hiru desira ez baizik hiru *mendeku* emango zizkiola jakinarazi baitzion. Zorionez, arrantzalea hain zen xaloe eta on-puska ezen ez zitzaion inor gogora etorri, ezta zeinen aurka hartu mendekurik ere. Beraz, botila barruan ahaztutako liburu magikoa jasotzeko jeinua botila barrura sartua zela aprobe txaturik, botilako tapoia azkar-azkar bere lekuan osterera ere jarri, botila itsasora jaurki eta sarea jaurki zuen itsasora, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Eta gero, lehorrera itzuli zen, beti bezain pobre, baina hala ere, munduko gizonik aberatsena sentitzen zela. «Botilatik askatuko zuenari hiru mendeku oparituko zizkion jeinuaren istorioa» hori da.

LXXXV

Gizon hark hizkuntza guztiez zekien. Duela milaka urte, itun bat egin zuen Deabruarekin: hizkuntza guztiak ikasteko denbora emango zion Deabruak; eta

horren ostean, gizonak bere arima eskainiko zion, opari modura. Milaka urte igaroak ziren eta gure planetan diren hizkuntza guztiak ikasita zeuzkan, horien bariantak barne. Arkaitz batean eserita zegoen, Deabrua noiz agertuko zain, arima erreklamatzera laster azaltzekoa baitzen bere aurrean. Halako batean, Deabrua agertu eta ea hizkuntza guztiak ikasita al zeuzkan galde egin zion. Gizona bere ikaskuntza konplexu eta luzearen berri ematen hasi zitzaion, baina Deabruak hitza eten zion, esanez, ez ziola tutik ulertzen, ea zein hizkuntza zen hura. Gizonak harriturik begiratu zion, eta azkenik keinuen bidez azaldu zion bere harridura. Orduan, Deabruak magnetofono bat atera, gizonari hitz egiteko agindu, eta esandakoak grabatu egin zizkion. Gero, isiltzeko esan, zinta errebobinatu eta gizonari bere esanak entzunarazi zizkion. Gizonaren harridurak muga guztiak gainditu zituen, hark berak ere ez baitzituen ulertzen magnetofonaren grabatutako hitzak, hark berak esanak baziren ere. Deabrua den bezain maltzurra izanik —ohiz den bezala—, berehala asmatu zuen arrazoa: lurreko hizkuntza guztiak nahastu eta berak ere ulertzen ez zuen hizkuntzaz hitz egiten zuen orain. Deabruari halako grazia egin zion, non, gizonari zorra barkatu eta barrez lehertzen alde egin zuen handik, gizona arkaitz gainean eserita eta txundituta utziz. «Hizkuntza guztiak ikasi zituen gizonaren istorioa» hori da.

LXXXVI

Zekien hizkuntza bakarra ahaztuta zeukan. Normala, urteak zeramatzan inorekin hitz egin gabe eta noizbait aspertu egin zen, aspertu ere, bere buruarekin solastatzeaz. Beraz, poliki-poliki, ia konturatu gabe, zekien hizkuntza bakarra galtzen joan zitzaion... Orain, animalia bezalakoa zen. Esaterako, sentitzeko gai zen. Areago, sentitzeko ahalmena ikaragarri garatu zitzaion, zekien hizkuntza bakarra ahaztu zitzaion egunaz geroztik. Eta sentitzeko ahalmena ikaragarri garatu zitzaioa

esaten dugunean, esan nahi dugu sentimenak ikaragarri garatu zitzaizkiola: ikusmena, entzumena, dastamena, ukimena eta usaimena. Bestalde, irudimenari dagokionez, esan beharra dago areagotu baino moteldu egin zitzaiola, hizkuntzarik gabe abstrakzioa lekurik gabe geratu zelako. Egun batean, zekien hizkuntza bakarra ahaztu zuen gizonak zuhaitz baten ondoan gelditu, biluztu, lau hankatan jarri, berna jaso eta pixa egin zuen enborraren oinean. Bere lurraldea markatzen ari zen, noski. «Zekien hizkuntza bakarra ahaztu zuen gizonaren istorioa» hori da.

LXXXVII

Azkenik, hainbaterainoko izu laborria sartzen ziguna gertatu zen: holokausto nuklearra. Nola hasi zen berdin dio. Nahita, istripuz, ordenagailu baten erruz... Gertatu egin zen, eta kito. Denak hilda zeuden. Denak...? Ez, gizon bat salbuan zegoen. Lau mila milioi bostehun eta hirurogei biztanleetatik bizirik ateratako bakarra: Presidente jauna, botoi gorria sakatu zuena. Zeuzkaten misil guztiak jaurkitzea erabaki zuen Presidente bera, hain zuzen. Bunker berezi batean gorderik, leherketa ikaragarriei eutsi zien zulo triste hartan, bakar-bakarrik, beste inork ez baitzuen bunkerrean bere burua babesteko astirik izan. Janaria zeukan tonaka; beti mutu zirauen telefono bat eta irudirik ematen ez zuen telebista bat. Eta argia, argi horiska eta ahula hogeita lau orduz aspergarririo pizturik beti zirauena... Lau hilabete luze igaro ziren, lau mila urte igaro izan balira bezala. Egun batean, berriz, argi koloreko argi bat dirdirka hasi zen bunkerraren barruan. Horrek esan nahi zuen bunkerra utzi eta kanpora atera zitekeela, lehen aldiz lau hilabete luzeetan! Dena den, kanpora ateratzeko astronauten pareko jantzia behar zuen soinean, eta pare bat orduz baino ezin izango zen kanpoan ibili —bestela, jantziak berak ez baitzion erradioaktibitate handitik babestuko—. Eta hiri erraldoi hartan, hondakin artean, aske, lehen

baino gogorragoa egin zitzaion bere bakardadea. Eta ez zen itzuli. Bi orduak igarota ez zen bunkerrera itzuli. Eta inork ez zuen jakin Presidente jauna non, zein egunetan eta zein ordutan hil zen. Eta inork ez zion egunkarian eskela mixerable bakar bat ere jarri; inor ez zen bere heriotzaz tristatu, ezta poztu ere. Lehena azkena izan zelako. «Holakausto nuklearraren ondoren, bizirik ateratako gizaki bakarraren istorioa» hori da.

LXXXVIII

Itxuraz ur putzu zinez arrunta iruditu arren, munduko —eta ez unibertso— ur putzurik harrigarriena zen, erantzun guztiak ematen baitzekien. Eta ez hori bakarrik, jakin ere bazekien egiak gezur eta gezurrak egia bihurtzen, askotan urriki hutsagatik egiten zuena, ur putzu jakintsua izateaz gain, bihotz oneko ur putzua izaten ere bazekielako —bestela, ez zen jakintsua izango—. Norbaitek, esaterako, galde egiten bazion: *Noiz hilko naiz?* Orduan, egia esaten zion baldin-eta hiltzeko urte asko oraindik falta bazitzaizkion. Baina oso denbora gutxi geratzen bazitzaion, orduan isilik gelditzen zen edo gezur esaten zuen. Geroago beste batzuei emango zien egia bazekielako froga garbia, inork zalantzan jar ez zezan. Dena den, ur putzuaren benetako jakituria bestelako galderekin jartzen zen agerian. Adibidez, zenbat planeta daude gure unibertsoan? Eta putzuak erantzun zehatza ematen zizun, esaterako: ****(e)ko irailaren 30ean, 05:45 orduetan, 228.742.321 (noski, hau adibidea baino ez da). Edota, zenbat planeta daude unibertso guztietan? Orduan, ur putzua lanean hasten zen, eta ordu —edo egun— batzuen buruan, hau da, kalkuluak egiten bukatzen zuenean, erantzuna ematen zizun: konta ahal ezineko planetak daude, kopuru infinitua (unibertso adina planeta). Egundik, ordea, erantzunik ez zeukan galdera egin zioten. Hasieran, ur putzua lanean hasi zen, beti bezala. Orduak, egunak igaro ziren. Gero asteak eta hilabeteak. Eta azkenik,

urteak. Baina ur putzuak ez zuen erantzunik aurkitzen. Eta horrela, poliki-poliki, ur putzua lehortzen joan zen, egun batean bere azken tantak eguzkiak xurgatu zizkion arte. Bere amaieraren arrazoia izandako galderaren berri, aldiz, ez zuen inork izan. «Erantzun guztiak ezagutzen zituen ur putzuaren istorioa» hori da.

LXXXIX

Hain aberatsa izan zen... Izan ere, halako grinaz desiratu zuen beti hain aberatsa izatea... Dirua metatzea obsesio bilakatu zitzaion. Gaixotu egin zen. Eta diru gehiago izateagatik jende asko hil zuenez, hiltzaile ere bihurtu zen. Zehatzago esanda, genozida bilakatu zen, sarraski izugarriak bultzatu baitzituen bai Hegoamerikan bai gainerako kontinenteetan, hark berak eragindako estatu kolpeen ondorioz. Ehundaka, milaka hildako, desagertu, torturatu, mutilatu... itzaltzerik ez zeukan diru egarri zoro horren erruz —noski, saiatu ere ez zen inoiz grina gaizto hartatik aldentzen—. Tira, ez gara orain hasiko prediku onak ematen, ez baita beharrezkoa horren aspergarri jokatzeari. Dena den, kontua da orain hilik zegoela, eta behinola izandako botereak ezer gutxirako balio ziola egoera berrian. Ate baten aurrean zegoen. Hil ostean, tunel luze bat zeharkatu behar izan zuen, ate horren aurrera iritsi arte. Ez zen ausartzen ateaz harantzago joaten. Bazekien zer espero zitzaion han. Beti jakin zuen une hori noizbait iritsiko zela. Azkenik, burua makurtu eta eskuaz atea bultzatu zuen. Bazekien irekiko zitzaiola, jo beharrik gabe... «Beste munduan den-dena galdu zuen gizon aberats eta botere-tsuaen istorioa» hori da.

XC

Hil eta gero, esfera baten barruan aurkitu zuen bere burua. Esfera handi samarra zen, hiru metro altu

eta pare bat metro zabal, eta xaboiz egindako ponpa horietariko baten itxura zeukan —horregatik diot handi samarra zela, xaboi ponpa izateko benetan handia baitzen—. Gogorra zen ordea. Saiatuta ere ez zen puskatzen. Ukabilka eta ostikoka erabili arren, ez zen inoiz puskatzen. Gainera, espazioan —edo espazio antzeko leku hartan— flotaka ari zen. Barruan pertsona bat zihoan. Esfera puskatzerik ez zegoela hamaika aldiz egiaztatu eta gero, barruan zihoazenak lasaitu egiten ziren (ia denek jokatzen zuten modu berean). Orduan, kanpora begira jartzen ziren, apur bat etsita, oso harrituta, erabat ikaratuta. Han, beste esfera batzuk topatzen zituzten, espazio hartan flotatzen, egoera berberan. Esfera horien barruan jendea zihoan. Baina, noizean behin, gauza benetan harrigarriak ikusten ziren. Esaterako, esfera barruko zenbait pertsona errepikaturik zeuden, pertsona berberak esfera desberdinetan alegia. Gauzak horrela, "A" pertsonak bere burua ikus zezakeen bere ondotik pasatzen beste esfera baten barruan. Horrelakotetan, erreplikak —erreplikak baitziren— elkari begira gelditzen ziren ikusten zutena ezin sinetsirik. Hil osteko bidaiaren hasiera horrelakoxea zen beti: misterio hutsa (atzean utzitako eta aurrean espero izatekoa zena bezalaxe). «Gizakiok esfera kontzentrikoz osaturik gaudela egiaztatu zuen pertsonaren istorioa» hori da.

XCI

Gizona gauez zihoan automobila gidatzen, inoiz amaitzen ez zen errepide bakarti batean zehar. Urrunurrunean, herrigune baten argiztapena (poxpoluaren antzeko, gau itsuaren minean). Noizean behin, oso noizean behin, beste automobil baten edota kamioi baten argi luzeekin egiten zuen topo. Leihatila ireki zuen, gaua piska bat hotz bazen ere. Zigarro bat piztera zihoan, baina ez zen ekintza hori amaitzera iritsi, ispilu erretrobisorean zigarro baten punta gorria argi baino argiago ikusi zuelako. Izaturik, kotxetik martxan jauzi

egitea pasa izan zitzaion burutik une batez. Atzeko eserlekuan norbait zegoen! Gaua zen, errepide bakarti batean zegoen eta *polizante* bat zeraman atzeko eserlekuan. Besteari, berriz, ez zitzaion bat ere urduri nabaritzen, atzemanda zegoela jakin arren. Zigarroari zupadak ematen segitu zuen. Eta zupada bakoitzean, zigarroaren punta gorri-gorri jartzen zen. Baina sorpresak ez ziren hor amaitzen. Hitz bakar bat ere esateko denbora izan baino lehen, atzeko eserlekuan zihoan pertsonaren aurpegia argi ikusteko aukera izan baitzuen, beste norabidean zetorren kamioiaren argiek argiztatuta. Hura bera zen! Atzeko eserlekuan zihoan pertsona, bera zen. Abiadura mantsotu eta poliki-poliki gau ilunean barrena sartu zen, etsita, dagoeneko ezer egiterik ez zegoela ulerturik. «Gauetz errepide bakarti batean zehar gizon bati gertatu zitzaionaren istorioa» hori da.

XCII

Gazteluko dorrean leiho errektangeluar eta argal batetik lautadara begira, alkimistak gogoeta egiten dihardu. Lortu berri duen aurkikuntzari buruz ari da gogoeta egiten. Ia berrogei urte igaro dira lehenbiziko esperimentuak egiten hasi zenetik. Orain, nahiko zaharturik dago. Baina lortu egin du: betiko gaztetasunaren sekretua aurkitu du. Elixirra, edabea, hortxe aurrean dauka; hartu besterik ez luke egin beharko berriro ere gaztea izateko. Aldiz, oraindik ez du edan. Horri buruz, hain zuzen, ari da gogoeta egiten. Eta gaztetasunarekin batera hilezkortasuna ere lortuko balu? eta horren ondorioz ezinbestez pilatuko zitzaion jakituriaren erruz okertu edo gaiztotuko balitz? Gainera, benetan nahi al du berriro ere gazte izan? eta heriotzari —bidaia zoragarriaren hasierari— uko egin? Buruari ezker-eskuin eragin eta laborategian zehar gora eta behera ibiltzen hasi da. Orduan, edabea prest dagoen tokira joan, gaztetasuna itzuliko zion isurkia daukan botilatxoja jaso eta hormaren aurka jaurki du bere indar guztiekin. Gero,

formula korapilatsua apuntaturik zeukan liburua sutara bota eta hantxe gelditu da, zutik, sutara begira. «Betiereko gazetetasunaren edabea asmatu zuen alkimistaren istorioa» hori da.

XCIII

Harriak urre bihurtzeko sekretua izadiari erauzitako lehena izan zen. Hainbeste eta hainbeste alkimistaren ametsa, munduko errege guztiek batera amesterik izan ez zuten moduko aberastasuna! Alkimista oso artega zegoen. Laborategi modura apaindutako kartzela hartan berrogei urte baino gehiago zeramatzan preso. Erregeak esan baitzion: *Harriak urre bihurtzeko modua aurkitu arte, preso egongo haiz laborategi honetan*. Erregeak hitza bete zuen. Berari dagokionez... hantxe zegoen aurkikuntza, bere begien aurrean zeukan, askatasuna ekarriko zion aurkikuntza. Aldiz, egun hartan bertan, beste sorpresa handi bat hartu zuen: erregeak bere aurrera etorrarazi eta honela hitz egin zion: *Badaramatzak berrogei urte preso laborategian. Ez duk formula aurkitu eta ez duk inoiz aurkituko. Hoa hemendik. Askea haiz eta*. Alkimistak esana egin zuen. Baina handik urrun egon zenean, aurkikuntzaren berri emango zion mezularia bidali zuen erregearengana. Harriak urre bihurtzeko formula argi eta garbi idatzita zekarren pergaminoaren idazpuruan, honako hau irakur zitekeen: *Errege tripontzi hori, hemen duzu horrenbeste irrikatu zenuen aurkikuntzaren giltza, berrogei urte luzez nire askatasunaren hondagarri izan zena. Ni, txoriak bezain libre, zurea baino altxor preziatuago baten jabe naiz: neure askatasunaren jabe. Zu zara, orain, preso gelditzen dena. Ondo izan*. «Harriak urre bihurtzeko formula aurkitu zuen alkimistaren istorioa» hori da».

XCIV

Inork ez zekien telefono gida hura nondik zen sortua —harremanetarako helbiderik ez baitzeukan, haur da, ez zekarren gidaren sustatzaileei buruzko informaziorik bat ere—. Kontua da hiri osoan telefono gida hura xaxa besterik ez zegoela. Izan ere, zinez itxura oneko gida zen, halako azal ederrak zituen, eta lehen begiratuan hain benazko eta serioa zirudien... Gida eskuratzeko, gida zaharra entregatzea beste baldintzarik ez zuten jartzen. Baina gidaren lehen argitaraldia zenez, inork ez zuen baldintza hori aintzat hartu. Eta hain itxura oneko gida zen... Nork pentsa zezakeen gida hartan ezer gaiztorik egon litekeela? Areago, nork pentsa zezakeen gida hartan agertzen ziren datu guztiak okerrak eta faltsuak zirela? Ospitalera deitzen bazenuen, ehorzketa etxea aterako litzaizuke. Poliziari deituz gero, kartzelako preso batek erantzuten zizun. Zure lagunik onenari hots eginda, zure etsairik gorrotagarrienak topatuko zenuen linearen beste muturrean. Guztiorrek hirian eragin zuen nahaste-borrastea benetan handia izan zen, eta kaosa nagusitu zen gauza guztietaz. Eta hogeitau urte igaro ostean, hiri mamu bat besterik ez zen gelditu guzti hartaz. «Telefono zenbaki guztiak apropos nahasita ekartzen zituen telefono gidaren istorioa» hori da.

XCV

Kartzelak berez eraikuntza itzelak diren sentsazioa sortarazten badigute, zer esanik ez zeharo hutsik daudenean. Hutsik dagoen kartzelak unibertsoaren barkadadea mila bider areagotzen du. Hargatik, kartzela bakartia zaintzeko ardura zeukan kartzelazainaren burutik zer-nolako pentsamendu artegak zebilzkion igartzea ez da oso zaila, ez —denboraren poderioz, kartzelazainaren nahasmenduari bide eman zion artegatasuna—. Egunero-egunero, modulu guztietako zelda guztietako ateak irekitzen zituen, *altxa kamastrotik, alferrontziok* oihukatuz. Urteak zeramatzan inorgabeko kartzela hura zaintzen. Begitan hartu zuen zuzendari baten mendekua

akaso? psikiatra erotu batzuen esperimntua beharbada? administrazioaren despisteren bat...? Auskalo, zaintza taiugabe horren arrazoa zein izan ote zitekeen. Berak, goizeko zazpi eta erdietan, astelehenetik larunbatera bitartean (igandeetako ordutegia 08:00etan hasten baitzen), modulu guztietako ate guztiak irekitzen zituen; eta gaueko zortzietan berriro ere denak itxi, kartzelako araudiak zioen bezala. «Hutsik zegoen kartzela zaintzen zuten kartzelazainaren istorioa» hori da.

XCVI

Urteak eta urteak zeramatzan ieroglifikoaren misterioa argitu nahian. Eta hainbeste urte igaro eta gero, bere nahia beterik ikusten zuen orain. Izan ere, ieroglifikoa interpretatzeko misterioaren giltza aurkituta zeukan. Arazo bakarra zegoen ordea: burua galtzen ari zen; erotzen ari zen. Eta okerreza zen ieroglifikoaren esanahia idatziz jartzeko betarik ez zeukala, eromena azkarregi jabetzen ari baitzen berataz. Ziurraski horixe zen ieroglifikoak eskatzen zion prezioa, misterioa ulertzearen truke. Hala ere, berari bakarrik uzten zion bere sekretuaz jabetzen; beste inori ez. Norbaitek esangura ezagutu nahi bazuen, berak adina urte azterketa gogorrak egiten igaro beharko lituzke lehenik; eta bigarrenik, sekretuaren giltza topatzearekin batera, erotu. Erotu egin behar, zibilizazio zaharrak eskatzen zion sakrifizioa baitzen hura. Zer egin zezakeen orain? Ezer ez. Ezinbestez, halabeharrez nola erotzen zen ikusi, sentitu. Beterik ez. «Ieroglifikoa interpretatzea lortu ondoren, burutik erabat gaixotu zen arkeologoaren istorioa» hori da.

XCVII

Urteak eta urteak zeramatzan bidaiatzen, leku batetik bestera beti, gizakiak sekula zapaldu gabeko lekuaren bila, paisaje birjinala irrikatuz. Eta egun ba-

tean, aurkitu ere egin zuen. Brasileko Amazonian, Ipar eta Hego Poloetako lautada izoztuetan, Afrikako sabana amaigabeen, Australiako lurralde infinituan eta Arabiako basamortu ikaragarrian aurkitu al zuen... berdindio; lekuak ez du axolarik. Berak zapaldu gabeko leku baten bila aritu zen eta orain aurrean zeukan. Lurralde hura zabaltzen lehena izatearen banitateak eraman zuen haraino —gizakiaren banitatea beti—. Aldiz, ustekabeko bat gertatu behar zitzaion, urte luzeetako bilaketa absurdu bilakarazi zuena, baina gizatasun handiagoz jantziko lukeena: gizonak bueltako bidea hartu baitzuen, isilik eta burumakur, birjintasun hura guztia bere hartan utzita. Eta orduan, birjintasun hartatik zerbait barrubarruan atxekitzen zitzaiola sentitu zuen poztasun deskribagaitzez. «Sekula zapaldu gabeko lurraldeen bila urteak eta urteak igaro zituen gizonaren istorioa» hori da.

XCVIII

Eternitatea igaro zuen eternitatearen bila. Ez zuen amore ematen ordea; bilaketan tinko jarraitzen zuen eta. Ezagutu zituen biziaren fase, itxura, aro eta gora-behera guztiak. Baina sekula ez zuen eternitatea aurkitu. Agian, sorrera bera aurkitu izan balu... Baina, nola aurkituko zuen sorrera, hura bera artean ez bazen? Eta izatekotan, ez zeukan horren gaineko datu zehatzik. Edonola ere, mende luzeetako bidaia eginda zeukan eternitatearen bila. Eta batzuetan, eternitatea horixe zela iruditzen zitzaion, hau da, atzean utzitako mende luzeetako arrastoa eta bihotzera abailtzen zitzaion mende luzeetako bidaia-itxaropena. Eternitatea, betierekotasuna, eternitatea, amaigabetasuna. Eternitatea, sekula amaitzen ez den sentimendua. Orduan konturatu zen eternitatea aurkitu ez izanaren errua zein zen: berak beti bilatu zuen eternitatearen alde fisikoa, ohartu gabe ezen eternitatea aurkitzeko sentimenduen abstrakzioa besarkatzea ezinbestekoa zela. Mendiek, esaterako, mendez

mende iraun badute, horregatik izan da: ez harkaitz gogorrez eginak daudelako, baizik barrutik sentimendu trinkoz josita egoteagatik. «Eternitatea bilatzen eternitate osoa igaro zuen gizonaren istorioa» hori da.

XCIX

Bi ibaiak toki berean jaiotzen ziren. Bata ordea ipar alderantz abiatzen zen eta bestea hego alderantz (zeruertzean, zein bere norabidean —kontrako norabidean— bistatik galtzen ziren arte). Eta bazirudien, etsaitutako bi anaiaren modura, elkarren berri gehiago izango ez zutela. Aldiz, gauzak ez ziren horrela —ehunka, milaka kilometro (batzuen ustez) egin ostean, berriro ere elkartzten baitziren—. Eta elkartzten ziren gunean urek kolore berezia hartzen zuten; eta elezaharren arabera, ahots ugari hizkuntza anitzez entzuten ziren inguruotan, bi ibaiek zeharkatutako lurraldeetatik hainbat eta hainbat gauza ekarri izan balituzte bezala, elkargune hartan bien artean banatzeko: ahotsak, hizkuntzak, elezaharrak, mila sekretu, mila usain eta sentimendu, amodiozko hitzak eta zizpuruak —batzuk benetakoak eta beste batzuk gezurrezkoak—, beste eguzki batzuen beroa, beste euri batzuen zaporea, hamaika abesti, mota guztietako gertaera mingotsak, aieneak, hil zorian daudenen beldurra, hildakoak ehorzten dituztenen samintasuna, traizioak (haindiak zein txikiak)... «Leku berean jaio, aurrerago bereizi eta osterantzean ere nonbait elkartzten ziren bi ibaien istorioa» hori da.

C

Gizon honi gertatzen zitzaiona benetako tragediatzat hartu beharko litzateke: ametsik bat ere ez baitzuen sekula gogoratzen; aldiz, egunero-egunero, leku desberdin batean esnatzen zen. Berak ez zekien nola gertatzen zen. Zekien gauza bakarra zen ametsei loturik

zegoela, nahiz eta biharamonean ametsik bakar bat ere gogoratzea ez lortu. Esaterako, egun batean kobazulo batean esnatzen zen; hurrengo egunean, prostituta zahar baten besoetan; hurrengoan, txakur baten etxolan; gero, haurtzaindegi batean; eta abar eta abar. Ea horrek zer esan nahi zuen? Bada hauxe: gau batean izandako azken ametsen kobazulo batekin amestu zuela; beste gau batean, prostituta zahar batekin; hurrengoan, txakur bihurtu zela egin zuen amets; gero, berriro ere haurra zela; eta abar eta abar. Beraz, leku desberdin batean egunero-egunero zergatik esnatzen zen jakin arren, ezin zuen sekula amets bakar bat ere gogoratu (antzeko zer-bait gertatzen zaigu bizitzaren ametsarekin: bizitza — ametsa— bizi dugu, bai, baina ezin dugu inoiz zer gertatu den zehatz gogoratu, oroitzapena —bizitza— esku artetik ezari-ezarian eskapatzen zaigulako). «Ametsik bat ere sekula gogoratzen ez zuen gizonaren istorioa» hori da.

CI

Haizeak gogor jotzen zuen hilerriko zoko-moko guztietan, eta udazkenak botatako hostoak dantzan ari ziren hilobi bati begira zegoen gizonaren inguruan. Hilerri txikia zen, herri txiki bati zegokiona. Haizeari, hotzari eta bakardadeari jaramonik egin gabe, gizonak hilobiari begira zirauen, mutagaitz. Hilarrian idatzitako izen-abizenak eta jaiotza eta heriotza egunak, hamaika alditan irakurriak bazituen ere, behin eta berriro irakurtzetik ezin zen gelditu. Otoizka ari zela ematen zuen; baina, egiatan, hilarriko inskripzioa etenik gabe irakurtzen ziharduen, besterik gabe. Bazekien jendea hiltzen zela, baina inoiz ez zuen pentsatu hil ostean gauzak horrela izango zirela. Hilobian idatzitako izen-abizenak eta jaiotza eta heriotza egunak, izan ere, gizonaren beraren izen-abizenak eta jaiotza eta heriotza egunak ziren. Poliki-poliki, imana balitz bezala tiratzen zion hilobitik alendu, eta urrats motelean hilerritik atera zen, nonbai-

tera. «Bere hilobiari begira zegoen gizonaren istorioa» hori da.

CII

Gizon hura zen zinez metikuloso. Jakingura barru-barruan sartuta zeukan. Berak jakin nahi zuen. Beraz, egun batean lurbira osoari buelta eman eta bukatu arteko bere urrats guztiak zenbatzea erabaki zuen. Egia esan, gizona ez zen guztiz tontoa, berari ere bururatu baitzitzaion matematikaz baliatzea eginkizun horretarako. Esaterako, lurbirak kilometrotan hartzen duen neurria behin ezaguturik, urrats bakoitzaren batez besteko neurria (zentimetrotan edo) ateratzea nahikoa izango bailitzateke, hortik aurrera oinarrizko matematika eragiketak antolatu, egin eta emaitza gutxi gorabehera zehatzak lortzeko. Koska hor zegoen ordea: berak kalkulu guztiz zehatza atera nahi zuen. Tira ba, motxila hartu, eta Jainkoa lagun, munduko bazterrak kurritzera abiatu zen. Eta ematen zuen urrats bakoitza kontabilizatu egiten zuen, zenbatzen zuen. Eta hamar mila urrats kopurura iristen zenean, "/" ikurra apuntatzen zuen "Urrats Zenbaketa" izeneko koadernoan. Noski, honez gero "/" ikur askotxo izango ditu marraztuta bere koadernotxoan. Bejondeiola, zer arrario! «Lurbirari buelta osoa eginik, egindako urratsen kopurua zenbatu nahi zuen gizonaren istorioa» hori da.

CIII

Bi pertsona haien artekoa oso aspaldikoa zen. Aldiz, urteak eta urteak ziren ez zutela elkar ikusten. Egia esan, elkarren berri noizbait izan zutela esatea ere ez litzateke guztiz zuzena izango, zeren-eta Batak bai, Bestearen berri izan baitzuen, baina Besteak ez zuen inoiz Bataren berri izan —behintzat, urte dezente igaroak ziren, azkeneko aldiz elkarren berri izan zutene-

tik—. Batak noizean behin gutunak Besteari bidaltzen jarraitu bazuen ere, Besteak ez zion sekula erantzun, ez gutunik itzuli, ezta esateko ere gehiago ez bidaltzeko gutunik gehiago berari. Urteak igaro ziren, arin batzuetan motel besteetan. Eta egun batean gertatu zen — zoritxarrez!— noizbait denoi gertatuko zaiguna: Bestea, gutunak jasotzen zituena, hil egin zela. Baina Batak ez zuen horren berririk izan, noski, Besteak ez baitzion inoiz bere gutunei erantzun —izan ere, aspalditik ez zekien ezer Besteaz eta—. Hortaz, Besteari gutunak idazten eta bidaltzen jarraitu zuen, zuela urte dezente hila zenik jakin gabe. «Hildako bati gutunak bidaltzen zizkion gizonaren istorioa» hori da.

CIV

Igerilekua ez zen handiegia; aitzitik, txikia zela ere esan zitekeen. Ez zuen zulorik, noski; edo behintzat, pertsona bat "irensteko" moduko zulorik ez zeukan, ezta lakiorik edota antzekorik ere. Beraz, jendeak harriturik begiratzen zion elkarri: non arraio zegoen igerilaria? Denek ikusi zuten igerilekuan jauzi batez murgiltzen. Une hartan, gainera, bera baino ez zegoen uretan sartuta. Gizon lirain eta ondo egina zenez, igerileku inguruko belardian eserita zeuden emakumeek, oro har, begiradaz jarraitu zioten igerilekuan sartu arte. Bai, denek ikusi zuten. Beraz, non zegoen orain? Sokorrista agertu zen flotadore handi batekin —hain handia ezen barre-gura eta guzti ematen zuen, igerilekuaren tamaina aski apala kontuan hartuta—, zeren berak ere ikusi baitzuen igerilaria jauzi batez murgiltzen igerilekuan, eta dotoredore igeri egiten jarraian: *tximeleta* modura, bizkarrez, besokadak eginez, *txakurren* gisara... Gero, uretan murgildu zen, buzeatzeko edo. Eta minutuak aurrera egin ahala, azaltzen ez zela ikusita, jendea larritzen hasi zen eta batzuk igerileku ondora hurbildu ziren jakinguraz. Baina ez zegoen; igerilekuan ez zegoen inor, ezta igerilariaren arrastorik txikiena ere. «Igerileku txiki batean

arrastorik laga izan gabe desagertutako gizonaren istorioa» hori da.

CV

Hila zen. Hila zen betiko eta horren jakinaren gainean zegoen. Ez zekien nora jo. Hila zen eta beldur zen eta hotzak jota zegoen eta goseak hiltzen. Eta gainera, ez zekien nora joan. Bere gorpuari, ohe gainean hilik zeutzan bere gorpuari begiratzan zion; ezin zuen ebitatu eta. Ikaragarria zen. Eta bere jendea ikustea han, negarrez, hain atsekabeturik... Horixe zen animoa piska bat bizkortzen zion gauza bakarra, zinez maitatu zutelako froga baitzen. Ez galdetu nola egin zuen. Kontua da halako batean leihoa irekita ikusi zuela, eta handik ateratzeko gogo itzela izan zuela. Baina zerbaitek esaten zion bestelako aukerarik ere bazegoela. Orduan, seme-alabei begiratu eta soa finkatu zuen bere seme kuttunarengan, seme nagusiarengan. Eta orduan, ez galdetu nola, baina kontua da leihotik aldendu eta bere semearen barruan sartu zela. Ez galdetu nola egin zuen, faborez, neronek ere ez dakit eta. «Hil eta gero, bere seme kuttunaren barruan sartu zen hildakoaren istorioa» hori da.

CVI

Gizona lasai asko zegoen bere etxeko gelarik gogokoenean. Gela hura maite zuen: liburuz jositako apalategiak, ordenagailua, hiztegiak, CD Rom eta bideo bildumak, entziklopediak... Leku hura zinez aberritatz zeukan. Eta bertara sartzen zenean, gerra nuklearra lehertua zela esan izan baliote, sorbaldak jasoko zituzkeen. Neguko arratsalde batean, aldiz, gelan instalaturik zeukan telefonoa hoska hasi zitzaion modu zinez eskandalosoan. Haserre begiratu zion nata kolorezko tresnaxoari, ba baitzirudien nonbait sua zegoela gaztigatu

nahi ziola. Hartu zuen aurikularra hala ere, etsita, eta ohiko hitzak ahokastu zituen marmarka: *Bai, esan*. Orduan hartu zuen sorpresa, berriz, ez dago hitzekin azaltzerik: bere ahots berberak erantzun baitzion telefonoaz bestaldean! Hasierako harridurazko uneak igarota, bere ahotsari erantzun zion. Eta... oraindik ere ez dute berriketarekin bukatu. Honako hau duela urte asko jazo zen. «Telefonoari erantzutean, bere ahots berbera topatu zuen gizonaren istorioa» hori da.

CVII

Liburua eskuratu zuenean, bazekien zerbait arraro zetzakiola liburuari. Baina ez zuen jakingo adierazten zehatz-mehatz zer zen. Irakurketa hasi zuenean, liburuaren alderik harrigarriena edukia bera zela uste izan zuen, liburuak kontatzen zizkion istorioak eta oro har jakinarazten zion informazioa benetan harrigarriak baitziren. Harrigarriena, ordea, oraindik iristear zegoen. Egun batean, aurreko egunean irakurritako pasarte batzuk berriro irakurtzeko gogoia izanik, orrialde jakinak bilatu eta... ez al zituen hutsik aurkitu ba! Ez, ez zen posible. Atximurkada batzuk egin zizkion bere besoari, maisailari gero, horrek ezer aldatu ez bazuen ere. Ordura arte irakurrita zeuzkan orrialdeak pasatzen hasi zen sukarrak jota bezala, eta denak txuri-txuri zeudela ohartu zen. Sinestezina! Eta orduan, irakurri ahala, orrialdeak eta inprimaturiko hizki guztiak berez ezabatzen zirela ulertu zuen. Hortaz, liburua behin baino ezin izango zuen irakurri; liburuak irakurketa bakarra egiten utziko zion, baina besterik ez. «Orrialdeak pasa ahala, letra guztiak ezabatzen zituen liburuaren istorioa» hori da.

CVIII

Gizon harengan munduko jakituria pilatzen zihoan, irakurritako esaldi eta hitz bakoitza buruan atxikita gelditzen zitzaizlarik; izan ere, ordenagailuaren disko gogorrean baino hobeto gelditzen zitzaion grabatuta den-dena —ordenagailuarekin zegokeen aldea begibistakoa izan arren: gizonaren adimenak datu horiek guztiak elkar erlazionatzen ditu; ordenagailuak, aldiz, gorde eta besterik ez—. Kontua da gure gizontxoari laket zitzaiola, oso gainera, irakurtzea. Eta dagoeneko Alejandriako Liburutegian bildutakoa baino informazio zabalagoa eta ugariagoa zeukan bere buruan gordeta. Eta *bere burua* aipatu dudanez gero, pasadizo bitxi bat kontatuko dizuet horretaz: burua etengabe handitzen zihoakiola, kui edo kalabaza ikaragarriaren traza hartu arte. Ez zuen etsi ordea (buruan biltzen zitzaion informazioa, hain itzela izanik, espazio fisikoa okupatzen hasi bazitzaion ere), harik eta egun batean... *plof* egin zuen arte! «Irakurritako esaldi, hitz bakoitza buruan atxikitzeko gai zen gizonaren istorioa» hori da.

CIX

Autoa ez zihoan azkarregi, baina ezta motelegi ere. Autopistatik aurrera zihoan, besterik gabe —hori bera da auto guztiei eskatzen zaiena, ezta?—. Batzuetan gaua zen, eta beste batzuetan eguna. Autoak, aldiz, aurrera egiten zuen beti, ez oso azkar ez oso motel. Barruan norbait omen zihoan, baina inork ez zuen inoiz ikusi. Zenbaitzuen iritziz, autoak ez zeraman gidaririk. Gezurra zen ordea. Gidari bat zegoen, automobil bat zegoen bezain ziur. Gertatzen dena da autoa ez zela sekula gelditzen, erregaiz hornitzeko inongo beharrik ez zeukalako. Ez dago oso garbi zer zela-eta zebilen orduan automobila. Batzuek —argi eskaseko gizasemeek— erregairik behar ez zuen autoa zela uste zuten; beste batzuek —ameslariak— gidariak autoari helarazten zion emozioaren bidez zebilela uste zuten. Edonola ere, kontua da zera: autoa, ibili ere, bazebilela, inon

sekula gelditu gabe. «Autopistan zehar inoiz gelditu gabe zebilen autoaren istorioa» hori da.

CX

Txakurak ez zekien zaunka egiten. Altxatzen zuen hanka, bai, pixa egiteko; baina besterik ez. Zaunka egin nahi zuenean, zaunkaren ordeztu beste edozein hots ateratzen zitzaion: hasten zen txio-txioka, miauka, irrintziak botatzen... edo puzkar-hotsak jaurkitzen zituen eztarriko txulotik. Egundainoko txakurra zen hura. Mus-tur ondoan pare bat orban zeukan. Eta ibiltzen zenean, sorbaldako hezurak irteten zitzaizkion kanporantz, katukiei eta leopardoei bezala (eta hienei eta galgo gose-tuei bezala). Dena den, txakurra ez zekien zaunka egiten, eta hori da gauzarik garrantzitsuena. Egia esan, egiten zekien gauza bakarra txiza egitea zen, bastante ondo gainera. Eta zaunka egin nahi zuenean, orduan edozein hots-mota ateratzen zuen: hasten zen txio-txioka, miauka, irrintziak botatzen... Behin, giza ahotsa eta guzti atera zuen, eta inguruan zeuden pertsonak argi eta garbi aditu zioten, esaten zera: *Perra vida...* «Zaunka egiten ez zekien txakurraren istorioa» hori da.

CXI

Partiduko azken minutuetan huts egindako penaltiak isiltasun latza ezarri zuen futbol zelai ia osoan, penalti huraxe baitzen taldeari garaipena edota betiko porrota ekarri behar ziona. Futbolariak ikusi zuen baloia aterako biderantz abiatu zenean; eta botako puntarekin ukitu orduko zainak eman zion disparoa erraturik zihoala, itua huts egingo zuela. Gero, erabateko etsipena eta mendez mende luzaturiko amore ematea. Izan ere, egun hartaz geroztik jokalaria hortxe paratzen baita baloiaren aurrean, arratsalde hartako baloi, ate, ikuslego eta penalti berberaren aurrean. Eta egiten du arratsalde

hartan egin zuena: huts egin. Jokalariak behin eta berriro ateratzen du arratsalde hartako penaltia, eternitate osoan beste zereginik ez duelarik. Baloia ostiko ederra eman, baloia oker atera eta hor doa langa gainetik — dagoeneko desagertua den ikusleria ikuezin baten aurka—. Eta orduan, den-dena errepikatzen da berriro: futbol zelaiaz nagusitzen den etsipena, jokalariaren amore ematea, porrot latza (garaipena izan behar zuenaren orde). ... Eta horrela, inoiz bukatzen ez diren egunen bukaeraraino. «Penaltia huts egitera eternitate osorako zigorturiko jokalariaren istorioa» hori da.

CXII

Etxean zegoen telebista ikusten, kolorezko burusi marradun bat hanken gainean jarrita, bero-bero. Gustura, bai horixe. Baina, halako batean, argia etxe osoan joan zen, telebista eta gizona itzal ilunetan utzita. Jaikitzeaz zegoela, ikustera ea sukaldeko pilotu automatikoa jauzita zegoen, horman zurrumbilo antzeko zerbait atzematea iruditu zitzaion. Beldurturik, sofan apur bat hondoratu eta mantatxoia igo zuen piska bat, begiak ia-ia estali arte. Ez zegoen zalantzarik, horman zerbait gertatzen ari zen. Horman irekitako zuloa bezalako zerbait zen, baina barrutik adreilua edo zementua agertu beharrean, mota guztietako koloreak ikusten ziren, ipar polotako nebulosak bezalako efektua sortuz, baina ederra-goak hauek, hamaika ostadarrekin nahasita bezala. Espaziora, unibertso irekitako zulo bat zen, han sortua kasualitate matematiko —guretzat— ulertezin batengatik. Planetak, unibertso ezezagunak, izarrak, zulo beltzak, meteoroak, eguzkiak, bidaiari estrainoak... Halako batean, argia etorri zen, telebista piztu zen, eta zuloa desagertu egin zen. Gizonak begiak igurtzi zituen hainbat alditan eta azkenik gertatutakoaz ahaztea erabaki zuen, zoratuko ez balitz. (Beste bertsio batzuen arabera, gizona zulotik desagertu ostean argindarra itzuli zen; eta elektratresnen ohikotasuna berreskuraturik ere, gizonaz

ez zuten sekula arrastorik nimiñoena aurkitu.) «Egongelako horman irekitako zulo kosmikoaren istorioa» hori da.

CXIII

Planeta hartan den-dena zen bestelakoa. Esaterako, euria egin ordez, izar txiki-txikiak erortzen ziren, ehundaka, milaka, milioika, bilioika izar nimiño... Euri tanta adina izar txiki. Sekulako ikuskizuna zen. Jendea urrutitik ere etortzen zen, ikusteko, zeruak botatako izar euri sinestezin hura, lurrean izarrezko potxingoak sorten zituen, eta ibaiak eta errekek eta urtegiak eta lakuak eta urmaelak eta ur jauziak izar uholde batez gainezka jartzen zituen, etengabe, zeru hartan munduko gauzarik miresgarrienak arruntak eta zirtzilak izango balira bezala. Hegoaldean, basabere eta etxabere orok esker oneko jasotzen zituzten izar txaparrada handi horiek, udako hilabete luzeen ostean lurak lehor eta egarritsu egoten baitziren. Zientzialariek gertaera miresgarri hura ikertzen gogor baziharduten ere, oraindik ez zekiten misterioaren giltza non zegoen. Dena den, jendeari bost axola zion arrazoia jakiteak ala ez, jakin-egarria ederki kenduta baitzeukaten begiek zerakutsieten edertasunari esker, eta ez zuten gehiagoren beharrik. Egia esan, Lurreko biztanleak beste planeta batzuetara ihes egitearen arrazoia hori zen: nazkaturik zeuden zientziaz, hirigintzaz, obra faraonikoez, zizak bezain ugariak ziren errepideez... Beraz, noranahi joaten ziren izadi huts, azalpenik gabearen bila. Tamalez, guztiori euren etxean bertan aurkitzeko gai izan ez baziren... «Euriaren ordez, izar txiki-txikiak botatzen zituen zeruaren istorioa» hori da.

CXIV

Hara, zer-nolako jendetza futbol zelai inguruko harmailetan! Eulitxo bakar bat ere ez litzateke kabituko han. Eta ez zen sekula jendez hustutzen. Eta zenbat eta jende gehiago sartu, orduan eta handiagoa egiten zen estadioa, instalaturik omen zeukan berezko tresneria harrigarriari esker edo. Baina partidua ez zen inoiz hasten; jokalaria ez ziren inoiz futbol zelaian agertzen. Aldiz, jendetzak ez zion horratik gehiago pilotzeari uzten; beraz, futbol zelaia gero eta handiagoa zen, gero eta ikusle gehiago zituen, sekula ikusiko ez zuten partidua ikustera etorriak denak, nonbait. Hura bai gauza miresgarria; hura bai gauza inutila: halako jendetzarentzako halako futbol zelaia eraikitzea ere! Oihuak gero eta fuerteago entzuten ziren. Pankartak han, *olatua* batetik bestera, herrialde guztietako banderak eta nola ez, ba, gure ikurrina ere bai! Aurrera, ikusleok! Pasa zaitezte azkeneko partidua ikustera! Hauxe da zerua eta infernua, eternitatea eta betiereko heriotza. Ikuskizun ederragorik! «Jendez jositako futbol zelaiaren istorioa, jendez sekula hustutzen ez zenarena» hori da.

CXV

Auskalo zenbat mende zeramatzan ordenagailuak zarata txikiak etengabe ateratzen! Programatzaileak zenbaki infinitua kalkulatzeko agindua eman zionetik, hortxe ari baitzen gelditu gabe lanean. *Txik txik txak txak bzzzzz kuing kuing* eta horrelako hamaikatxo soinu eta zarata ateratzen zuen. Ordenagailua urrez, zilarrez, merkurioz eta nikelez egina zegoen, pieza guztiak baitzitu material horiekin fabrikatuak, eta pentsaturik zegoen bi mila urte inguru irauteko. Orain arte, lauzyabost mende baino ez zituen lanean emanda; beraz, jardunbide luzea geratzen zitzaion oraindik. Ordenagailuaren asmatzaileak —ziurtasunez, behintzat— ez zekiena zen zenbaki infinitu erabatekoa noizbait aurkitzeko gai izango ote zen bi mila urte horiek amaitu baino lehen. Ikusteko zegoen. Eta orduan ere, ez luke ezer frogatuko,

bi mila urte epe nahikoa ez zela, besterik ez. Agian, hiru edo lau mila urte beharrezkoak ziren... Edo gehiago... Asmatzaileak izan zuen, dena dela, halako zalantza bat bere baitan: espazio eta denbora mugatu —finitu— batean (2.000 urtetan alegia), posible al zen zenbaki edo kontzeptu mugagabe —infinitu— bat aurkitzea? Hala balitz, heriotzako betierekotasunean bakar-bakarrik suerta gaitzke zenbaki infinituaren aurrez-aurre. Eta kasu horretan, ordenagailuaren asmatzaileak honez gero jakin beharko luke erantzun zehatzaren berri. (Beste bertsio baten arabera, ordenagailuak infinituraino jarraitu zuen zenbaki infinituaren bila, aurkikuntza amai-gabe horretan bere helburua lortua zuelarik.) «Zenbaki infinitua kalkulatzeko programaturik zegoen ordenagailuaren istorioa» hori da.

CXVI

Urtero-urtero, inoiz ez hutsik egin gabe, auzoko sorgina haurdun gelditu eta bederatzi hilabeteren buruan haur batez erditu eta segituan umea jaten zuen. Auzoan denon ahotan zebilen kontu tamalgarria. Baina abernork esaten zion ezer sorgina malapartatuari. Begizkoa bota ezker... Gaiztoa zen, oso. Sorgina beti zebilen bakarrik; ez zuen inorekin hitz egiten. Batzuetan, den-dara jaisten zenean —behar zituen gauzak erostera—, orduan bakarrik ikusten zitzaion. Gauez noizbait ere ikusten zuten, herriko kalerik ilunenetan, edo menditik zetozen bideetatik etxerako bide ezkutueta zehar. Martxo bukaeran edo apiril hasieran gelditzen zen haurdun urte guztietan, nola inork ez zekiela. Mendira egindako txango haiek zerikusirik izango zuten, noski (sorginak kabroitzarra gurtu eta Berarekin —Deabruarekin— olgutzen direlako, antza). Eta bederatzi hilabete igarota, abenduaren hogeitalauan beti (Gabon Gauean, hain zuzen), orduan entzuten zen haren etxean ume jaioberriaren negarra. Eta jarraian isiltasuna. Erabateko isiltasuna. Jaioberria Gabon Gaueko afaritako baitzuen, noski.

Ikaragarria, hi! «Urtero haurdun gelditu eta ume jaioberrri guztiak jaten zituen sorginaren istorioa» hori da.

CXVII

Auskalo nork jarri zuen han, Interneten — norbaitek jarri bazuen, zeren batzuen ustez helbidea bera paratu baitzen hantxe, mirariz edo—. Interneteko helbide bat zen, webgune bat alegia. Berezia zen ordea: ez zen existitzen. Zergatik? Ba, esan bezala, bertan inork jarri ez zuelako. Eta bera bakarrik kokatzea han, bere kabuz... Tira, ez zen existitzen horregatik. Baina, hala ere, hantxe zegoen. Eta leku guztietatik iristen zitzaizkion mezuak: batzuk amodiozkoak, beste batzuk zientziari buruzkoak, eta azkenik destinoari buruzkoak zirenak. Denetik. Zer arraio: jendeak jakin nahi zuen, eta orduan galderaz ondo zamatutako mezuak bidaltzen zizkieten. Harrigarria zen, guztiz, inork ez baitzekien helbidearen berri; hala eta guztiz ere, bidaltzen zizkieten mezu guztiak iristen zitzaizkion hutsik gabe. *Helbide ezezaguna, zerbitzariak itzulita* tankerako gertaerak ezezkoak ziren. Webgunean, bestalde, batzuek zioten begi bat, ordenagailuaren pantaila ia osoa hartzen zuen hori koloreko begi handi bat agertzen zela, triangelu baten barruan sartuta. Baina alderdi hori ez dago guztiz egiaztaturik —gezurtaturik ere ez—, webgunearen barruan inork sartzea lortu zuela pentsatzea barregarria eta batez ere gezur galanta baino ezin baitzitekeen izan. «Egiatan existitzen ez zen Interneteko helbidearen istorioa» hori da.

CXVIII

Abuztuak bederatzi egun zituen eta Zumaiako jendea gertaera ezin sinetsirik zebilen. Ahotik ahora ez zen beste hizketagairik entzuten herriko karrika estuetan zehar: herriko txakolin guztiak gorritz ateratzen hasiak

baitziren. Jainko maitea! Hura bai hondamena. Zumaiako txakolin zuriak betiko joanak! Hainbeste neke eta izerdi, txakolin upategietan isurita, tradiziozko edaria aurrera ateratzeko, eta inork entelegatzen ez zituen arrazoiengatik txakolinak zuria izateari utzi eta gorria zen orain. Gorri-gorria gainera; ez ardo gorriaren kolorearekin —zeren, azken batean, txakolin zuria ez ezik, txakolin beltz eta gorriak ere badaude—; gorri-gorria baizik, odolaren kolorearekin, kolore horretxekin. Eguzkia zeru-goietan nagusi; itsasoa urdin-urdin eta bare-bare; eta gorri koloreko txakolin hura zela-eta herriko jendea, oro har, bihotz-min... «Zumaiako txakolin gorri-gorriaren istorioa» hori da.

CXIX

Munduko boligraforik onena zen: tinta ez zitzaion sekula agortzen eta. Ikaragarri ona zen. Itxuraz arrunta, baina mamiz berezia, guztiz. Nola, endemas! Boligrafo harekin ikasi nuen lehen letrak idazten, txikitant: a, e, i, o eta u. Listo! Geroago, izerdi asko botata, boligrafo haretxekin gainditu nituen batxilergoko eta unibertsitate garaiko azterketa guztiak. Eta autoko eta etxebizitzako maileguak —bizitza guztiraino kateatuko nindutenak— izenpetu nituenean, berriro ere boligrafo hartaz baliatu nintzen. Mihi gaiztoek diotenez, nire heriotza igarri zuen eskelaren datuak ere boligrafo horretxek idatziak izan ziren. Gezurti halakoak! Nik ederki dakit, zerren hil ostean boligrafoa neurekin lurperatu baitzuten eta, hain zuzen, bestaldetik idazten ari natzai-zue lerrook... «Tinta inoiz agortzen ez zitzaion boligrafoaren istorioa» hori da.

CXX

Gaua tunel estu hartan barrena nahiko aurreraturik zegoen. Txakurra eta bere jabea etxean zeuden, ustez

lotan edo. Halako batean, txakurrak ulu ikaragarria jaurki zuen, gaua bera mindu eta ikaratu egin zuena. Txakurraren jabea artean arinki lo soilik, izuturik erdi altxatu zen ohetik. Hamabi urte luze ziren txakur horren jabe zenetik, eta ez zion sekula santan halako ulurik entzun, ezta behin ere. Eta txakurrari oraindik geratzen zitzaizkion urte eskasetan ostera ere ez zion halako ulu zirrarragarririk adituko. Buruko eta besoetako ileak latz eta zut zituen eta oilo pinportak azal guztian. Burura etorri zitzaion lehen azalpena heriotzarekin lotu zuen: *Beharbada, auzokoren bat hil da... Edo txakurrak heriotzari berari atzemateko gauza izan al da...? Beharbada, Herio gure etxean sartu da baina txakurrak atzeman dio eta uxatu du...?* Horrelako gogoeta goibelak buruan zituela, poliki-poliki, txakurraren jabea lotan geratu zen berriro ere. Ez zuen inoiz antzeko ulurik entzun; baina ahaztu ere, ez zitzaion inoiz ahaztu. «Txakurrak gauaren erdian jaurkitako ulu ikaragarriaren istorioa» hori da.

CXXI

Jendeek inoiz ikusitako belaontzirik ederrena zen. Nolako oihal puztuak, portutik itsaso zabalerantz abiatu zenean! zenbat kanoi alde batetik eta bestetik! nolako harrokeriaz zeharkatzen zuen itsas azalera, apar jostagarriak sortuz! Baina orain geldi zegoen. Egia esan, aspalditik zegoen geldi, ez aurrera ez atzera egin ezinik, auka edo alga erraldoiz inguratutik, haize boladarik txikiena somatzen ez zela. Egunak lehenik, asteak gero, eta hilabeteak azkenik igaroak ziren. Eta den-denak bere horretan jarraitu zuen: belaontzia itsasoaren erdian geldi. Egun batean, jatekoak eta edateko ura eta itxaropenak eta egunak ere amaitu zitzaizkien ontziko marinelei; graduaziorik altueneko tripulaziotik hasi eta itsas gizonik apalenenganaino. Kito. Hantxe geratu ziren; hantxe utzi zituzten euren oroitzapenik maiteenak, bi-ziak, beldurrak... Ontziak, ordea, bere hartan iraun zuen, mutagaitz, geldi, hondoratzeko gogorik bat ere gabe.

Milaka urte igaroak ere, belaontzi harrigarriak bere tozian iraun zuen, bere patuaren gatibu... agian konstelazio bihurtua. Nork jakin. «Haizerik gabe, itsaso erdian, betira arte harrapaturiko belaontziaren istorioa» hori da.

CXXII

Pertsona bakoitzak badu halako une hilezin bat, orain artean inork aurkitu ez badu ere. Nonbait dago, hala ere; nonbait dago. Bai, baina... non? Zeinen itzela den unibertso hau. Aurkitzea da, beraz, orratza lastometan topatzea... Inork aurkituko ote du berez dagokion une hori? Berea aurkitzea zaila izan-ta, aurkituko al du besteen? Une hilezina, ordea, garrantzi handikoa da, hitzak berak dioskunez erabat hiltzetik salbatzen gaituelako. Horren behar gorrian gaude, gainera, gu guztiok. Betiereko anonimatoan amaitu nahi ez badugu, behintzat... Eta zergatik ez, gero? Ez izatea berriro inoiz, inoiz ez... Baina hori ez da posible. Ezereza irudikatzerik ez badaukagu, nolatan izango gara noizbait ezereza? Irudika dezakegun guztia izan gaitezke; irudika ezin dezakegun ezer ezin gaitezke izan. Eta hori ez dut nik esaten; hori Jainkoak berak esaten du. Ez al zenuten atzoko egunkaria irakurri ala? «Persona bakoitzaren une hilezinaren istorioa» hori da.

CXXIII

Unibertsoan mota guztietako estentsioak daukela gauza jakina da. Hori edonork daki. Estentsio kosmikoak dira, bide zidorrak bezalakoak, zeinetan zehar mota guztietako asmoak, ideiak, sentipenak, e.a. dabil-tzan, zirkulatzen duten. Guk uste dugu den-dena *geuri* bururatzen zaigula. "Libre albedrioan" ere sinesten dugu, itsu-itsuan. Eta gehienez jota, determinismo naturalaren esku uzten dugu geure izatearen zati handi eta txiki bat (zati bat baino ez). Oraindik ez gara jakitun,

antza, unibertsoko estentsioei dagokien kontuaz. Han, bestaldeko lurralde infinitu hartako izakiei darien bibrazioen emaitza baino ez gara gu eta dagokigun enbalaje txiropa: unibertso kosmikoaren puzkartxo bat, eta besterik ez. Horregatik aritzen gara elkar hiltzen, elkar zapaltzen, elkar gorrotatzen: puzkar kosmikoaren esklabu garelako. Eta guk uste genuen, halere, justiziaren, ongizatearen, zuzentasunaren alde egiten ari ginela, puzkar kosmikoaren gatibu ginela jakin gabe. «Doilorkeria infinituraino —guganaino— proiektatzen zuten estentsio kosmikoen istorioa» hori da.

CXXIV

Eta orduan, mundua erabateko isiltasunean murgildu zen. Kamioiak, automobilak, garabiak, lantegietako tresna erraldoiak nahiz txikiak. Den-dena. Isiltasuna erabatekoa zen. Jendearen ahotsa, umeen jolasak, irratiko ahotsak eta dantzalekuetako musika saioak. Ezer ez. Lurra izeneko planetak lurra deitzeari utzi zion (horrela deituko zion gizabanakorik gelditzen ez zelako) eta behinolako itxura hartu zuen: jatorrizko denboretakoa, sorrerako uneena, fantasiatzko itxura... Berdin dio nola izan zen: gerra nuklearra, zoritxarreko istripua, asteroide batekin izandako talka ikaragarria edota jainkozko borondatearen erabakia. Gertatu egin zen —hori baino lehen beste hainbat gauza gertatu ziren bezala—. Aldaketarik nabarmenena zeruetan izan zen, hantxerako zeruak ezohiko itxura hartzen hasi baitziren. Baina inor bizirik ez zegoenez, horrek ere ez zuen aparteko garrantzirik izan. Noski, Lurrak bueltaka jarraitu zuen. Ala ez...? Zeren gu, gizakion presentzia bizia behin amaituz gero, gelditzen ote da ezer zutik...? «Mundua erabateko isiltasunean murgildu zenean, gertatutakoaren istorioa» hori da.

CXXV

Sorgin lizunak hartutako erabakia ez zen atzo goizekoa, duela mende luzeak erabaki baitzuen munduan diren gizonezko guzti-guztiekin amodioa egitea. Ez galdetu nola egiten zuen, hori berak bakarrik zekien-eta. Kontua da munduko giza espezimen ar guztiekin txortan egiteko modu bat —modu magiko bat— aurkitu zuela, akatsik bazuen ere: piska bat motela edo geldoa zen, modu hori. Eta beraz, denbora asko behar zuen garai batetik bestera igarotzeko. Gainera, sexu harreman bakoitzean «kutsaturik» gelditzeko arriskua zegoen. Zerekin kutsatu? Bada arima bakoitzak zeuzkan gaitz, keria eta gainerako okerkeria guztiekin, noski. Gaitzak, bestalde, pilagarriak ziren, eta belaunaldi batetik bestera pasatzen oso errazak. Horregatik, piskanaka-piskanaka egin behar zuen bere bidaia sexuala sorginak, gaitzek-eta gero eta pisu handiagoa hartuak zutelako haren baitan. Birus informatikoekin ere antzeko zerbait gertatzen dela uste dut, ezta? «Munduan izan diren gizonezko guztiekin amodio egitea erabaki zuen sorginaren istorioa» hori da.

CXXVI

Lau edo bost urteko umea dadoekin jolasten ari da bera bakarrik. Ez ditu jolasaren arauak ezagutzen, noski. Dadoak botatzen dituen bakoitzean, munduko lekuren batean zerbait gertatzen dela ere ez daki. Lau-bost urteko umetxo bat da, bere jolas gelan abstraituta, dadoetara jolasten. Gela horretan ez dago inor. Suposatzekoa da aldameneko gelan gurasoak egongo direla. Baina une horretan, behintzat, bera baino ez dago. Dadoak hartu, kubiletean sartu, astindu eta horra doaz bost dadoak (zeren beti bost dado baitira). Eta tirada bakoitzean, nonbait zerbait gertatzen da. Bestalde, dadoen aldeetan zenbakien ordeztelako grafiak, inskripzioak, hieroglifikoak, e.a. agertzen dira, tirada bakoitzean beti aldatzen direnak sekula errepikatu gabe. Eta or-

duan, dadoak bota eta nonbait zerbait gertatzen da: basamortuko osin bat lehortzen da, Afrikako animali espezie bat iraungitzen da, merkaontzi batek ez du etxerako bidea aurkitzen, oihanean lore mota berri bat sortzen da, eta New Yorken auto bati gorpila zulatzen zaio. Zeren nonbat edozer gerta baitaiteke tirada bakoitzean... umetan... ezta...? «Dadotan jolasten ari zen umearen istorioa» hori da.

CXXVII

Kupelarik onena zen, bai kalitatez bai kantitatez. Izan ere, ez baitzen sekula amaitzen. Barruko sagardo gozoa ez zen inoiz agortzen, upategiko jabeak egunero-egunero auskalo zenbat litro hortik ateratzen bazituen ere. Sagardo gozoa zen, gainera. Urrutitik ere etortzen zen jendea; kupela miresgarria ikusi eta ilaran jartzen ziren, *zotz!* oihua noiz entzungo irrikan denak. Kupela hartatik edatea ekintza erlijioso bilakaturik zegoen ia. Misterioa, bestalde, adierazgaitza zen. Egia esan, ez zuen inongo azalpenik. Zeukan izaera magikoa zen eta kito —gure bizitzako hainbat eta hainbat gauzarekin bezala—. Hori koloreko isurki gozo-mikatza alai isurtzen zen kupelako txulotik, apartsu, jostari... Batzuek diotenez, upategiko jabearen arbasoek esperimentu batzuk eginak zituzten ilargi beteko gauetan landaturiko sagarrondo batzuekin; eta mihi gaiztoei kasu egitera, akelarrera ere joaten ziren San Joaneko gauan... Ez dakit ba. Dena den, kupelako sagardoa ez zen inoiz amaitzen, infinituari loturiko txulo bat bere aurrealdean ireki izan baliote bezala. «Sekula agortzen ez zen kupela bete sagardoaren istorioa» hori da.

CXXVIII

Oihaneko basorik zarratuenean dela, gure mendirik ezagunean dela, itsaso ondoko belardi izengabe

batean dela...: naturaren existentzia osoan behin bakarrik loratzen den landarea lorea ateratzeko zorian dago. Landare honek, duela mila urte sortuta, behin ere ez du lorerik eman, naturak bestelako apeta gorderik baitzeukan harentzat: loratuko zen, bai, baina ez bere existentzian behin bakarrik, hainbat eta hainbat landareekin gertatzen den bezala; baizik naturaren beraren existentzian behin baino ez litzateke loratuko. Eta horixe ari zen gertatzen une hartan, Naturak paratutako unea heldua baitzen. Landarea sailkaturik zetorren zientzia liburuetan, eta planetako hainbat lekutan kausitzen zen erraz asko. Dena den, ez zen ugari-ugaria, eta leku bakartietan hazten zen beti, gizakiontzat oso aproposak ez diren alderdietan, hain zuzen. Horregatik, gau hartan, landarea gure planetako leku guztietan loratzen hasi zenean, inor ez zen mirariak konturatu. Loraldia azkarra izan zen guztiz, hamabi bat ordutan den-dena hasi eta bukatu baitzegoen. Gure artean inoiz izan den lorerik ederrenetarikoa gainera. Zinez politta eta edertasun handikoa, ezagunak eta ezezagunak ditugun hamaika koloreekin, miresgarria, zeharo... Ilargia, izarrak, gaua eta haizea beste lekukorik ez zegoela, landarea naturaren existentzian lehen —eta azken— aldiz loratu zen, eta bihar-monean ez zen itxuraldaketa hartaz arrastorik txikiena ere gelditu. «Naturaren existentzian behin bakarrik loratutako landarearen istorioa» hori da.

CXXIX

Berak bazekien hor kanpoan unibertso bat zegoela. Guk denok dakigun unibertso bera. Bat baino ez, hala ere. Zeren unibertso bakar bat infinitua izan badaiten ere, bi unibertso edota berrehun unibertso, esaterako, are infinituagoak dirateke beti. Unibertso kopurua bera infinitua izan daitekeela ahaztu gabe, noski. Hor-taz, honaino ados gaude denok. Eta orduan —eta ziu-rraski horregatixe— unibertso sortzaileak —artistaren bat seguraski— bere gelako hainbat lekutan espazioak

irekitzen hasi zen; eta espazio bat irekitzen zuen bakoitzean, unibertso batekin egiten zuen topo. Ez zen gelditzen, baina, unibertso bakoitza arakatzera, horretarako denbora infinitua beharko zukeelako —eta bera oraindik ez zegoen hilda, egunen batean hilda egongo balitz ere, eta egun horretan denbora infinitua izanko luke unibertsoak banan-banan arakatzeko—, neurri batean horrek nahiko arrazoizkoa dirudi, zeren unibertsoak infinituak baziren —eta egiatan, halaxe ziren; bakar bat infinitua izan zitekeela esan dugun bezala— bada orduan, heriotzaren ostean seguraski beste heriotza mota batzuk egongo ziren eta horrek frogatuko luke heriotzaren osteko denbora ere nolabait mugatua dela, eta beste infinitu batzuetarako zeharbidea —edo bide zidorra— baino ez dela, eta Heriotza guztiak, ondorioz, bakar bat direla, heriotzaren esanahi edo kontzeptua bera deusezteraino. Gauzak horrela, unibertso sortzaileak —artistaren bat agian— espazioak —eta ondorioz, unibertsoak— sortzeak ez zuela merezi erabaki zuen, ahalegindu gabe ere aterako bailitzaizkioke bidera horrelako produktuak, horrelako unibertsoak, tankera horretako kosmogoniak. Denak eta aldi berean ezer ez, liztor habian bezala. «Zenbait infinitu sortzeari utzi zion unibertso sortzailearen istorioa» hori da.

CXXX

Alkimistak urteak eta urteak zeramatzan eda-beak prestatzen eta asmatzen. Ez zitzaizkion lar interesatzen helburu materialak zituztenak, errazak eta arruntak juzkatzen zituelarik. Berak nahiago zuen gizakion aldarte, aiurri, izakera eta nortasuna aldatzeko ahalmena zuten drogak; zenbat eta iraunkorragoak, hobe; hariketa, egun batean, mundua hankaz gora jarriko zuen eda-bea aurkitu zuen arte. Inoizko drogarik, edaberik indartsuena zen, mundua diferentea izango zen egun hartaz geroztik. Eta ez zebilen oker. Pozaren eta tristuraren arteko aldarte sortu edo aurkitu baitzuen (alkimistak

beti esaten zuen berak ez zuela ezer sortzen, baizik lehendik zegoena aurkitu baino ez zuela egiten): melankolia. Bai, alkimistak melankoliaren edabea asmatu (edo aurkitu) zuen. Eta egun hartaz geroztik gauzak zeharo aldatu ziren gure planetan: olerkariak, pintoreak, eskultoreak, idazleak, zirkoko trapezistak eta pailazoak eta malabaristak, bertsolariak, gerrako zaldunak, *Don Juanak*, izar erotikoak, sagardo egileak eta aizkolariak eta erruleta jokolariak eta garaileak eta galtzaileak sortu ziren, eta euren askazia eta horien pareko beste askorena zabaldu eta hedatu ziren lurbira osoan zehar, baita Gaztelako La Mantzaraino ere, non bizi baitzen ero eta ameslari bat, erroten ordez erraldoiak ikusten zituena... «Nostalgia-aren edabea asmatu —edo aurkitu— zuen alkimistaren istorioa» hori da.

CXXXI

Ezinezkoa zen ipuin bilduma osoa irakurtzea, eta ez pentsa ipuinak astunak edo zirenik; aitzitik, nahiko bilduma atsegina zen. Irakurlea gaztea zen liburua irakurtzen hasi zenean; orain, berriz, zaharkituxe zegoen eta, hala ere, liburua oraindik bukatu gabe zeukan. Ea irakurle hura alferrontzi galanta al zen? Bada ez, ez horixe; aitzitik, irakurle fin eta arduratsua zen. Zenbat ordu emanak ipuin bilduma huraxe irakurtzen! zenbat egun! zenbat urte! Alferrik ordea, beti gelditzen baitzitzaion, gutxienez, *ipuin bat gehiago*. Eta halaxe zen. *Ipuin bat gehiago* beti. Berak, irakurleak, ezin izango lizuke garbi adierazi zer zela-eta gelditzen zitzaion beti *ipuin bat gehiago*. Edo bai: liburua itxi orduko, liburua-aren amaieran ipuin berri bat agertzen zelako, misterio-tsuki... Ordurako, ehunka, milaka ipuin irakurrita zeuzkan liburu harrigarri hartan. Beti, ordea, beste bat aurkitzen zuen liburua itxi eta berriro ireki ostean. Matematika zen; ez zuen inoiz huts egiten. Hori bai, azkeneko ipuina irakurri arte ez zitzaion beste ipuin bat gehitzen liburuari. Bazen liburua *sentitzeko* gai izango balitz

bezala, hau da, bere ipuin guztiak irakurrita zeudela sentituz gero, bada orduan beste ipuin bat gehitzen zuen gutxira arte azkena izandako ipuinaren jarraian. Ipuinak zoragarriak ziren gainera (liburuaren irakurleari, behintzat, hala iruditzen zitzaizkiolako —zeren bestela ez bailirateke zoragarriak izango—). Harrigarria zen, baita ere, ipuin guztien arteko batasuna, denak hari eroale beretik sortuak. Irakurleak batzuetan bere buruari galde egiten zion hil eta gero liburuak bere horretan jarraituko al zuen. Eta gertatu zen egun batean ipuin liburuaren irakurlea hil egin zela. Eta orduan, liburua ere hil egin zen, hau da, irakurle zenduaren etxean egindako garbiketara orokorrean norbaitek ikusi, begirada bat eman eta sutara bota zuen, barrez, zera esanez: *Begira, hau da beti irakurtzen zuen liburua. Ipuin bildumatxo bat. Ozta-ozta ditu ehun eta hogeita bat orrialde.* «Irakurraldi bakoitzaren bukaeran, ipuin bat gehiago eransten zituen ipuin liburuaren istorioa» hori da.

CXXXII

Telebista aurrean ez zekien ziur zenbat denbora zeraman: orduak, egunak, urteak... Denbora gehiegi; hori, seguru. Hainbeste denbora, ezen, pantailan agertzen zena jada ez baitzuen ikusten. Hala ere, beraren eta pantailaren arteko interakzioa erabatekoa zen. Begietatik zizareak atera izan balitzaizkio, mutagaitz jarraituko zukeen. Ez zuen kanalez aldatzen; aspaldi handitik ez zen kanalez aldatzen. Ez zuen horren beharrik; egia esan, ez zuen ezeren beharrik. Burujabea zen, ia-ia existitzen ez zelako. Haragi puska bat zen, bizirik. Eta telebistari begira zegoen. Antza bere mundua gogai zezakeen ezer ez zegoen, ez bere barruan ez beragandik kanpo. Telebistak sortutako uharte bat zen. Ez zuen ezer sentitzen, ez zuen ezer pentsatzen, ez zuen ezer nahi. Denborak, txokolatina zuri baten zaporea zuen; beharbada, antzeko itxura ere hartu zuen beretzat. Ez zekien. Ez nekien. Nork zekien? Telebista pizturik zegoen, eta

hori zen garrantzitsuena. Gainerakoa, bagaje hutsa; osagarria, azala. Auskalo zerk eragin zion halako hazkura zerebrala; kontua da telebistako aginte koadroan *itzali* botoia sakatu zuela. Beharbada, istripuz egin zuen; nahigabez (ezer nahi ez bazuen ere) egingo zuen, ezta? Orduan, telebista itzali egin zen. Eta bera, hiltzera zihoalako bulkadaz jabetzeko astia baino ez zuen izan. «Telebista itzaltzean, bere bizitza ere itzali zuen gizonaren istorioa» hori da.

CXXXIII

Kaixo, gabon esan zion igogailutik atera zen pertsonari, eta berarekin gurutzatu zen igogailu barrura sartu zenean. Berehala konturatu zen igogailuan flotatzen zuen usain bereziaz; ez zen txarra, baina ezta ona ere. Zortzigarreanean bizi zen; eta gora igo ahala, artega sentitu zen. Sonbreroa janzten zuen —igogailuan berarekin gurutzatu zen pertsonak—; eta gabardina klasikoa zeraman soinean, solapak altxaturik, aurpegia ezkutatzeko bezala... Hara, aurpegia! Ezin izan zion ikusi; aurpegiaren orde zulo bat besterik ez zegoela gogoratu zitzaion. Igogailuak igotzen jarraitu zuen. Arraroa zen, eta hain luzea zirudien... Bazekien zerbait gertatua zela; ustekabe txarren bat hartuko zuela. Zortzigarrenera iritsi zenerako zainak airean zegoen. Igogailuko atea berez ireki ziren. Amaren etxe aurrera heldu, giltza atera, zerrailan sartu eta bira egin zion. Orduan, atea ireki zenean, berriro ere atzeman zuen igogailuan atzemandako usain bera, ez ona ez txarra. Deitu zion amari, baina ez zion erantzun. Jo zuen sukaldera —hark gehien maite zuen lekura— eta ez zuen aurkitu; gero, logelan begiratu eta hantxe topatu zuen, ohe gainean, oraindik bero baina dagoeneko hilotz. Eta orduan, igogailuan berarekin gurutzatutakoa Herioa zela jakin zuen inolako zalantza izpirik gabe. «Herioarekin etxeko igogailuan gurutzatu zen gizonaren istorioa » hori da.

CXXXIV

Sabaiko lanparak sabaitik zintzilik jarraitzen zuen, beti bezala, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Gezurrontzi halakoa! Ez zela ezer gertatu? Halakorik! Itsuak ginela uste al zuen bada...? Eta bonbilatxo bakoitzaren lekuan, argia itzali orduko, bat-batean ateratzen ziren begi beldurgarriak, zer? txakurraren putza ziren ala? Sei ziren guztira. Sei bonbilatxo luze, apur bat oblikuo, argia itzali orduko hiru pare begi bilakatzen zirenak. Non-eta neronen logelako sabaian gertatu behar hori guztia! Eta jakingo bazenute nolako haragijaletasuna zerien sei begi izugarri horiei... Aber ba, nork itzaltzen zuen argia gauez! Nik ez, joderrrr! Nik inolaz ere ez. Nire zortzi urteko semeak etorri behar zuen gau guztietan nire logelako argia itzaltzera eta ni apur bat lasaitzera: *Lasai, aitatxo. Begi horiek hortzik ez dute-eta. Oraindik...* A, alproja halakoa!. Eskerrak berari, hala ere; bestela... Brrrrrr! Guztiz beldurturik bizi nintzen, sabaiko bonbilatxoetako begien begirada niri atxikita somatzen nuelako, gauez, argia itzali orduko, eta baita Iberdrolako fakturak ordaintzeari utzi eta gerokoan ere. Ikaragarria, hi! ikaragarria... «Argia itzali orduko, bonbilen orde z sei begi agertzen zituen lanpararen istorioa» hori da.

CXXXV

Urte luzeak zeramatzan basamortuak barkatutako hondar eta aztarnetan ikertzen. Anforatxo bat, txanpon zahar batzuk, harrizko eskultura puska bat edo beste... Baina hieroglifikoak ziren berak zinez maite zituen aztarnak, *iraganeko mezuak*, berak deitzen zizkion bezala. Kasu honetan, arkeologoa —zeren arkeologoa baitzen, noski— harriturik zegoen: bere eskarmentu luzean lehen aldiz ikusiak zituen halako hieroglifikoak. Interpretatzen zailak, bai, baina noizbait puzz-

learen gakoa asmatuko zuen, eta orduan, puzzlearen piezak ordenatu besterik ez luke egin beharko... Heldu zen, ba, egun kutiziatua, lan gogorraren emaitza jasoko zuena. Eta puzzlearen zatiak ordenatzeari ekin zion. Hura bai sorpresa! Berak zibilizazio zahar baten berri jaso nahi eta... berari buruzko mezuak baino ez zituen bildu! Lehenik, bere izen-abizenak deszifratu zituen; gero, jaiotza-data, bere gurasoei buruzko hainbat zehaztasun eta azkenik, zalantza guztiak aienatzeko edo, beraren bizitzari buruzko zehaztasunak —hobekien gordeta zeuzkanak— deszifratu zituen hieroglifiko miresgarri bezain sorginduriko haietan. Baina denetan gauzarik bitxiena, gehien-bat harritu —eta baita beldurtu ere— egin zuena, haren heriotzaren eguna, hilabetea eta urtea igartzen zizkion hieroglifiko zatia izan zen. Orduan, puskak bildu eta etxera itzuli zen, zoritxarreko eguna itxaron eta bien bitartean gogoeta egiteko. «Hieroglifikoetan berari buruzko datuak kausitu zituen arkeologoaren istorioa» hori da.

CXXXVI

Jada ez zegoen zer eginik. Hilda zegoen eta kito. Ez zekiena zen zergatik, zer arraiogatik, hil zuten. Tunelaren bestaldean aurkitu zuen zaindariari bere heriotzaren arrazoiak galde egin zionean, ez zuen zer erantzun jakin. *Ez dakit* ahul batez ihardetsi zion. Beraz, ez zuen ezer garbirik ateratzea lortu, besteak mesfidantza are handiagoarekin begira ziezaiola izan ezik. Horrek nahiko ezeroso sentiarazi zuen, noski. Zeren, *tiroz* erantzun zion, bai... Baina horrek ezer gutxi argitzen zuela erantzun zion zaindaria. Bestalde, dena hain azkar jazo zen, non ziur ez baitzegoen benetan zer gertatu zen —zerbait gertatu baldin bazen—. Zaindaria, noski, ez zion pasatzen utziko erantzun garbi bat eman arte (*tiroz* esatea, adibidez, ez zen nahikoa, zeren zaindari hura han ez bazegoen ere sakoneko arrazoiak aztertzeko, berehalako ondorioekin ere ez zuen nahiko izango). Beraz,

linbo antzeko leku batean hasi zen ibiltzen, aurrera-atzera, goitik behera, bala horren arrazoia ezin aurkiturik. Oso normala dena, tirokatu zuen gizonak beste batekin nahastu baitzuen. Eta horregatik hil zuen. Tiroz eta istripuz. Baina berak oraindik ez zekien ezer horretaz; itxaron beharko zuen bere hiltzailea tunelaz bestaldera iritsi arte. Orduan argituko ziren gauzak. Bien bitartean... «Zergatik hil zuten ez zekien gizonaren istorioa» hori da.

CXXXVII

Txirrindulari haiek mundialak ziren, benetan. Saiatuak, sakrifikatuak... Asko esanda ere, motz gertuko nintzateke. Izan ere, txirrindulari talde honekin gertatutakoak ez du izenik, ez dago bi hitzetan laburbiltzerik. Denak hilda zeuden. Aspaldian hilda, gainera. Hala ere, pedaleatzen jarraitzen zuten etenik gabe —horixe egin zuten bizitzan eta horixe ere egiten zuten heriotzan—. Erabaki hori talde bezala hartu zuten, hau da, ez zen han-hemen hildako txirrindulariz osaturiko taldea, ez. Taldea bizirik zegoela —ta ondo bizirik, gainera— erabaki zuten beste munduan ere bizikleta gainean jarraitzea. Beraz, historiako une jakin eta anonimo batean, jada zaharrak ziren txirrindulariak denak batera hil ziren —euren buruaz beste eginda— eta orain hortxe ari ziren, bizitzaz gaindiko mundua euren bizikletekin zeharkatzen, denborak bukatu arte —noizbait bukatzen badira...—. «Sekula gelditzen ez zen txirrindulari taldearen istorioa» hori da.

CXXXVIII

Ez zuen inoiz ere atertzen; egia esan, ez zuen sekula atertu. Mundua mundu zenetik zirimirri etengabea egiten zuen munduko lur bazter ahaztu hartan. Herri txiki-txiki bat zen. Zenbat biztanle izango zituen guz-

tira...? Ez dakit, ba... bostehun-edo. Baina garrantzitsuena esan dudana da: lehenbiziko zirimiria erortzen hasi zirenetik, ez zuela behin ere atertu. Herrian ez zekiten euri zaparradak zer ziren, eguzkia bazegoenik, euritakorik ez zerabilten herrialde batzuk bazeudenik... Zirimiria herriko jendearen bihotzean sartuta zegoen, arimaren zoko-moko guztiak bustitzeraino; zirimiria ez baitzen soilik euri-mota bat, bizimodu bat baizik, existentzia bizitzeko modu bat. Zirimiria alkate postua baino garrantzitsuagoa zen. Eta ez zuen inoiz ere gelditzen, atertzen. Gauzen sorreratik bertatik holaxe aritu zen, ziri ta miri, bustigarri, buztin sortzaile, euritxo huts ñimiño bat betiko... «Sekula atertzen ez zuen zirimiriaen istorioa» hori da.

CXXXIX

A, gutxitan izan da halako gizon metodiko bat lurbira osoan. Ez zitzaion zehaztasun bakar bat ere eskapatzen. Edo, behintzat, ahalik eta gehien egingo zuen horrelakorik gerta ez zekion. Hori dela eta, gutxienez hogeitazero zeramatzan elaberri poliziako bera irakurtzen; liburu bera beti. Eta denbora luze horretan ia-ia ez zuen beste literatur bazkarik ezagutu, kontakizunaren azken-azken xehetasunak atzeman nahi zituelako. Gizon metodikoa zen, gauzak poliki-poliki eta ziurtasun osoz egitea gustatzen zitzaion horietarikoa. Gizon aspergarria alegia. Baina saihestezina, patuaren liburuan norberaren izen-abizenak kausitzea bezain harrigarri eta saihestezina —behin gertatu eta gero—. Liburua modu guztietara irakurrita zeukan: hasieratik bukaeraraino, bukaeratik hasieraraino, atal jakin batetik aurrera, bi ataletan behingo, biko, hiruko edota lauko orri jauziak eginez... Era guztietara alegia. Hala ere, beti aurkitzen zuen zehaztasun berri bat edo beste. Areago, elaberri poliziakoa etengabe arakatzearen poderioz, hiltzailea beste protagonista bat zela jakitera ere iritsi zen. Izan ere irakurle mundiala zen, zinez metodikoa, presarik ez duten horie-

tarikoa... «Elaberri poliziako bera beti irakurtzen zuen irakurle metodikoaren istorioa» hori da.

CXL

Liburudenda hark ez zuen parekorik, ez Euskal Herrian ez mundu osoan: ale bakarreko edizioak — tiradak— saltzen zituen-eta. Zer esanik ez, ehunka pertsonaz osaturiko ilara luze-luzeak sortzen ziren egunsentiko lehen eguzki printzek eguna urratzen zutenetik izar goratsua ostera ere, nekearen nekez, ezkutatzen zen arte. Apur bat misteriozkoa ere bazen, zeren nondik ateratzen baitzituen, bestela, liburudendaren jabeak tirada bakarreko ehunka, milaka izenburu? Batzuek ziotenez, bera zen liburu guztien egilea. Baina hori, bistan denez, ezinezkoa zen, bere liburudendan pilatzen ziren izenburuak milaka zenbatzen zirelako. Orduan, nondik ateratzen zituen tirada bakarreko liburu haiek guztiak? Programa informatikoren batek eginak ziren...? Ez, hori erabat baztertu beharra dago, liburudendaren jabeak, eduki ere, ez baitzeukan ordenagailurik. Ederki dakit nik, berari ordenagailu bat saldu nahian berrogei urte luze daramatzadan informatikako komertzial saiatu eta zintzo honek... «Ale bakarreko tiradak soil-soilik saltzen zituen liburudendaren istorioa» hori da.

CXLI

Jende gutxik zekien bankariaren bizimoduaren berri. Familiarik gabea eta ezkongabea izanik, ia inork ez zion galderarik egiten bere bizitza pribatuari buruz, ia adiskiderik ere ez baitzuen. Goizeko zortzietan berak zuzentzen zuen banketxean sartu eta hirurak arte jo eta ke aritzen zen lanean. Bitarte horretan, gutako inork amestu ere ez dituen diru kopuruak eta zenbatekoak igarotzen ziren bere eskuetatik. Dirua erabiltzearen poderioz, diruaren zentzua galtzeraino iritsitako gizon

klase horietakoa zen. Banketxea Parisen zegoen eta banketxeko zuzendaria *chambre de bonne* (neskamegela) batean bizi zen. Auzokoak zituen arraza guztieta-koak: txinatar, afrikar eta ekialdeko europar langile xume eta apalak gehien-bat, baina baita ikasleak, artistak eta abenturazaleak ere. Giroa aldakorra izanik, jendeen joan-etorriak urteena bezain burtzoragarri bilakatzera iritsi zen. Aldiz, egun batean *chambre de bonne* bera ere gehiegitxo-edo iruditu zitzaion eta *clochard* (eskale) bihurtzea erabaki zuen —goizeko zortzietan banketxean lanean hasten normal-normal jarraitu bazuen ere—. Ez zuen, ordea, bere *chambre de bonne* hustu, arropak aldatzeko eta lanera joan aurretik kanpoko itxura txukuntzeko beste ezertarako erabili ez arren. Edonola ere, kale gorrian bizi zela esan zitekeen, banketxeko lana hiruretan amaitzen zuenez geroztik. Neguan nahiz udan, hotza edota beroa egiten zuela, egunez eta gauez, kalean bizi zen, eskale arropak jantzita, bera inork ez ezagutzeko moduan. Agerian zegoenez, dirua ez zitzaion axola, banketxeko nagusi trebea eta on-ona izanik ere. Egun batean, ez zen lanera agertu. Eta egun hartaz geroztik, sekula ez zuten haren aztarnarik izan, nahiz eta polizikak bilaketa handiak egin, eta komunikabiderik garrantzitsuenetan desagerpenaren berri eman bazuten ere. Desagertu aurreko goizean *clochard* bat hotzez hilda aurkitua zuen poliziak Senako zubi azpikoetariko batean. Dokumentaziorik ez zeramanez, eta hartaz galdezka inor agertu ez zenez, ez zuten jakin nor zen. Bestalde, zertarako hartu nekerik eskale zorritsu batengatik...? «Lanetik atera eta gero, *clochard* bilakatzen zen banketxeko zuzendariaren istorioa» hori da.

CXLII

Gauza jakina da gure unibertsoa zinez miresgarria dela. Zenbat misterio eta ustekabe gordeta dauzkan, nolako aniztasuna erakusten digun...! Esaterako, behin

bazegoen gure unibertsoan planeta bat, zinez harrigarria zena, bertako biztanleak hil eta gero izar uxu, meteorito, kometa edota espazioko hauts bilakatzen ziren eta. Gero, itxura berri horrekin milaka edota milioika kilometro zeharkatzen zituzten, euren barruan bizia sortzeko haziaren edo horren antzeko zerbait eramanez. Planeta hartako izadiak bide hori bilatua baitzuen bizia beste leku batzuetara barreiatzeko. Egia esan, ez zegoen oso garbi zehazterik planeta hartako biztanleen sorreraren arrazoa zein zen: sortuak ziren berez euren sorreraren helburua izateko? edota garraio modura izadiari zerbitzatzeko? Tira ba, nork dauka bere esku galdera guztietarako erantzuna? Jainkoak akaso, Unibertsoak, Inork ez... Baina bien bitartean, amets dezagun, amets dezagun geure indar guztiekin; eta begiak itxita, izan gaitezten espazioa, unibertso infinitua; isilka-misilka, apaltasunez eta gorentasunez zeharkatzen duten izar uxu, meteorito, kometa, harri kozkorrak... bueltaka etengabe, itxuraz helbururik gabeak... «Hil eta gero, meteorito, kometa... bilakatzen ziren planeta urrun bateko biztanleen istorioa» hori da.

CXLIII

Nazkaturik zegoen ohiko hizkuntzaz; gehiegizko pisua zeukala uste zuen. Ziurraski, arrazoi osoz. Ez zuen ohiko grafismoa nahi; horixe zeraman hogeitau urteotan egiten, eta emaitzak hortxe zituen begien aurrean: txarrak, penagarriak. Orain, beste zerbait behar zuen. Pikotara, betiko hizkuntza konbentzionalismoak! Ez zuen errepresentazio grafikoaren beharrik, ezta adimen errepresentaziorik ere. Uharte bat izango zen aurretantzean, gertaera adierazgaitz bat, berarentzat ere misterio hutsa. Pentsatu, idatzi eta bizi izango litzateke musikaren, matematikaren, eskulturaren armonizazio abstraktu horrekin. Berak ez zuen hitz bat nahi, hunkipenen jatorria bera baizik. Erloju bat asmatuko luke, orratzik gabe, baina orduaren sentsazioa orduko beti-

beti ere emango ziona. Ez zion alderdi materialak axola, alderdi materialaren ondorioak baizik. Bera ez zen bera, baizik berari buruz zeukan ustea. Hortaz, urteak desegingo zituen, errezelak urratuko zituen, kenduko zion mozorroa bere buruari. Eta orduan... eta orduan... Hizkuntzarik gabe geratuko litzateke, biluzik, munduan izandako lehen protogizakia bezala. Itzuliko litzateke paradisura, aurkituko luke berriro ere bere ama, bere amaren ama (inoiz ezagutu ez zuena), aspaldiak hilak ziren izeba-osabak... Eta orduan, ez zuen hizkuntza baten beharrik izango. Gezurrik gehiago ez, otoi. «Pentsatzeko traba egiten ziotelako, hizkuntza konbentsionalismoak orok ezabatu zituen gizonaren istorioa» hori da.

CXLIV

Munduan ez zuen parekorik, inoiz asmatutako boligraforik onena zen eta: ez zen sekula gastatzen! Tinta alegia. Ez zitzaion inoiz agortzen, bukatzen. Ez zuen ordezeko kartutxorik erabiltzen ezta bestelako artilugiorik ere. Eternitatea boligrafo haren barruan harrapaturik egongo balitz bezala. Kanpotik arrunta eta trinkoa zen, pieza bakarrekaz eginda. Kaputxoia salbu, gainerakoa pieza bakarra zen, plastiko antzeko material bat, gogorragoa baina... Boligrafo horren asmatzaileak ederki ulertu zituen betierekotasunaren funtsa, mamia, esentzia... zertan ziren. Lerro beltz bat ez omen da ezer; ezta letra solte bat ere. Hitz batek zerbaiten itxura hartzen du ordea. Eta hitz asko batera... edo hiztegia da (ezerezaren errepresentaziorik harrigarriena, konbinazio guztietarako giltza ematen duena) edota ideia/asmo/kontzeptu guztien printzipioa da (unibertsoaren sorrera ere bai, zeren litekeena baita unibertsoa esaldi baten errepresentazioa izatea, eta ez besterik). Kasu horretan, galdera zuzena ez litzateke izango zer izan zen lehen, arrautza ala oiloa; baizik zer izan zen lehen, arrautzaren haragizko (ahozko) errepresentazioa ala oiloaren berbazko irudikapena. Zenbaitzuen ustez,

gure boligrafo eterno hau bazitekeen zibilizazio batek bidalitako aurrelaria izatea. Badu bere azalpena (mundu honetako gauza guztiak bezala). Baina hori, beste kontu bat da. «Sekula agortzen ez zen tintazko boligrafo pinpinaren istorioa» hori da.

CXLV

Autobidean sartu zenean, ez zuen aparteko ezer nabaritu. Beharbada, bidesariko gizonaren begitartea piskat bat arraroa ote zen...? Bestalde, bidesarian gizon hura bakarrik zegoen. Noski, goizeko zazpiak baino ez ziren... Litekeena da, bai, apur bat ezohikoa izatea, halako bakardadea halako autobide garrantzitsu batean... Baina ezinezkoa ere ez zen. Hala ere, bidesariko arduradunaren begitarteari lotuta, aitortu beharra dago zerbait beldurgarria zeukala, begirada desolatu bat, mugitzeko halako geldotasun ia infinitu bat... Lan bakarti eta motelaren ondorioa, ziur. Ordu erdi luzea zeraman gidatzen, eta lehenbiziko seinale asaldagarriari erreparatu zien. Ez dakit, paisaia... ez zen betikoa. Berak ongi ezagutzen zuen ibilbidea, askotan egiten zuen-eta. Muino horiek, aldiz... Ez zeuzkan sekula ikusita, ezta bide bazterreko zuhaitzak ere. Ez zekien zein zuhaitz mota ziren, baina hantxe, inguru hartan, betidanik egondakoak, behintzat, ez ziren. Bestalde, handiegiak ziren berritan landatuak izateko. Beste ordu erdi bat igaro zenean, benetan larritzen hasi zen, ordurako ez baitzuen ezertxo ere ezagutzen. Berak egin behar zuen bidea hiru ordu laurdenekoa baino ez zen; autobideko irteera nonbait atzean utziko zuen... Azalpena hori izango zen. Baina... Ez, bere burua engainatzen ari zen. Kilometro kontagailuari begiratu zion. Zur eta lur geratu zen: beti errepikatzen zen zenbaki bat agertzen baitzuen, zenbakiak mugitzen baziren ere. 26.666, zenbaki horixe zen. Eta bost zenbakiak batera mugitzen baziren ere, kopuru bera osatzen zuten beti. Halako batean, beste ibilgailu bat ikusi zuen aurrerago. Lehenbizikoa autobidean sartu

zenetik. Azeleragailuari sakatu zion hura harrapatzeko. Eta haren parean egon zenean, erabat izaturik begiratzen zion bera bezalako gizon bat ikusi zuen beste kotxea gidatzen. Gizon hark berarekin antz izugarria zeukala iruditu zitzaion... Bere aurpegi bera zuen! bere izu berbera bizi zuen! Azkar-azkar aurreratu eta autobide amaigabe eta mortua topatu zuen berriro ere. Kilometro zenbagailuak bere horretan jarraitzen zuen, 26.666 zenbakia adierazten beti. Orduan, munduko gauzarik pentsaezinena gertatu zitzaion: autoa bide bazterrean gelditzen saiatu zen, baina... ezin izan zuen automobila geldiarazi! bere kabuz zebilen-eta. Hortik aurrera, ezertaz harritzeko arrazoi handirik ez zegoela ulerturik, bolantetik bi eskuak kendu zituen. Ibilgailuak aurrera jarraitu zuen, noski, bat ere deskontrolatu gabe. Aurrera beti, beti aurrera. Autobide hura noizbait bukatuko al zen galde egin zion bere buruari. Erregaiaren orratza milimetro bakar bat ere ez zen mugitu hurrengo zortzi orduetan, ezta hurrengo goizean ere, ezta hurrengoan ere... «Infinituraino zeraman autobidearen istorioa» hori da.

CXLVI

Tunelaren aurrera iritsi zenean, hunkipen berezia eragin ziola aitortu beharra dago. Herrialde ezezagun batean zehar zebilen, mendiko errepide makal eta aldapatsuetan zehar. Noizean behin, mesfidantzaz edota penaz begiratzen zioten auto gidari batzuekin gurutzatzen zen, kasu bakanak izan arren, errepide haiek muntutik kanpo zeudela ematen baitzuen. Azkenik, tunelera heldu zenean, aparteko zerbait sentitu zuela esan du. Eta hala izan zen. Ozta-ozta barruratzen hasia zela, burua atzerantz itzuli zuen, ia-ia nostalgiaz, eguneko argi hura azkeneko aldiz ikustera joango balitz bezala. Eta ez zebilen oker, bere barruntazio horiekin: kilometroak eta kilometroak egin ostean, tunel barruan jarraitzen zuelako, zuzeneko lerro ilun hartan barrena galdurik, tunelean sartu aurreko lehen oroitzapenetan ere galtzen ha-

sita. Ez zen beste inor ikusten. Une batez, tunel hura berarentzako soil-soilik eraikitakoa ote zen galdetu zion bere buruari. Begiak itxita zituen, eta ostera ere irekitzeko presarik ez zeukala pentsatu zuen. Munduan eternitaterik egongo bazen, berak aurkitua zuen, zalantzarik gabe. Halako gauzak lehenago edo beranduago gertatzekoak dira; ezin dira saihestu —jaiotzea edo hiltzea bezala eta bizitzan hainbat gauzarekin bezala—. Onena begiak ixtea zen, eta autoari utzi nahi zuen tokira eraman zezan... «Tunel amaigabearen —beharbada infinituaren— istorioa, irteerarik ziuraski ez zeukanarena» hori da.

CXLVII

Zazpi kilometro! Zazpi kilometro baino ez, helmugara iristeko. Zoritxarrez, zazpi kilometro haiek ez ziren sekula amaitzen. Benetan. Txirrindulariak gutxienez hogeitau urte eta koska zeramatzan zazpi kilometro haiek egin nahian, alferrik baina. Ez, ez zen txirrindulariz mozorrotutako barraskiloa, ez. Benetako txirrindularia baizik, txirrindulari arrunt horietariko bat. Hogeita lau urte luze horietan behin ere ez zen bizikletatik jaitsi, ez zion inoiz pedaleatzeari utzi. Aldiz, zazpi kilometroko eternitate hartaz bestaldera iristerik ez zegoen, antza. Ez zen inoiz iritsiko. Ez zuen inoiz etapa amaituko. Ba ote zekien berak? Ba al zekien zer gertatzen ari zen? Ni ezetz nago. Denborak engainatzen gaitu. Bizitza osoa aurkezten digu kaxoiz kaxoi (urtez urte) sailkatuta bezala, eta gero saiatzen da guri sinestarazten bizitza hori dela: tarte bat, hasi eta bukatzen den halako bide (nola ez, lineal) bat. Bai eta zera ere! Txirrindulariak beti pentsatu zuen gezurra zela; denbora ez zela lerro zuzen bat eta gero zenbaki bat, baizik eternitatea barruan zegoela, pertsona bakoitzaren barruan alegia; leiho bat, zeharkatu behar genuena denbora geldiarazteko, eta betierekotasunari heltzeko. Eta berak horixe eginga zeukan: txirrinara igo, denboraren leihoari nola

edo hala heldu eta bere sentimenduaz zeharkatu zuen. Orduz geroztik, hortxe dabil jo eta ke pedaleatzen, uni-berbtoarekin batera, buelta bakoitzean milaka kilometroko bidaiak eginez, baina aldi berean, zazpi kilometroko hesi espazial horretatik atera gabe —ez baitu horren beharrik, hala nola hegaztiak ez du berbaren beharra askatasunaz gozatzeko—. «Helmugara iristeko zazpi kilometroko infinitua zeharkatzen hogeitau urte eta koska igaroak zituen txirrindulariaren istorioa» hori da.

CXLVIII

Gizona aspaldian zen hila. Ordea ezin ideiarekin etsi eta urtean behin *mania* bat edo hartu zuen: auskalo nondik, berea izandako etxera telefonoz deitu eta berataz galde egiten zuen. Eta orduan, betiko erantzuna jaso eta gero, *O, barka* hots egin eta komunikazioa mozten zuen jarraian. Ea zer erantzuten zioten? Beno, bada, ohikoa horrelako kasuetan: hila zela, han jada ez zela bizi, ez zutela ezagutzen, telefono zenbakia oker markatu zuela... Badakizue, horrelako gauzak. Nik ez dakidana da non demontretik deitzen zuen. Nire etxeko telefonotik ez, behintzat... Bestalde, zerk bulkatzen zuen deitzera da galderarik interesgarriena. Hilda ere, bere heriotzak eragiten zion harridura ote zen urtero-urtero bere etxera telefonoz deitzera bultzatzen zuena? Bizitza honetan, edo etxe hartan, zinez garrantzizkoa zen zerbait ahazturik geratu ote zitzaion eta orain ez zekien akaso nola egin hura berreskuratzeko? Nostalgia hutsa ote zen? Zeren garbi zegoen madarikazio beltz baten aukera zeharoko zentzugabekeriatzat jo beharko litzatekeela, bere kasuan behintzat, beti ematen zuen erantzun amarugabea ikusita: *O, barka*... Tira, gauza ugari dira ezagutzen ez ditugunak. Esaterako, nork ordaintzen zuen izugarri garestia izan behar zuen konferentziaren gastua? E? Nork? «Urtean behin etxera deitzen zuen gizon hilaren istorioa» hori da.

CXLIX

Herrialde hartan, gameluek ere beroa paratzen zuten, eguzkia ez baitzen inoiz sartzen. Fenomenoaren kausa ez zekien inork: bi eguzki ote zeuden, bata erabat ezkutatu baino lehen ateratzen zena; ala eguzki bera zen beti toki batetik sartu eta beste tokitik azkar-azkar ostera ere ateratzen zena. Auskalo, inork ez zekien hori (eta gainera, zergatia ez zitzaion inori ere inporta). Argindar lantegirik ez zegoen eremu hartan, noski. Etxebizitzak eta kaleak argiztatzeko ez baitzegoen horren premiarik. Eguzkia bazen zeruan piztutako zuzi eternoa; herrialde hartako biztanle bakoitzak bere baitan zeraman zuzia, ulergaitza, galderez harantzagokoa (Jainkoari une batez zerbait ahaztu izan balitzaio bezala —zer ahaztu ote zitzaion oraindik ez bazekien ere—). Hogeita lau ordutan eguzki argia izateak pertsona aldatzen du, bestelako zeruertzak jartzen dizkio aurrean. Eguzkia, goian, hogeita lau orduz piztuta, azkenik ikusezin bihurtu zen jendearentzat, egunero-egunero hura ikustearen poderioz —gauzarik handienak eta ederrenak ikusteari uzten zaion bezala: itsasoa, mendiak, izarrak eta gure bihotzak zinez maite dituen pertsonak eta gauzak. «Eguzkia sekula sartzen ez zen herrialdearen istorioa» hori da.

CL

Ez zitzaion irekitzen; dioxosozko jausgailua ez zitzaiztaion irekitzen. Ez zen ireki nahi. Hamaika bider begiratu zuen ea dena ondo zegoen, abiotik jausi baino lehen... Eta orain ez zen irekitzen. Abiadura ikaragarriagorik! Berak hain maite zuen abiadura huraxe —orain, erabateko izua sartzen ziona—. Etsi egin zuen; amore eman zuen. Ez zegoen zer eginik. Jausgailua madarikatua ez zen ireki nahi; ez zuen berarentzat hil edo bizikoa zen "goardasola" zabaldu nahi. Hilko zen, lurraren aurka jota. Zatika jaso beharko lukete. Bereak

eginda zegoen. Halako pentsamendu goibelak buruan zerabiltzala, han behean, hodeiak ikusi zituen. Hodei multzo galanta, arraioa! Orduan, bere salbazioa hantxe egon zitekeela bururatu zitzaion: hodei lodi, ikertezin eta ugari haien artean. Moduren bat aurkituko balu hodei multzo zarratu horretatik ez ateratzeko... Zeren hodeiak zeharkatuz gero, lurraren gainazal urrikigabeak baino ez zion jarraian itxarongo. Hodeiak ez zeharkatzeko modua topatuko balu, ordea, hantxe geldituko litzateke, betiko. Kolpe hilgarria saihestuko luke. Baina nola, nola egin halako zerbait? Non zegoen gakoa, erantzuna, irtenbidea...? Ustekabean, bere begien aurrean, hantxe, metro gutxira baino ez, hodei multzorik trinkoenean kasik ezkutaturik zegoela, erantzun irrikagarria aurkitu zuen. Eta orduan, *paratxutista* hodeietan sartu zen. Eta minutu luzeak igarorik ere, ez zen hodei multzo zarratu hartatik atera. Aienatu egin zen, guztiz. Ea nola egin zuen? Hori inork ez daki. Beharbada, begiak itxi zituen eta amets batetik tiraka-edo hasiko zen. «Jausgailua ezin irekita, hodei multzo batean desagertutako jauskariaren istorioa» hori da.

CLI

Zenbat eta gehiago begiratu, orduan eta ederra goa iruditzen zitzaion. Bihotza bitan urratzen zion edertasuna. Berak beti altxata izan baitzuen halako murrubat beraren eta emakumeen artean. Baina oraingoan defentsa apurturik zegoen, murrua deseginik zetzan. Hain zen ederra; hainbeste sentimendu pizten zizkion. Amets bat bezalakoa zen; ez, ametsa baino hobea zen: errealitatezko ametsa zen. Eskua luzatu zuen harengana, baina azkar-azkar erretiratu behar izan zuen. Ez, hobe zen ez ukitzea. Begiratu baino ez; soil-soilik begiratu. Ukitez gero, desegino bailuke, eta orduan, ametsa bere begien aurrean desagertuko litzateke. Hala gertatuz gero, ezin izango luke beste inon/inoiz kausitu, zenbait gertaera une jakinetan behin baino jazotzen ez zaizkigu-

lako. Bera margolaria zen; paisaiak, uneak, gauzak eta... erretratuak pintatzen dituzten horietarikoa. Eta aurrean zeukan erretratuaz erabat maitemindurik zegoen. Hura sortzeko ez zuen modelorik erabili, bere irudimenean eta sormenean oinarritu zela baizik. Beraz, erretratu hartan, edertasunari buruz —kontzeptu modura— zeukan ideia zen benetan sortu zuena. Eta hartaz maitemindurik egotea bazekien Izadiatz, Jainkoaz edota azken batean Edertasunaz maitemindurik egotea zela. «Asmatu zuen emakumearen erretratuaz maitemindutako pintorearen istorioa» hori da.

CLII

Hantxe zeutzan bere soldaduen gorpuak, zati-zati eginda gehientsuenak, usteltzen, putreen gozagarri denak. Hantxe ere tresneria militarren hondakinak, puskaka nahiz osorik: burdinazko eta brontzezko kanoiak, harritzarrak eta su-bolak jaurkitzeko tramankuluak, ezpatak, trabukoak, lantzak, ezkutuak, burdinazko ez dakit zenbat arma-mota... Gudazelaiak... lainotan zirriborratutako hondakinak... gudaren biharamoneko ajea. Eta horri guztiorri begira, gure jenerala, hondoa jota (borrokaldi hartan ez baitzuen soil-soilik borroka galdu, gerra osoa baizik). Orduz geroztik hirurehun, laurehun mende igarota zeuden. Nori axola, dagoneko...? Jeneralak hantxe jarraitzen zuen, ordea, gudazelaiari begira, soa galdurik, zer egin zuen gaizki behin eta berriro bere buruari galdetzen, erantzunik kausitu gabe, bueltako bidea aurkitu gabe... Putreak oihuka eta euren artean mokoka, Kapitain baten gorputz hondarrak zirela-eta. Jenerala guztiorretaz ohartzan ez zen arren, antza... «Gerra galdurik, gudazelaiari begira mende luzeetan dirauen jeneralaren istorioa» hori da.

CLIII

Bera *bat* zen eta aldi berean ez dakit zenbat gehiago. Ehunka, milaka, milioika gizakirengan proiektaturiko munduko gizakirik apalena zen. Bera *bat* zen eta aldi berean *mundu guztia*. Ez zen Jainkoa, ez (eta baldin bera Jainkoa bazen, ez zekien horren berri). Sumatzen zuen, bai, hamaika bide zegoela, eta guztietara iristeko modu bakarra: begiak itxi, burua makurtu eta izen bat ahoskatzea. Hori nahikoa zen: munduan izan diren, diren eta izango diren guztien izenak ekartzen baitzizkion oihartzunak. Harri batean eserita zegoen — bideko harri batean—. Eta hodeiak azkar zihoazen bere buruaren gainetik, urruneko herrialde misterioitsuak helburu. Eserita zegoen bideko harri baten gainean, eta *bat* gehiago zen baina ez zitzaion inporta *bat* izaten jarraitzea ala ez. Gizon bat herrialde urrun batean kexatzen zenean, bera ere kexatzen zen; emakume batek beste herrialde urrun batean negar egiten zuenean, berak ere negar egiten zuen; eta haur batek herrialde are urrutikoago batean oihu egiten zuenean, desesperazioz, berak ere oihu egiten zuen, desesperazioz. Zeren bera *bat* baitzen, eta aldi berean ez dakit *zenbat gehiago* zen. «Ehundaka, milaka, milioika gizakirengan proiektatzen zen gizon bakarraren istorioa» hori da.

CLIV

Jendea txaloka hasi zen aretoan agertu zenean. Bera zen. Asmatzailea. Hizkuntzaren asmatzailea. Barkatu. *Jendea* esan dut. Baina nahiko tximino itxurakoak ziren denak. Eta barkatu berriro, baina *aretoa* esan dut, kobazulo iluna besterik ez bazen ere. Orduan, tximino guztiak txaloka hasi ziren. Hantxe zegoen, denen aurrean, hizkuntzaren asmatzailea. Handik aurrera, oso bestelakoak izango ziren. Ez zebiltzan oker. Hasi ziren buruzagi nagusiak uluka, oihuka, saltoka eta txaloka; edo bestela esanda, hizkuntzaren asmatzailea gorai-patzen, haren handitasuna publikoki omentzen, aldarrikatzen. Eta kobazuloko tximino guztiek are eta indar han-

diagoz ekin zioten txalo zaparradari. Kobazuloa tximinoz gainezka zegoen. Tximinotza ederra, benetan. Kobazulotik kanpoan tximino mordoia zegoen zain, hitz baten zain, txaskarrilo baten zain. Halako batean, hizkuntzaren asmatzaileari hitz batzuk esateko eskatu zioten. Orduan, barandatxo antzeko zerbaitea aurreratu eta hitz errudimentario batzuk esaten hasi zen, baina ez zuen aurrera jarraitzeko modurik izan, tximino guztiak haren aurka oldartu baitziren, eta amen batean txiki-txiki eginda utzi zuten. «Hizkuntza asmatzeagatik txalotua, goraiatua eta berehala exekutatua izan zen tximinoaren istorioa» hori da.

CLV

Hurrengo! oihu egin zuen epailea izandako borrheroak. Guillotina, urkamendia, afusilamendua, *garrote vil*, injekzioa, aulkia... Auskalo zenbat heriotza mota desberdin ezagutzen zituen. Askok, dudarik ez. Garai batean, justizia administratzen jardun bazuen ere, egun batean konturatu zen hobe zela epaiak exekutatzea —plazer handiagoa emango zion horrek—, epaitzea baino. Eta orduz geroztik, horretan ari zen, borrhero lanean alegia, ooooooso gustura. Hain garbi ez dagoena da zer zela-eta sartu zen borrhero, gizateriaz desengainatuta ala justiziaz etsi eginda... Beharbada, berandu aurkitu ohi ditugun bokazio horietariko bat baino ez zen izan... Auskalo, kontua da epaileari pozikago ikusten zitzaizola lanbide berrian hasi zenetik. Kilo batzuk eta guzti irabaziak zituen, ez pentsa. Bestalde, gizon jakintsu eta ikasia izanik, saiatu zen borrherotza (borrheroaren lanbidea) errotik aldatzen, berritzen. Esaterako, entziklopedia bat osatzen ari zen bere astialdian, kondenatuak hiltzeko milaka aholku eta nobedade bilduz. Mundu osoan egin zen ospetsu, eta haren jarraitzaileak milaka zenbatzen ziren. Areago, epailetza ikasketak bertan behera uzten zituztenak, borrherotza-ikasketei heltzeko, gero eta gehiago ziren. Eta bere exekuzioetan milaka herritar biltzen zi-

ren beti, eta sarrera txartel bat lortzeagatik (zeren zigorlekura sartzeko ordaindu behar baitzen) jendea borrokatzaren zen, askotan hiltzeraino edota larriki zauritzeraino. Esaten zutenenez, jendea hiltzeko 365 modu desberdin asmatuta zeuzkan, urteko egun bakoitzeko bat. Haren azken exekuzioa ikustera joan zirenak horditurik, euforiko atera ziren, ukabilka eta ostikoka burutu baitzituen bere eginkizuna. «Epailtza utzi eta borroero lanetan hasitako epailearen istorioa» hori da.

CLVI

Igerilekuko igerilaria bakardade osoan gozatzaren ari zen bere bainuaz. Igerilekuko urak batetik bestera zeharkatzen zituen presarik gabe, atsedean hartzeko beta hartuta (igerilekua nahiko txikia bazen ere). Guztiguztia iruditzen zitzaion ametsa. Noizean behin, zikoinek zerua zeharkatzen zuten euren hanka luzeak arrastratuz. Zeruak berak ere ematen zuen ohi baino zabala-goa, irekiagoa, infinituagoa zela; hodeiak, berriz, zuri-zuriak. Igerilaria harrিতuta zegoen bere presentziaz, zeru ezohiko hartaz, igerilekuko ur gardenez, inguratzen zitzaion bakardadeaz... Berarentzat ez zen erraza ulertzea zer egiten zuen han. Beraz, itxi zituen begiak, besokada batzuk uretan aurrera eman eta begiak berriro ireki zituenerako, ez zuen topatu ez igerilekuaren ez zikoinen ez zeruaren ez bere buruaren arrastorik. Dendena aienaturik zegoen, igeri egiten jarraitzen bazuen ere. «Igerilekuko igerilariaren istorioa» hori da.

CLVII

Ez zuen hil nahi, denok bezala. Horregatik, Herioa aurrean agertu zitzaionean, bera eramateko, eskatu zion Herioari luzapen bat, bere heriotzaren ordua atzeratzea. *Bai, baina zeren truke*, galdetu zion Herioak jostati. Dirua aipatu zionean, barrez ihardetsi zion Heri-

oak. Berehala ohartu zen bere hankasartzeaz eta bere ezinezaz. Orduan, beste zerbait otu zitzaion, eta esan zion: *Jendea hilko dut zuretzat*. Herioaren begiek dirdira egin zuten anbizioz. Tratua itxi zuten. Gau hartan bertan atera zen kalera biktima baten bila. Herioa erosteko bide bakarra huraxe zen, beraz, gizasemeak hiltzea, arimak Heriotzaren esku uztea. Bestalde, maina handiko gizona izanik, laster parekorik ez zuela egiaztatu zuen Herioak. Eta egindako negozio onaz poz-pozik, zenbaketak idatziz jasotzen zuen gizonaren bidez iristen zitzaion genero berria. Izan ere, gure gizona ez zen makala lanbide hartan. Eta denboralditxo bat pasata, modua aurkitu zuen ehundaka, milaka heriotzaren eragilea izateko: diktadura militarrek sortuz, zentral nuklearrak ugarituz, mota guztietako gaixotasunak era artifizialean barreiatuz... Saria —bere heriotz egunaren luzapena— ondo irabazita zeukan, bai horixe. «Bere heriotza orduaren atzerapena erosi zuen gizonaren istorioa» hori da.

CLVIII

Mundu guztiaren begi-bistan egon arren, baziurdiak ikustezina zela, inork ez baitzion erreparatzen. Landare bati buruz ari gara; landare xume, ugari eta... ezezagun bati buruz. Ezezaguna... zientziarako batik-batik. Izan ere, munduko biologi katalogo bakar batean ere ez zegoen jasota. Baina hain zen ugaria, inkontzienteki ezaguna, ezen oraindik inork ez zuen katalogatu, zientzialari guztiak uste baitzuten aspalditik katalogaturik, sailkatu egongo zela. A, ze hutsa! Tamalez, ez zen hori okerrena, ez; okerrena zen landarea —ez dakit zein mikrobakteriaren erruz— desagertzen hasi zela. Eta nola zientzialari guztiak oso lanpeturik baitzebiltzan espezie bakanak bilatzen, bada ez ziren ohartu landareak desagertzeko bidea hartua zuela. Eta inoren begiramenik izan gabe, hiltzen utzi zuten inkontzientzia handiz. Eta erabat desagertu zenean, ez zen ezer gertatu, horren

ostean. Ezertxo ere ez. «Oso hedaturik egon arren, sailkatugabeko landare jada iraungiaren istorioa» hori da.

CLIX

Sutea urrutitik ikusten zen, gaua argitzen baitzuen modu benetan ikaragarrian, basoko zuhaitz urri-kalgarriak errauts bihurtuz. Hurrengo egunean, ordea, basoa leheneraturik agertzen zen osteraren ere, aurreko gauean ezer gertatu izan ez balitz bezala: pagadi harroak, gaztainadi sendoak, haritz jatorrak... Hantxe zeuden denak, oso-osorik, bart gaueko suteak eragindako kalte izugarriaren arrastorik txikienik gabe. Txorien kabiak, iratze orlegi eta freskoak (basa ahuntzen elikagarri), mota guztietako sastrakadi eta zuhaiskak... Denak. Bazen zinez miresgarria. Baina eguzkia ezkutatu orduko, ilunabarreko lehenbiziko itzalekin batera, gorri koloreko distira apal batzuk agertzen hasten ziren han eta hemen. Orduan, poliki-poliki, basoa sutan hasten zen berriro ere. Eta pare bat ordutan alderdi osoa zegoen suaren mendean. Hura bai su ikaragarria! Gutxitan baino ez dira horrelako suteak ikusten! Goizean, ordea, lehen eguzki printzek eguna urratu orduko, sutea itzali eta triskantzaren aztarna guztiak desagertuak ziren, horren orde baso ederra bere horretan utzita, aurreko egunean bezain zoragarria —zoragarriagoa ez bazen—, aurreko gauean ezertxo ere gertatu izan ez balitz bezala. «Gau-gaiero erre eta goiz-goizero erabat leheneraturik agertzen zen basoaren istorioa» hori da.

CLX

Harrituta zegoen: nola ote zen posible jendeak ez izatea erleen zibilizazio miresgarriaren berririk! Ez zen animala antolamendu soila; hori baino gehiago zen: zibilizazioa, benetako zibilizazioa osatzen zuten erleek. Gizakiona baino hamaika bider aurreratuagoa. Ezeza-

guna baina. Zergatik? Erleen hizkuntzaz inork ez zekielako. Egun batean, ordea, gure ikerlariak gakoa asmatu, kausitu zuen. Zeinen erraza zen! nolatan ez zuen lehena go kausitu ba! Erleen hizkuntzak bazuen bere abezedario propioa; eta horrek, ekintza jakinak baino askoz konplexuagoak ziren jardueretan aritzeko ahalmena ematen zien. Esaterako, *hitz egiteko* ahalmena ematen zien —baina guk hitz egiten dugun bezala, hau da, abstrakzio eta hizkuntza materializazio berberaz—. Ezta aitzakia baino ez zen, helburu are jasoagoak baitzeuzkaten erleok, besteak beste: gainbeheraka zihoan gizakia-
ren enda ordezkatzea. Nork sinetsiko zion ordea? Izan ere, erleen hizkuntza ulertzeko lehenik behar-beharrezkoa zen fede piska bat izatea. Eta hori ez zegoen zientzialarien xedeen barruan sartuta. Dena den, ez zen hura oztoporik handiena. Egonarri piska bat izanez gero, mundu guztiari erakutsiko lioke erleen hizkuntza nola zegoen eraturik, azalpenari buruzko metodologia zientifikoa topatzea denbora-kontua baino ez zen-eta. Baina erleak ez dira ergelak. Eta egun batean, espioitzan jarriak ziren zenbait erle-soldadu jakitera iritsi ziren euren hizkuntza eta asmoak agerian zeudela, hau da, gizaki adimenez ezohiko bat euren sekretua igartzeko gai izan zela. Egia esanda, zientzialariaren beraren errua izan zen, landako erle batzuekin egindako esperimentu baten ondorioa, hain zuzen: hitz egin baitzien; eta erleek, hasierako uneetako harridura gainditurik, inguruko erlauntzetako kide guztiei pasatu zieten abisua. Zientzialari gizarajoa sukaldeko iragazkailua baino zuloz beteago utzi zuten, eta ondorioz, aurkikuntza miresgarria hilobira eraman zuen berekin gizarajoak. «Erleen hizkuntza ikasi zuen gizonaren istorioa» hori da.

CLXI

Zeinen bizia zen barrutik ausikitzen zion grina!
Noraino desiratzen zuen! Baina, nola lortu? Modu guztietara eginda zeukan aproba. Alferrik ordea. Patuak ez

zuen bere ezkutuko desira betetzea nahi. Badakizue, gauza batzuk edukitzeko jaiok gara, beste gauza batzuk inoiz ez edukitzeko jaiok garen bezala. Hala da, eta kito. Dena den, zenbateraino desiratzen zuen! Ezkutuko desira bat zen; beharbada, grina gaizto bat. Hobe ahaztuko balu! Baietz, aizu... Nahi bai, baina ezin (ziurraski, ezta nahi ere, zinez...). Orduan, gure munduz kanpoko indar batek ekarri zion argia. Itun bat proposatu zion; hitzarmen bat... Trukaketa bat, zehatz esanda. Hauxe: *hik heure gaztaroa emango didak eta nik hire ezkutuko desira egia bihurtuko diat*. Horixe baitzen ituna: egun bateko zoriona, gaztaroaren truke. Egun bakar horretan, aldiz, bere ezkutuko desira egia bihurtuko zen. Beheko ezpaina horzkatu zuen, urduri eta dudati. Hala ere, ez zuen denbora askorik behar izan erabakia hartzeko: *Bai*, ahoskatu zuen ia-ia dardarka. Orduan, ilunbeteko mezulariak hatzekin klask egin, kolpez desagertu eta mutila bere ezkutuko desiraz gozatzeko egunbetea izan zuen. Eta eguna amaitu zenean, ispiluan begiratu eta gizon heldu, zahar bat topatu zuen islaturik. Bera zen, noski —bere burua ezagutzea apur bat kostatzen izan bazitzaion ere—. «Bere desira betetzearen truke, egun bakar batean gaztaroa osorik galdu zuen gizon gaztearen istorioa» hori da.

CLXII

Ez zekien zergatik zegoen leku bakarti hartan, gaez. Gainera, motorraren zarata miressgarriak ez zion pentsatzen uzten —behintzat, gauza bakar bati buruz pentsatzen, ez—. Basamortuko errepidea zeharkatzen ari zen; basamortu bateko errepide bat. Halako asko zeuzkan ikusita, zeharkatuta eta azkenik ahaztuta. Igarotzen zituenean, halere, beraiez zerbait gelditzen zitzaion barruan beti, halako sentsazio bat... ukigarria eta guzti zirudiena. Emozioa agian (motorzalearen emozioa —paisaiarekiko, gauarekiko, bere bakardadearekiko emozioa—). Igarotze hori betiko igarotzea bailitzan. Ez

dakit ba, ia-ia bizitza bezala. Une jakin bateko kontua, besterik ez —misterioa hortxe zegoen, hain zuzen—. Motorzalea ez zen zahartzen, mundu osoko basamortuak zeharkatzen hamarkada luzeak igaro arren. Baten bat errepedean harekin suertatzen zenean (zaila baina ez ezinezkoa), halako hotz bat sentitzen zuen, kilometrotan eta kilometrotan irauten ziona, oroitzapenari berari tinko atxekita geratzen zena. Motorzaleak hodei arrasto bat uzten zuen bere atzetik, eta hodei horretan denetik ikus zitekeen: maiteminduek ahopean ahoskaturiko promesak (geroago ia bat ere beteko ez bazen ere), haragi usain eta haragi sentsazioak, postan galdutako gutunak (mezu garrantzitsuak garraiatzen zituztenak) eta adierazi gabe geratutako hainbat eta hainbat hitz, jada hilda edo galdurik zeuden senide eta lagun eta maitaleei sekula jakinarazterik izango ez lituzketenak, motorzaleak behin baino ez baitzuen pasatzen leku beretik, nahiz eta toki guztiak hamaika bider kurrituak izan. «Munduko basamortu guztiak gauez zeharkatzen zituen motorzalearen istorioa» hori da.

CLXIII

Marokon eguzkiak ez du errukirik, bertako handiki eta boteretsuak bezala. Eguzki horren azpian, hainbat eta hainbat gertakizunen lekuko, badago, ordea, katu beltz eta arrunt bat, bere begi oker, oblikuo horiekin... Marokoko etxetxo bateko leihotik kalera begira beti, inurritegi antzeko auzoak eskaintzen dion ilunean aterpeturik... Katuak, katuaren begiradak, auzoak adina urte omen dauka —Marokoko eguzkiak eta pobreziak eta injustiziak adina urte eta etsipen—; Marokoko ilargi erdiko edertasunarekin ia aldera litekeen sufrimendua, eternoa, unibertso infinituan inoiz amaitzen ez den bidaia, patera batean buka daitekeena berriro ere beste nonbait hasteko, aprobetxaturik gauean ilargi erdiko argiztasuna dagoela, eskuargi antzo, gure mixeriei argi piskat ematearren edo. Hori guztia islaturik dago Maro-

koko etxetxoko leihoan lasai etzanda dagoen katuaren begiradan, kalera begira dagoen bitartean, indiferente, badakielako Unibertsoan denok daukagula une bat, gure-gurea, erdibanaezina, gure zuzentasun egarria zertxobait —edota erabat— arinduko diguna, unibertsoa katuaren begiradan kabitzen delako eta izan diren —eta beraz, izango diren— nobela guztien hasiera, garapena eta bukaera katu begirada horretan bildurik daudelako. Katu begirada horretan munduko lazeriak, heroismoak eta galdutako guda guztien oihartzunek dardar dagite, lur azaletik bertatik zero mugaraino, eta baita harantzago ere, lagunok, eta baita harantzago ere. «Marokoko etxetxo bateko leihotik zerbaitera begira dagoen katu begiradaren istorioa» hori da.

CLXIV

Sandalia horiek hitz egingo balute! Zenbat lurralde, zenbat gizaki eta ohitura eta jantzi ikusita zeuzkaten! Sandalia horietan leku guztietako hauts izpiak pegatuta zeuden. Sandalia horietan munduak berak ezetz esaten zion bere hiltzoriari. Ez ziren soilik ibiltzeko *beste oinetako batzuk*; mapa erraldoi bat baizik. Janzten zituenak ezin zion eutsi ibiltzeko tirriari eta bideari lotzen zitzaion, nekearen nekez leherturik, bide bazterren batean ziplo erortzen zen arte. Orduan, sandaliak hantxe geratzen ziren, hurrengo ibiltariaren zain, patxadatsu, bere jakituria zirrargarria hamaika modutara antolatzen, birantolatzen, zeren datuekin konbinaketak egitea gustuko baitzuten gure sandalia miresgarriok. Azken batean, interpretazioak eta bide zidorrak ez ziren hain desberdinak —denek eramaten zuten nonbaitera; eta norabidearen arabera, toki batean ala beste batean amaituko ziren beraiek eta beraien jabeak—. Aniztasuna, giza eta animalia aniztasuna. Eta bakterioa, mikroorganismoena, bide guztietan egoten ziren horiena. Sandaliak bideak bezalakoak ziren: leku guztietara eramaten zuten, eta aldi berean, inora ere ez. «Lurbira osoari

buelta asko eta asko emanda zeuzkaten sandalien istorioa» hori da.

CLXV

Laino zegoen. Kanpai hotsak ibar osoan entzun zitezkeen. Ibiltariak, mendizaleak, garai bateko azken artzainak, halabeharrez eta nahita hara joandakoak kanpai hotsak entzutera... denak ziren gertaera harriagarriaren lekuko. Zeren egiatan inguru osoan ez baitzegoen ez herririk ez elizarik ez baselizarik, eta beraz, ezinezkoa zen, erabat, kanpai hots haien jatorria *fisikoa* izatea, nolabait esanda. Lainotik sortuak ziren eta kito. Lainoak berak sortzen zituen auskalo nola eta zergatik (bizitzan hainbeste gauza dira erantzunik ez daukatenak...). Gainera, handik igaro ohi zirenak emozioa atzematera ohitutako jendea izaten zen, eta ondorioz, kanpai hotsek eragiten zieten emozioarekin nahikoa zuten. Ez zuten uneoro erantzun baten beharrik; sentitu nahi zuten, emozioa bizi, kanpai hotsak bihotzeko belarriekin entzun. Lainoak bere oihal zetazkoak hedatu zituen poliki-poliki ibarrean zehar, eta urrutitik lehenik, eta lainoaren bihotzetik gero, kanpai hotsak hasi ziren, melodikoak, harmoniatsuak, presarik gabeak. Eta norbaitek aitarena egin zuen, zergatik oso ondo jakin gabe —aspalditik ez baitzen sinestuna—. Eta sinetsiz gero, zertan sinetsi ba, gure existentziak zeharo betetzen zituen laino hartan izan ezik? «Ibarrean ez herririk ez elizarik ez baselizarik egon arren, lainotu orduko entzuten ziren kanpai hotsen istorioa» hori da.

CLXVI

Emakume indartsu samarra zen, sendoa, aldaka zabalekoa, bizitzako misterio ziztrinetara emana. A, eta hogeita lau orduan behin ume bat munduratzen zuen, halako indiferentziaz gainera, egin ere. Arraroa izango

da. Ez dakit. Hark ez zuen bederatziz hilabete itxaron nahi. Presaka omen zebilen beti. Jakin ere ez dakit no-rentzat lan egiten zuen. Zenbat kobratzen zuen edota zehatz-mehatz zer onura ateratzen zuen jarduera horretatik (erditzetik alegia). Etengabe elikatzen zen, hori bai; elikadura baita oso garrantzitsua. Betidanik. Betidanik izan da oso garrantzitsua... Ume gizenak, hiru kilo eta erdikoak gutxienez egiten zituen beti. Ia-ia matematikoa zen. Ez zeukan gelditzerik. Ozta botatzen zuen azkenekoaren plazenta eta bazegoen berriro ere haurdun; tripa nola hasten zitzaion begiz antzeman zekiokkeen ia. Mundiala zen. Ume guztien ama. Esperpentikoa. Maitagarria. Bakarra. Oka egiteko modukoa, zinez. «Hogeita lau orduan behin ume bat munduratzten zuen emakumearen istorioa» hori da.

CLXVII

Kandela baten argitan, Txinako lekuren batean, agure batek liburu misteriotso bat irakurtzen ziharduen. Inork ez zuen liburu horren berri —iraganari eta etorkizunari buruzko zalantza guztiak argitzen bazituen ere—. Liburuak, laurogei urtean behin edo, irakurle berria *hartzten zuen*, aurreko irakurleak adin horrekin hilak baitziren batez beste, zahar hutsez. Gero, liburua munduko toki urrun batean agertzen zen berriro, beste irakurle baten eskuetan. Liburu bera zen beti, aurreko irakurle guztien esperientziaz aberastuta baina. Hala izan zen betidanik; beraz, aurrerantzean ere hala izango zen. Ez zen beharrezkoa aldaketarik egitea. Horregatik, liburuak orrialde kopuru bera zuen beti, aurreko irakurlearen eskarmentua gehiturik. Liburuan mila sekretu agertzen ziren: urrea harri nola bihurtu; eulien jatorria; gizakiaren iraungipen urtea; gizateria berriaren sorrera (garapena eta guztiori); eta abar. «Laurogei urtean behin edo, irakurlez aldatzen zen liburu misteriotsoaren istorioa» hori da.

CLXVIII

Animalia erraldoiak zero gris eta harrigarriari begiratzen dio, beldurrez beharbada (nork pentsa zezakeen halako basapizti bat beldurra sentitzeko gai izango zela?). Baina zerua ez da betikoa; ezta hodei horiek ere. Ez dira urez eta airez osaturiko hodeiak; hautsezkoak baizik. Hautsa da, bai, burrunba ikaragarriaren ostean laster iraugo duen gauza bakarra. Bizirik, ordea, gutxi iraugo dute (euren artean behintzat, animalia erraldioen artean: dinosaurioen artean). Azken animalia erraldoi eta beldurgarriaren hilzoria luzea izango bada ere, ez du jatekoa gogoan —piztia izan arren, heriotza hur-hurbil duela dakielako—. Horiek dira bere azken egunak, bere azken orduak, bere azken uneak. Gero, ezer ez. Bizirik egotearen kontzientzia erabat galduko du, eta kontzientzia hori da, hain zuzen, adimenak argitzen duen lehen zirrikitua. Etorriko dira beste egun batzuk, beste animalia batzuk, bizidun... berriak. Posible ote da gu izatea kasualitate baten emaitza, unibertsoaren erdian, eta besterik ez? Dinosaurioak, gero, zer izan zen beraietaz? eta gure zibilizazioaz... zer izango da bihar? Arrasto bat... arrasto bat bakarrik! Bere azken uneak bizitzen ari den dinosaurioak galdera horiek guztiak egiten dizkio bere buruari, hitzen bidez ez ordea, baizik bere bizi-kontzientzia argiaren bidez. Azken batean, ez al zen lehenik berba izan? sentipena alegia? haragi mutu eta ikaragarria alegia? «Bere azken uneak bizitzen ari den dinosaurioaren istorioa» hori da.

CLXIX

Pelotoiaren aurrean zegoen. Begiak estaltzeko esan zioten baina berak arren eskatu zien bendarik ez jartzeko, eguzki argiaz azkeneraino gozatu nahi zuela eta. Soldaduak aurrean zituen. Oraindik ez zeuden posizioan. Haietariko bi zigarroak erretzen ari ziren, indife-

rentziaz; beste bi gora eta behera zebiltzan, urduri antzo; beste bi barrez ari ziren, eta noizean behin begirada soportaezinak jaurkitzen zizkioten presoari; azkenik, bazegoen beste bat, zazpigarrena, lurrean kokoriko zegoena, antza gogoeta sakonetan murgildurik (baina baliteke sentsazio sakonetan murgilduta egotea). Eguna oso ederra zen, eta horrek apur bat minduta utzi zuen hasieran preso —hark beti uste izan baitzuen hilko zen egunean gauza guztiak goibel samarrak izango zirela, eguraldiari zegozkiokeenak barne—. Ez zen horrela ordea; eguna ezin ederragoa zen eta aurrean zeukan paisaia bera ere ezin politago agertzen zitzaion —naturak ez zuen tragedia hartaz ezer jakin nahi—. Bi txori elkarri segika aritu ziren handik hurbil une batez, jostari. Halako batean, presoaren begirada gogoeta edo sentsazio sakonetan murgildurik zegoen soldaduairen begiradarekin egin zuen topo, eta orduan, bi gizonak eta beraien patua —eta beharbada, baita bien heriotza ere— baturik gelditu ziren eternitate osorako. Eta presoak ulertu zuen zazpigarren soldaduairen begiradak helarazten zion mezua: *Ni zu naiz; ez izan beldurrik, ez baitzara inoiz hilko. Nigan biziko zara; nire begirada guztietan jarraituko duzu bizirik; nire gizatasunean jarraituko duzu munduaren zati izaten. Disparoek jota Herioaren magalean erortzen zarenean, oroit zaitez nitaz ni zutaz oroituko naizen bezala, eta egin jauzi nire begietara, burkide...* Handik laster, ofizialaren aginduak entzun ziren lehenik, eta zazpi disparoren hotsa jarraian. Presoa hilik erori zen eguzki ederraren azpian. «Fusilatzeraz zihoazen gizonaren istorioa eta bere afusilatzaileetariko batena» hori da.

CLXX

Fusilatu behar zuten presoaren aurrean zegoen. Bera zen tiro egingo zion soldaduetariko bat. Beti pentsatu zuen noizbait fusilatuko zutela (gerrara eraman zutenetik pentsamendu hori ibili baitzitzaion buruan:

etsaiaren eskuetan erori eta fusilatzen zutela). Tira, ez dakigu inoiz munduak zer sorpresa gorde digun... aurrean izan arte. Holaxe gertatzen zitzaion berari ere. Gora begiratu zuen eta eguzki ederra kausitu zuen; eta handik hurbil bi txori elkarri segika, jostari (une hura noizbait bizi izan zuela iruditu zitzaion). Pelotoia osatzen zuten beste soldaduei begiratu eta hotzikara batek kordokatu zuen goitik behera. Bai, ez zuen zalantzarik txikiena. Presoa maite zuen, laster hilko zuten presoak. Bere burua norbaitekin identifikatzekotan, presoarekin izan behar zuen. Eta orduan, presoaren begirada bere begiradarekin gurutzatu zen (arren eskatu baitzien begiak ez estaltzeko), eta den-dena ulertu zuen garbi-garbi, zeren begirada hartan hitzik egon ez arren, esan beharreko guztia ailegatzen zitzaion txirrista batetik behera bezala, eta iruditu zitzaion presoak esaten ziola: *Ni zu naiz, eta ez duzu ni hiltzeko beldurrik izan behar, zure begiradan zure gizatasunaren neurriaz jabetu naizelako. Hil eta gero, zugar bizitzen jarraituko dut, haitzak eramandako hazia bezalakoa naizelako: lur emankorreak botatzen ditut erroak. Zu mutil garbia zara, lur emankorren pareko, eta ni ez noa hiltzera, bizitzera baizik, zuri esker.* Gero, ofizialaren agindu inpenitenteak entzun ziren eta disparoen dazarra segituan. Begirada samur eta sakoneko soldaduak presoaren bihotz aldera apuntatu zuen, disparoak presoak askatuko zuen itxaropenaz. «Fusilatzaile baten istorioa eta fusilatzaera zihoazen beste gizon batena» hori da.

CLXXI

Pistolako kanoiari begira zegoen, eta zulo hartatik edozer atera zitekeela otu zitzaion: bala bat, hitz bat, gizon txiki bat... Hark kanoiari begiratzen zion, errealtatean ezer ikusten ez bazuen ere. Ez zuen kolpekaria edo gatilua sakatzeko arrazoi berezirik; jakinmina baino ez zen, besterik gabe. Hain zen tentagarria... Izerdi tantatxo bat irristatu zitzaion bekokitik sudur tabikean

zehir eta hortik lurrera. Gero, pistolari bi eskuekin oratu eta poliki-poliki ahora hurbildu zuen, kanoiaren hotza hortzetan, mihinean eta azkenik haragi osoan sentitu zuen arte. Itxi zituen begiak, eta bere hatzak, milimetroz milimetro mugitzen, atezuan jarri ziren. *Ez*, esan zuen bere artean. *Horrela ez*. Eta orduan, aho barruan zeukan kanoia atera eta ostera ere utzi zuen lehen bezala, aurpegitik bi ahurreko tartera edo. Pentsatu zuen garrantzirik ez zeukala, hantxe hiltzeak edo hantxe bizitzen jarraitzeak. Absurdua bizi zuen, ez filosofia bezala (absurdua bizitzeko ezintasuna aldarrikatzen dutenek legez), baizik benetako, zinezko sentimenduak bizi ditugun bezala: bihotzarekin (adimenarekin baino). *Orain!* hots egin zuen. Eta orduan bai, kolpekaria sakatu zuen. Bat-batean, pistolako kanoi zulotik plastikozko lore handi bat zabaldu zen, eta loretik zintzilik karteltxo bat, "PUM" zioena. Auzokoaren semetxoari lehentxeago lapurtutako jolasteko pistola zakarrontzira bota eta lanera joan zen. «Bere buruaz beste egiten zuela beretzat antzestu zuen gizonaren istorioa» hori da.

CLXXII

Jokaldia ez zen sekula amaitzen, dominoak pieza infinituak zituelako. Gizona haurra baino ez zen jokaldia hasi zuenean, eta orain zahartzarora helduta zegoela, piezak bere tokian jartzen jarraitzen zuen. Inork ez zekien piezak nondik, nola sortzen ziren —beti espazio txiki batean kabitzeakoak baziren ere—. Tira, kontua da beti agertzen zela beste pieza bat. Batzuetan, batera pieza asko eta asko sortzen ziren; eta beste batzuetan, ez hainbeste; edo bakan batzuk; edo bakar bat... Agortu, ordea, hori inoiz ez. Jada zaharturik gizonak noizbait pentsatu zuen bere bihotz taupak adina pieza ez ote zituen domino hark. Eta bazitekeen zuzen egotea... Dena den, hori ziur jakiterik ez dago (nork zenbatu ditu inoiz bere bihotzeko taupak, nor iza da horren eroa eta *zientzialaria?*). Behin, jokaldia amaiturik zegoela pentsatu

zuen, etxeko bazter guztietan begiratuta ere piezarik gehiago aurkitu ez zuelako. Baina ustekabeen hantxe azaldu zitzaion beste fitxa bat, eta beste bat ondoan, eta beste batzuk han, eta fitxa pilo bat orain eta ikatz zaku bat betetzeko adina fitxa gero... Seigarren milurtekoa etortzeko zorian zegoen eta berak oraindik jokaldiarekin jarraitzen zuen, bere sei mila urteko existentzian besterik izan ez zuen arren —eta hain zuzen, ez zuen besterik izan—. Noizbait hilko zela bazekien ordea, eta horrek adore ematen zion. Gorroto zuen, bai, infinituz osaturiko existentzia hura. Baina sorrera bat egon bazen, egongo zen, ere bai, bukaera bat. Bien bitartean, piezak jartzen jarraitu behar, noski. Eta gauez, zeruko konstelazio eta izarrei begiratzen diegunean, jokaldi infinituaren emaitzez gozatzen gara gu, ikusle doakabeok. Eta teleskopio erraldoiak lagun, ortzeari eta unibertsoari begiratzten diegunean, jokaldia sekula amaituko ez dela ulertzen dugu. Edo, behintzat, hala nahi genuke guk. «Pieza infinituak zituen dominoaren istorioa» hori da.

CLXXIII

Suak oinak lamikatzen dizkio. Ia hilda dago. Emakumea, ustez sorgina, egun piloaren erdian, salbatuko duen su urrikalgarriaren zain. Euskal emakumea, ustez sorgina, baina batez ere emakumea, euskal emakumea. Zeruan, han-hemen, hodei gorriak eta arrosakarak, han ere sua nagusi balitz bezala. Soinekoa erortzen zaio; hobeto esan, soineko puskak. Hantxe, plazaren erdian, mundu guztiaren begiradak harrapaturik dagoela. Baina ez da lotsa; eta aurpegian marrazten zaion begitartea jakituriaz gainezka agertzen da jendaurrean, azken une horietan den-dena ulertu duelako. Orduan, konturatu egiten gara liburuak ez direla superstizio itsu bat gehiago baizik. Orduan, konturatu egiten gara jakin behar genuen guztia hiltzen hasi den emakume horren begitarrean idatzita zegoela. Eta orduan, bizitza jolas, dibertimendu, bihurtzen da. Haizeak pizturik, egur pilo

lasterugarren artean desagertzen da, emakumea bezala. Amesteko jaiok gara. «Sutan hiltzera zigorturiko Erdi Aroko euskal emakume sorginaren istorioa» hori da.

CLXXIV

Batzuek ziotenez, mendiak sortu baino askoz lehenagotik, pikondoa hantxe zegoen, eder loraturik ordurako, bere fruitu miresgarriak jende hilkorriari eskaintzen zizkiola. *Baina hori ezinezkoa da, pikondoak lurra —mendia— behar zuelako, aurrera egingo bazuen...* Itun Zaharra idatzi zuena tronpatu egin zen: sagarra ez baizik pikua izan zen gizakiaren galera ekarri zuen fruitua. Eta barkatu... Pikondoko piku bakoitzak sekretu bat gordetzen zuen, hau da, demagun urtean zortzirehun eta hamabi fruitu (piku) ematen zituela. Beno, ba, denboren hasieratik (infinutik) fruituak ematen zituenez, ia-ia sekretu infinituak emanda zeuzkan munduari (*ia-ia* diot, erabateko infinitua faltsedade handia delako: hasiera bat izan zuenez, bere kopuruak nahitaez finitua izan behar du eta —kalkulaezina, baina finitua—). Azken batean, horretan datza munduko gauza guztien funtsa: kopuruz finitua den infinitu baten kalkuluz ezinezkoan. «Pikuak ematen milaka urte zeramatzan pikondoaren istorioa» hori da.

CLXXV

Ahots lodi eta astuna zen. Inork ez zekien, halere, nondik atera zen. Zirrikitu guztietatik heltzen zen. Batzuek *haizea* deitzen zioten, eta beste batzuek *zarata*. Eta baziren *musika* edota *matematika* izenak zerabiltzatenak horri deitura bat emateko. Ahots bat piska bat kosmikoa zen, argazki batetik sortua bezala. Eta bazuen halako ukitu familiar bat. Hilda zegoen arren, zenduaren ahotsak hortxe jarraitzen zuelako, den-dena okupatzen... Ahots irmo eta lodi bat, sakona, maitagarria,

aspaldikoa. Unibertsoko luze-laburrik ikaragarrienak segundu eskas batean zeharkatzeko gai zen ahotsa, gorputz batetik erauzita, barru-barruan errotuta, beti gugandik kanpo eta gure baitan egon izan balitz bezala. Ahots bat hunkipen mota guztiak sortarazten zituen. Hura ez zen ahotsa, misterioa baizik. Eta orduan, espazioak bere aho itzela zabaldu eta ahotsa hortik sartu zen, bere hurrengo unearen (agian 20.000 urte barru iritsiko zitzaionaren) zain. «Airea, espazio osoa betetzen zituen pentsamendu, ahotsaren istorioa» hori da.

CLXXVI

Munduan badira gauza benetan bitxiak. Esaterako, gizon bat ezagutu nuen, X olerkariaren olerkiei buruzko lanak besterik irakurtzen ez zituen. Den-dena zekien berataz; seguraski, hark berak bere buruaz baino gauza gehiago zekien olerkariak eta bere olerkiez. Hala dira gauzak, ordea, kontakizun honetan. Eta ez zait damu, ez horixe —nire osasun onaren berri emateko balio didalako, bidenabar esanda—. Tira, bada, kontua da berak ez zuela inoiz olerkari ezin ospetsuago haren obrarik irakurri —zuzenean, behintzat, ez—. Aldiz, berrogeita hamar urte luze zeramatzan hari buruzko eta bere obrari buruzko liburuak irakurtzen: entseiuak, bibliografiak, artikuluak, azterlanak, kritikak... Den-dena irakurrita zeukan ia (*ia* diot, zeren beti aurkitzen baitzuen zer bait berririk hartaz). Egia esan, behin saiatu zen bere olerki lan bat irakurtzen, baina laster irakurketa bertan behera utzi behar izan zuen, bere bidetik desbideratzen zuelako. Nola bizi diren elkarrekin askotan zinez elkar soportatzen ez duten bikoteak? Bada halaxe gertatzen zitzaion berari ere. Egia esan, maitemindurik zegoen. Eta maitemindurik zegoenez, objektuak berataz esaten zituen gezurrak eta autoebasioak ez zituen gogoko; berrak errealitateari heldu nahi zion, nahiz eta paperezko errealitatea izan (bere benetako bizitza fikzio bihurtzen zuena). «Olerkari ospetsu bati buruzko azter-

lanak soil-soilik irakurtzen zituen gizonaren istorioa» hori da.

CLXXVII

Munduan inoiz izandako gizonik santurik santuena izan zen bera, ez baitzuen sekula bekatu egin, pentsamenduz baino ez. Pentsamenduz beti. Fantasiazko bekatuak alegia, fantasiazko zigorrak besterik merezi ez zutenak (zigorrik merezi bazuten, noski). Bere pentsamenduan zitalkeria mota guztiak esperimentatuak zituen: hilketak, bortxaketak, torturak... Gauzarik izugarrienak, okaztagarrienak, arbuiagarrienak eginak zituen... pentsamenduz beti. Egitez, ordea, bakar bat ere ez. Inoiz ez. Hala ere, zalantzak zituen: Jainkoarentzat nahikoa izango al zen...? Jainkoak ere ez al zuen iturri beretik, akats berberetatik edaten, gu Haren ezpalekoak ginenez gero...? Ermitaua, basamortuko gizon santua, bere kobazuloan bekatu eta bekatu egiten zuen, etengabe, besterik egiten jakingo ez balu bezala, baina pentsamenduz bakarrik, beti. Egia esan, horregatik bakartu zen basamortuan, haitzulo hartan: bere fantasiazko bekatu haietaz hobeto gozatzeagatik, Jainkoaren gizatasuna hobeto bizitzeagatik. «Pentsamenduz soilik bekatu egiten zuen basamortuko gizon santuaren istorioa» hori da.

CLXXVIII

Urpekontzia hondora zihoan erremediorik gabe. Hantxe amaitzen zen dena, urpekontzi madarikatu hartako bizilagunen amets guztiak barne —okerrak nahiz zuzenak—. Halere, txarrena zen aberriko himno nazkagarria entzun beharra, azken momentu intimo horietan ere. Tira, kapitain guztiak hortera batzuk baino ez dira, euren ipurdiko puzkerrak entzunda orgasmoraino hunkitzen diren hortera malapartatu, etxekalte eta malaletxe

batzuk. Denak. Horregatik, kortozirkuitu baten ondorioz urpekontzia mutu geratu zenean, izugarri poztu zen. Orain, heriotzatik hurbileko azkeneko une horietan, bera izango zen. Eta ez aberri gutxi gora behera sofistikatu baten panpina nortasunik gabea. Urpekontzia beherantz zihoan, poliki-poliki, baina erremediorik gabe. Eta hiltzeko nahiko modu originala zela onartu behar izan zuen ia-ia barrez. Eskotila batetik begiratu eta arrain monstruoso baten begiradarekin egin zuen topo. Irri egin zion. Koadratu eta guzti egin zen monstruo harritu, indiferente eta jakinguratiaren aurrean. Nori inporta zion jada ezerk? Itsasoa ez zen marinela bati suerta dakiokkeen hilobirik txarra. Zabala zen; agian eternala zen; merke-merkea zen (lurra baino merkeagoa bai behintzat). *Estatua gutaz arduratzen da*. Burdinazko egitura barregarri haren barruan geldituko zen betiko, aberriaren izenean, aberriagatik (gaztaroak eta txo azkar batzuek jukutria ederra egin ziotelako). Hark ez zuen ezertan sinesten. Edo, hobeto esan, eskotilaz kanpotik harrituta, indiferentziaz eta jakingurati behatzen zion arrain monstruoso harengan sinesten zuen. Zer erremedio! «Hondora joandako urpekontzi bateko marinela berritik igarotako azken pentsamenduen istorioa» hori da.

CLXXIX

Ez zuen elikagairik behar; edo hobeto esan, pentsamenduz elikatzen zen. Mastekatu ere egiten ziotuen —pentsamenduak— eta eztarririk behera sabela alderantz nola linburtzen ziren konturatzekeo gai zen. Noiz hasi zen pentsamenduz elikatzen? Ba aspaldiko denboretan izan zen. Denbora urrunak ziren, bai berarentzat bai edonorentzat. Jainkoa ere deitu izan zioten noizbait —garrantzi handiegirik eman ez bazion ere—. Aulki batean eserita zegoen. Baina aulkia ez zen benetakoa (aulki bat baino ez zen, edonola ere). Tira ba, horrek ez du aparteko garrantzirik —eta ziur aski, etorri ere, ez datorkigu harira—. Aulki batean eserita zegoen,

hori bai, eta ez zen inoiz zutik jartzen. Saiatuta ere, ez genuke jakingo —ezta berak ere— beste fikzio horietariko bat ez ote zen izango... Pentsamenduz elikatzen zen gizonak irrealitatea hedatzen zuen bere inguruan, eta irrealitate horretatik beste fikzio bat proiektatzen zen; eta proiektzio horretatik, pentsamenduz elikatzen zen beste gizon gezurrezko edota egiazko bat (auskalo...). Ez zegoen mugarik. Han egotea leku guztietan egotea baitzen —eta aldi berean, inon ez—. «Pentsamenduz bakarrik elikatzen zen gizonaren parekoa izan nahi zuen gizonaren istorioa» hori da.

CLXXX

Bera bezalako irakurleak bakan baino ez dira aurkitzen: izan ere, liburu hitzaurreak beste ezer ez baitzuen irakurtzen hizpidera datorkigun irakurle honek. Liburu hitzaurreak soil-soilik; liburuak, berriz, inoiz ez. Patologikoa izango zen. Auskalo. Beharbada, ez zitzaien literatura gustatzen... Dena den, berdin-berdin jokatzen zuen beste arlo batzuk jorratzen zituzten liburuekin: historia liburuekin, musika liburuekin, matematika liburuekin... Hitzaurrerik ez zekarren libururik ez zuen sekula irakurtzen; areago, halako liburuak ixilean baina bihotz-bihotzez mesprezatu, gorrotatu eta bazter egiten zituen. Agian, denbora aurreztu nahi zuen (hitzaurretan liburuaren nondik norakoa azaltzen bazen, zertarako galdu denborarik...). *Ona, labur, bi aldiz ona*. Ezta...? Egun batean, ordea, bere proiekturik gogokoena, kuttunena jarri zuen martxan: *Hitzaurreen Hitzaurrea* izeneko liburuaren idazketa. Munduan diren hitzaurre guztien hitzaurrea izango zena. Proiektu zinez handinahia, inondik inora begiratuta. Gutxi izango ziren, gainera, bera bezain ongi prestatuak tamaina hartako zereginari ekiteko. Beraz, heldu zion lan eskerhari (eskerga, bai, ia liburu guztien hitzaurrean sintetizatuko zituen hitzaurrea gauzatzea eternitate osoko lana baitzen), irakurlerik gabeko obra baten egile erdi postumoa

izango zela, jakinik. «Hitzaurre guztien hitzaurrea idazten ziharduen gizonaren istorioa» hori da.

CLXXXI

Liburua bukatzeko ez zuen inongo presarik (liburuko azken orria igarotzearekin batera, bere bizitzako azken eguna ere igaroko lukeela bazekielako). Ez, oraingoan ez zen liburu magikorik (behintzat, alde "fisiko" batean esanda, ez). Ametsetako liburua zen; begiak ixten zituen bakoitzean, gauez, lo egin orduan, beti azaltzen zitzaiona, behin ere hutsik egin gabe. Orri bat —bi orrialde— amets bakoitzeko. Eta ordurako hogeita hamabost orri —hirurogeita hamar orrialde— irakurrita zeuzkan. Egia esan, oso-oso gutxi falta zitzaion liburua amaitzeko; zehatz-mehatz zenbat, ezin esan, hori ametsak ez baitzion inoiz jakiten utzi (ametsak ongi gordetako sekretua izanik). Ez zekien liburuaren izenburuaren berri ere. Jakingo zuen noizbait, azkeneko orria igarotzearekin batera. Esmatzean gogoratzen zuen gauza bakarra zen gaueko irakurraldian gelditutako orrialdearen zenbakia, eta besterik ez. Azkenik, egun batean senez beldur zen unea iritsi zitzaion: azken orria —bi orrialde— igarotzeko unea. Aldiz, irakurtzen amaitu zuenean, iruditu zitzaion, ezen, azken orri hura bestek bezalakoxea zela, eta biharamonean ez zela ezertaz oroituko, irakurketa utzitako orrialdeko zenbakiaz izan ezik. Hura zen, ordea, azken orrialdea, azken-azkena. Eta bukaerako paragrafoaren azpian, *AMAIERA* ezagunaren orde, gurutze bat agertzen zen. Eta ametsetik atera baino lehen, ametsak liburuaren izenburua irakurtzeko aukera ere ematen ziola egiaztatu zuen susmo txar baina estoiko batez: *Ni naizen hau* zioen. Gero, hil egin zen, laurogei ta hamazortzi urte zituela —berrogeita hamalau orri bider bi orrialde—. «Ametsetan irakurritako liburuaren istorioa» hori da.

CLXXXII

Astronauta zen eta espazioan galdurik zebilen (koetetik kanpoko espazioan ez, ordea, baizik bere ametsen arteko espazioan zegoen galdurik). Ezin zen amets hartatik esnatu, amets bakoitza beste amets batera amiltzen zuelako, eta hortik beste batera, eta beste batera, eta beste batera... Hainbeste ametsen arteko espazioa zeharkatu zuen, non handik jada itzultzerik ez zeukan. Norbaitek hantxe ikusi izan balu, ez zela ezer gertatzen ari pentsatuko zukeen. Ziur. Baina, egiatan, zerbait gertatzen ari zen. Bestalde, amets bakoitzean Errusiako panpin tipiko horietako bat agertzen zitzaion, batzuk besteen barruan sartzen diren panpin horietariko batzuk (*Masencak* antzeko izena dutela uste dut). Astronautaren kasuan, berriz, panpina (amets bakoitzean agertzen zitzaion panpina) aurrekoa baino handiagoa zen. Beraz, jatorrizko espaziotik betierekotasunerantz zihoan. Eta horrek ametsetan halako poz bat ematen zion... Dena den, alderantziz gertatu izan balitzaio ere, seguraski leku berera iritsiko zatekeen. Edo, agian, amets arteko espaziorik txikienera (ezerezara akaso) heldu ostean, berriz ere espazio zabalagoetara aterako zen, zeren azken batean denori gertatuko baitzaigu beti zalantza horixe gure barruan piztea: ez ote garen bukatzen hasi ginen toki berean, edo gauza bera dena, ez ote garen bukatzen ostera ere hasteko. Edo alderantziz... «Amets arteko espazioan galdu zen astronautaren istorioa» hori da.

CLXXXIII

Idazten igaroa zuen bizitza osoa. Ez zuen libururik idatzi ordea, liburu hitzaurreak baizik. Horretarako ordaintzen zioten eta: liburu hitzaurreak idazteko. Askotan, hitzaurrea idatzi behar zuen liburua bera ere ez zuen irakurtzen bere aintzinsola idatzi aurretik; beste batzuetan bai (egun bakoitzean zeukan aldartearen arabera). Ez

zuen inoiz libururik idazteko gutziarik izan. Baina hitzaurreak... A, hori bestelakoa zen! Munduak graziaz bazuen, zeregin horretan egon behar zuen. Hitzaurre on batean. Gauza guztiez eta aldi berean ezertaz ez mintzatea zen. Batzuetan, alprojakeriak egiten zituen. Esaterako, behin A liburuaren hitzaurrearen ordez B liburuarena eman zion editoreari. Eta ikusirik ez zela ezer gertatzen, horrek adore eman zion bere ume bihurrikeria horiekin jarraitzeko (halaxe deitzen baitzizkion bere ekintza lotsagabeei: ume bihurrikeriak). Egun batean, idatzi berria zuen hitzaurrea alemaniar itzultzaile bati pasatzea bururatu zitzaion, alemanieraz jar zezan. Gero, alemanieraz idatzita, argitaratzaileari pasatu zion zegoen bezala liburuaren barruan sar zezan. Hurrengo zazpi gauak eta zazpi egunak begiak batu ezinik igaro zituen, oraingoan urrunegi heldua ez ote zen bere buruari galde-turik. Baina laster ikusi zuen ezer okerrik gertatzen ez zela eta horrek konfiantza itzuli zion. Beraz, ekintza are makurragoak prestatzen eta gauzatzen jarraitu zuen. «Liburu hitzaurreak soil-soilik idazten zituen gizonaren istorioa» hori da.

CLXXXIV

«Solfeoz tutik ez bazekien ere, soinurik ederrenak asmatzen zituen gizonaren istorioa».

CLXXXV

«Edari gozoak asmatzen zituen gizonaren istorioa (botila bat, beti, asmaturiko edari bakoitzeko)».

CLXXXVI

«Janariak, elikagaiak eta antzeko gauzak auto-reproduzitzen zituen zilarrezko sabela asmatu zuen gizonaren istorioa».

CLXXXVII

«Hiru orriko ipuin infinitua asmatu zuen gizonaren istorioa».

CLXXXVIII

«Lurrinik zoragarriena asmatu zuen gizonaren istorioa (nahikoa zen behin bakarrik usaintzea, menpekotasunik handien eta sendaezinena eragiteko)».

CLXXXIX

«Hilezina izateko, munduko liburutegi publiko eta pribatu guztietako liburuak irakurtzea erabaki zuen gizon hilezinaren istorioa (hilezina, bai, bere egitekoa amaitu arte —eta ez du inoiz amaituko— inoiz hilko ez delako)».

CXC

«Ondo edo gaizki jokatzeko, bere aita hila-
ren erretratuaren begitartea aldaturik ikusten zuen gizonaren istorioa».

CXCI

«Nafarroako Erriberan galduriko herriaren istorioa (bertara iristen banaka batzuek soilik bazekiten ere)».

CXCII

«Hogeita lau ordu lehenagoko oroitzapenak orok zeharo ahazten zitzaizkion gizonaren istorioa».

CXCIII

«Zenbakiak erabiliz eleberriak idazten zituen gizonaren istorioa».

CXCIV

«Melankoliaren elisirra asmatu, olerkaririk onena bilakatu zen gizonaren istorioa».

CXCV

«Hogeita hamar hizkuntza baino gehiago nahastuz hitz egiten zuen gizonaren istorioa».

CXCVI

«Zeruko izarrak zenbatzearen poderioz, hilezintasuna lortu zuen gizonaren istorioa».

CXCVII

«Sekula amaitzen ez zen zigarroa asmatu zuen gizonaren istorioa, sekula amaitzen ez zen minbizia pairatzen zuenarena».

CXCVIII

«Ahaide hilak bere etxeko egongelan lurperatzen zituen gizon nostalgikoaren istorioa».

CXCIX

«Ipuinak idazteari utzi eta ipuin gaiak soil-soilik idazten hasi zen gizonaren istorioa».

CC

«Jesusen misterioa aurkitu zuen gizonaren istorioa (gizon heldu baten gorputzean harrapatutako haurra besterik ez baitzen Jesus)».

CCI

«Bere ama hilarekin telefonoz hitz egiteko aukera izan zuen gizonaren lehen hitzak: *"Ama! ama! azken belaunaldiko telefono higikorra erosi dut!"* eta guztiorren istorioa».

CCII

«Ipuinak, nobelak, olerkiak e.a. idazteko soil-soilik balio zuen boligrafoaren istorioa».

CCIII

«Guda zelaian zehar noraezean zebiltzan hildako soldadu mamuen istorioa».

CCIV

«Lo egiteko gaitasuna galdu zuen gizonaren istorioa».

CCV

«Urtero-urtero (hil, egun eta ordu berean) hiltzen zen gizonaren istorioa».

CCVI

«Hosto bakoitzean aurpegi bat agertzen zen zuhaitz miresgarriaren istorioa, eta aurpegi bakoitzak kontaktzen zuen gertaera bitxiarena».